

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-03-18
ASTELEHENA
402. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

'Ahotsak' omendu zituzten

Ekitaldi jendetsua egin zuten | 32



Jaione Isazelaia omendua. | I. SORIANO

Arabako txapeldunorde sailkatu zen Manex Agirre zapatuan | 30



Etxe-kaleratzeen legea aldatu egingo du gobernuak | 6



Aloñak eta UDAk irabazi eta Mondrak berdindu egin dute | 24

Arnaiz, lehen debagoiendarra duatloian

Martinez kantabriarra izan zen bizkorrena Oñatin | 22



Irteeran, Beñat Arnaiz aretxabaletarra eta Ander Agirre bergararra. | IMANOL SORIANO



Jorrai dantza Arrasaten. | IMANOL SORIANO

Korrika badatorrela ospatu dute herritarrek asteburuan

Herri bazkariak, euskal dantzak, jan-edanak, umeendako jolasak, salmenta... ekintza horiek eta gehiagok balio izan zuten aste bukaeran Korrika-giroa pizteko. Asteburuan ibili den jende gehienak eguenean korrika egiten badu, ez da gaizki ibiliko, ez, euskararen aldeko lasterketa. | 12

Parte-hartze txikiegia Elgetako gaztetxean

Gazte Asanbladak hausnarketa iragarri du apirilera | 11

Alzheimerra sendatzeko lagun dezaketen orratzak asmatu dituzte Ikerlanen | 7

Haize errota koloretsua egin zuten 142 bergarrek

Errauskailuaren kontrako jarrera irudikatu zuten | 4



Mosaiko koloretsua San Martin plazan, domekan. | JOSETXO ARANTZABAL



Oñatiko Unibertsitateko mudejar estiloko sabaia. | OÑATIKO TURISMO BULEGOA.



Agarreko garaia. | J.B.

Ikusgarriak, urrun joan barik, gertuan

- ▶ Ibarreko txoko kutunak asko eta ezezagunak dira
- ▶ Egun bakarreko plan ugari daude eskura

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Udaberriko oporrak badatoz eta askok plana egin izango dute. Beste askok, ordea, etxea auke-ratuko dute atsedenerako. Bada, gurean ere txoko berezi ugari dago. Debagoienarreki eskatu diegu euren herrikideei alboko herriko txoko kutunak erakutsi eta plana egiteko.

GARAZI BEITIA
OÑATIKO
PRAKTIKETAN DEN
ANTZUOLARRA



"Oñatiri historiak ematen dion xarmak inguratu egiten zaitu"

Turismo Bulegoan dihardu praktiketan Garazi Beitia eta jakin bazekien "Oñatiri Euskal Herriko Toledo" esaten diotela, baina "harritu" egin zuen "herri txiki batek duen aberastasunaren tamainak eta historiak ematen dion xarmak. "Inguratu egiten zaitu", dio. Unibertsitatea da harentzat eraikinik ederrena eta "harribitxia" da bertako dorre baten mudejar estiloan egindako sabaia. Haren gomendioa Turismo Bulegotik pasatzea da: "Monumentu bat ikusi eta polita izan daiteke, baina, historia kon-tatzen badizute, ederra izaten da".

Historia eta mendia, biak nabarmetzen ditu Oñatitik antzuolarrak. Gomendioen artean beretzat aurkikuntza izan dena ere aipatzen du: Gomiztegi base-rria. Artzain-txakurrak ikusi eta baserriko gazta probatu beharra dagoela dio Beitia, eta, behin Oñatin egonda, herri giro apartaz ere gozatu.

AITOR ITURRIAGA
BERGARAN
LAN EGITEN DUEN
ARRASATEARRA



"Bergara beti da sorpresa bat niretzat, ondo ezagututa ere"

Hogei urtetik gora dihardu Iturriagak Bergarako udaletxean lanean eta aspalditik ditu ezagunak Bergarako txoko eta bazter eder ugariak. Bat aukeratzekotan, baina, duda gutxi: "Arrasatear gehienek eta, ziur, bergarar askok ezagutuko ez dutena, Agarreko garaia". "Zoragarria" dela dio arrasatearrak eta eredugarria iruditzen zaio Bergaran ondarea gordetzeko egin duten lana, "Arrasaten ez bezala". Miresmena nabari zaio Iturriagari eta esaten du Bergara beti dela sorpresa bat

eta beti daudela gauza berriak, hain zuzen. Plan bat proposatzeko eskatuta, mendi buelta suabeak gomendatzen ditu. San Martzialgo bueltatxoa, adibidez, "azokatik irtenda, igo eta bidean ikus daitezkeen etxe eta baserriak ikusgarriak dira, Agarreko garaian amaitu arte". Goiko trenbide zaharreko ibilbidea ere gomendatzen du. Mekolalden lehengo bi trenbideak elkartzen ziren lekutik pasata, "Moyua jauregia ikus daiteke bide horretatik eta herriaren ikuspegi ezohikoa ikusten da".

Oñatiren kasuan bezala, Iturriagak ere ezinbestekotzat jotzen du bisitarekin Turismo Bulegoan hastea, "hor emango baitiote bisitariari beharrezko informazio guztia". Antolatutako ibilbide turistiko guztiak gomendatzen ditu hark eta, hain zuzen, berak "behin baino gehiagotan egin" dituela aitortzen du.

MAITE AGIRRE
ARRASATEN
LANEAN DEN
ANTZUOLARRA



"Kanpandorreko ikuspegiak txunditu ninduen Arrasaten"

Arrasaten ikasi eta lan egindakoa da Maite Agirre AEDko langilea eta elkartearen jarduteak herria oso gertutik ezagutzeko modua eman dio. Erdiguneko bi parke handiek eman zioten arreta handien hasieran eta gogoan dauka "Santa Barbaran bazkaltzen" zuela lehen beti, "oso leku atsegina". Bedoña auzoa ere "zoragarria iruditzen zaio. Bizikletan ibili zalea da Agirre eta inguru hori benetan atsegin du. Ibilbide ideala da Bergaratik hasi eta Oñatira joatea Zubillaga auzoraino eta han, Urkuluko bidean gora Bedoñara iritsi eta Arrasatera jaistea". Bedoñako eliza ere txoko kutun horietakoa du, "lasaia eta ederra".

Leku eta ikuspegi ezkontuagoak ere ezagutzeko aukera izan du antzuolarrak. "San Juan Bataiatzailearen kanpandorrera igo eta Alde Zaharra ikustea luxua" dela esaten du. Arrasateko istorio eta historia bitxiak ere harrigarriak zaizkio. Parrokian bertan dagoen Amandre Santa Inesen momia eta otoitzetatik "Arrasate hiribilduko herritar libreen historia eta Oñatiko Kondearekin izandako borrokak", batez ere.

VALEN MOÑUX
ANTZUOLAN LAN
EGITEN DUEN
BERGARARRA



"Antzuolan, Uzarraga eta Lizarraga dira onak paseorako"

Valen Moñuxek urteak daramatza Antzuolan lanean eta bergararrek "berraurkitu" beharreko herria dela dio. "Bergarar askok ez dakite Antzuolan dagoen bizi kalitatea eta azken urteetan egin diren hobekuntzen berri ez dute jakingo", dio Moñuxek. "Herri-gune bera zein polita den ikusi besterik ez dago", eranstean du, "eta askok sorpresa hartuko dute, oso zainduta dagoelako eta oso txukun geratu delako".

Egun bat aukeratzekotan, bisita egubakoitzean egitea gomendatzen du, "herria kalera atera eta elkartzen den eguna delako, poteorako egun berezia". Hark uste du bergararrak ez direla sarri igotzen Antzuolara eta "pena" dela herriak aldaketa handia izan duelako.

Inguru guztia iruditzen zaio paseatzeko egokia, baina bere gogokoenak aukeratzekotan Lizarraga eta Uzarraga auzoak aipatzen ditu. Paseatzeko, "bai iparraldeko zein hegoaldeko auzoak, guztiak" benetan ederrak iruditzen zaizkio Moñuxi. Badu, hala ere, beretzat berezia den txokoa: Antiguako parketxoa, "bere ur-puzuarekin".

Debagoieneko txoko kutunen zerrenda

ANTZUOLA

- ▶ Uzarraga eta Lizarraga auzoak paseatzeko.
- ▶ Antiguako parketxoa lasai antzean ibiltzeko.

ARAMAIO

- ▶ Lasai bazkaldu eta egoteko Marixeka ala Eguzkierripako Andra Maria.
- ▶ Orixoleko mendi txangoa.

ARETXABALETA

- ▶ Galartza auzoa eta bertako hilerria.
- ▶ Mendiola inguruan egin daitezke hamaika txango.

ARRASATE

- ▶ Bedoña auzoa eta bertako eliza.
- ▶ Bidegorria hartu eta Aramaio arteko bidea.

BERGARA

- ▶ Agarreko garaia eta San Martzial.
- ▶ Ibilbide tematikoak historian barrena.

ELGETA

- ▶ Asentsio ingurua familiarekin plana egiteko.
- ▶ Intxorta mendiak historia eta natura aldetik ematen duena.

ESKORIATZA

- ▶ Atxorrotz mendia bera eta indusketak ikusteko.
- ▶ Zubiaterko labea Euskal Herrian bakarrenetakoa da.

LEINTZ GATZAGA

- ▶ Gatz museoa eta Leintz bailararen historia.
- ▶ Dorleta inguruan eta Landara arteko txangoak.

OÑATI

- ▶ Unibertsitatea, ibarreko monumentu nagusi moduan.
- ▶ Gomiztegi baserrira bisita eta gazta dastatzea.

Antolatzea, onena

Inguruko herriak ongi ezagutzen baditugu ere, historia eta monumentuak ezagutzeko aberasgarria izan daiteke bisita gidatuen berri izatea.

Aste Santuan eta Pazko astean Bergarako eta Oñatiko Turismo Bulegoak zabalik egongo dira. Elgetan museoa eta Arrikutzen ere bisita gidatuak egongo dira aipatutako egunetan.



Arrasateko Bedoña auzoa. | BEDOÑAKO AUZOTARREN ELKARTEA



Atxorrotz mendia, Eskoriatzan. | GOIENA

**SAIOA
ALTZUA**
ESKORIATZAN
LAN EGITEN DUEN
ARRASATEARRA



"Eskoriatzan, Atxorrotz eta Zubiate ezinbestekoak dira"

Saio Alzuari ere lanlekuak eman dio herria modu berezian ezagutzeko aukera, Ibarraundin baitabil, eta oso ondo ezagutzen du, hortaz, Eskoriatzan zer aurki daitekeen, eta historiaren berri ere badaki arrasatearrak. Garbi asko dauka Alzuak Eskoriatzan nahitaezko bisita ugari dagoela, eta bi benetan interesgarriak:

Atxorrotz mendia eta bertako indusketak eta Zubiateko labea, "Euskal Herrian bakarrenetakoa". Atxorrotz da, noski, Eskoriatzako ikur eta leku ezin ederragoa. Hari ere Eskoriatzan ondarea zaintzeko egindako ahaleginak ematen dio arreta. Eskoriatzan errota bat martxan ikusteko aukera urri horietako bat ere bada goela dio eta bere gomendioen artean ere hura badago.

Horrez gain, baditu txoko bereziak eta gomendatzen duen ibilbide labur baina polit bat. "Eskoriatzako uharka zaharretik hasi", azaltzen du, "eta Bidebarrietatik gora doan bidea" aipatzen du. Antza, bertatik herria osorik ikusten da eta gomendatzen duen ikuspegia da.

**FELIX
IRIZAR**
ELGETA
BIZI DEN
BERGARARRA



"Elgetan, Asentzión egingo nuke egun-pasa plana familiarekin"

Felix Irizarrek Elgeta bizitoki moduan aukeratu zuen eta ez zaio inondik inora erabakia garbatu. Azaltzen du betidanik ezagutu duela Elgeta, baina bertara bizitzera joan aurretik herriaren bizimodu ederraz jabetu barik zegoela kontatzen du.

Bisitariei Elgeta ezagutzera emateko paseatzea gomendatzen

die, eta gerrari buruzko museoa eta ibilbide tematikoa ezinbestekoak iruditzen zaizkio, "batez ere, Intxorta magalean dauden lubakiak". Hain zuzen, mendi hori, Intxorta famatua, herriko txokorik gogokoenetakoa du bergararrak.

Galdetuta, plan bat baino gehiago etortzen zaizkio burura Irizarri, baina egun-pasarako, janaria hartu eta familiarekin egoteko, adibidez, Asentzio iruditzen zaio txoko polita. Aitortzen du Elgetan bizi aurretik ez zuela herria askorik ezagutzen. Hura ere bizikletazalea izanik, sarritan ibilita zegoen mendatean gora eta behera, eta pasatzerakoan herri txukuna zela pentsatu izan du beti. Behin bizi izatera joan

dakoan, hori eta gehiago iruditzen zio Elgeta. "Oso herri majoa da, bai polita delako eta baita giro ona dagoelako". "Leku oso eguzkitsua da", dio: "Bai, behintzat, Bergara baino gehiago, eta hementik sekulako ikuspegiak daude". Horrek konbentzitu zuen Elgetan geratzeko, antza. Haren ibilbide faboritua Intxortara igotzea da, baina Elgeta, dagoen lekuan egonda, ibilbide erraz eta ederra egiteko herri paregabea da, mendia bertan dagoelako. Azkonabieta ingurua ere aipatzen du, beste gomendio bat ematearren. Eta ezin aipatu batik utzi Athleticen lagunartea, dio, barrez. Haren zat planik onena lagunartearekin elkartu eta Athleticen partidua ikustea da.

KORRIKA BADATOR!



BERGARA
00:37:59

Oñati
04:18:56

Aretxabaleta
06:02:56

LEINTZ GATZAGA
07:13:56



Antzuola
01:03:56

Arrasate
05:36:56

Eskoriatza
06:22:26



www.korrika.org



Ernai gazte antolakunde berria aurkeztu dute Debagoiengan

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Sei hilabeteko prozesu eratzaileraren ostean, 2013ko matxoaren 2an Lizarran jaio zen gazte antolakunde berria. Hemendik aurrera, Ernaik hartuko du bere gain euskal gazteriaren gogo astindu, piztu eta zabalteko ardura.

Ez da prozesu erraza izan, Zukguatik sortutako gazte erakunde berria da Ernai. Antolatzaileen arabera 189 herritan 2500 gazteren gogoetatik sortu da Ernai. Prozesuaren azken helburua independentzia eta sozialismoa lortzeko gazte estrategia definitu eta hau garatuko duen antolakunde gorpuztea izango da, kapitalismoa baztertu eta feminismoa bultzatuz.

Ernai ekimena aurkezteko saioak Debagoienako herri guztietan egingo dira.

Gazte danbada

Gazte topagunaren testigua hartuko duen ekimena izan arren, berau baino sakonagoa izango da. Gainera Ernai gazte antolakundearen jaiotza jaialdia izango da. Martxoaren 29, 30, 31 eta Apirilaren 1ean, gazteak elkartu eta auzolanean eztabaidatu, gozatu, elkartrukatu eta sortzeko aukera izango dute.

Tailerrak, hitzaldiak, mahai inguruak, antzerkiak eta kontzertuak aurkituko ditugu bertan. Guztia, Ernaik hasi berri duen eztabaida eta hausnarke-ta prozesua aberasteko.



Ernairen aurkezpena Arrasateko gaztetxean. | IMANOL GALLEGO

Ireki da Aldundiak antolatutako udalekuetan izena emateko epea

I.G. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurtengo udalekuetako kanpaina aurkeztu berri du. 7 eta 13 urte bitarteko haurrek martxoaren 24 arte izango dute izena emateko aukera. Plazen zozketa apirilaren 11an egingo da notario aurrean.

Kontuan izan, plaza guztien %5a hezkuntza premia bereziak dituzten gazteentzat gordeko direla eta gehenez izena ematean hiruko taldeak sortu ahal izango direla. Gainera, aurreko urteetan udalekuetan parte hartu ez duten gazteek lehen-tasuna izango dute.

Aurtengo udalekuak uzta-laren 1ean hasi eta abuztuaren 14 arte iraungo dute. Gipuzkoan aukera zabala egongo da: Hondarribia, Orio, Zarautz eta Seguran egingo dira eta aisialdi jarduera anitza zabala izango dute.

Zazpi eguneko txandaren kuota 117 eurokoa da; eta 10 eguneko, berriz, 170 eurokoa. Aldundiak laguntzak emango dizkie bekadunei eta familia ugari. Interesa dutenek izen emateko inprimakiak gazteentzako informazio bulegoetan eta kultur-etxeetan aurkituko dituzte.



Herritarrek mosaikoa egiteko prestatzen, San Martin plazan. | IMANOL SORIANO

Haize errota koloretsuaren mosaikoa, herritarren eskutik

142 herritarrek irudikatu zuten Berdegaren manifestuaren logoa, domekan

AMAILA TXINTXURRETA | BERGARA

Berdegaren manifestuaren logotipoa mosaiko erraldoi baten bitartez erakutsi zuten domeka eguerdian Bergarako San Martin plazan.

Haize errota koloretsua irudikatu zuten 142 herritarrek eta mosaikoaren bitartez hauxe aldarrikatu nahi zutela azaldu zigun Mireia Lizarralde Bergara Zero Zaborreko kideak: "Mosaiko honekin aldarrikatu nahi izan dugu

birziklapenaren alde eta errauskailuaren kontra gaudela. Argi ikusten dugu birziklapena dela bidea eta hori erakusteko bildu gara guztiok".

Aurretik, antolatzaileek plazako lurrean kartulina koloretsuak jarri zituzten, ondoren, herritarrek bertaratutakoan, bakoitza bere lekuan errazago kokatzeko.

Juanjo Altunaren logotipoa

Juanjo Altunak Berdegaren-

dako egin zuen logotipoa tamaina handian irudikatu zuten San Martin plazan bertaratutakoek.

Antolatzaileak pozik

Mireia Lizarralde Bergara Zero Zaborreko kideak deialdiaren balorazio positiboa nabarmendu zuen ekitaldiaren ostean: "Oso pozik gaude, jendearen jarrera oso ona izan da, aktibo egon dira eta benetan pozik gaude irten denarekin".

ZIORTZA MARZAN
BERGARA



"Atez atekoari nire babesa emateko etorri naiz. Osasun arloan egiten dut lan eta argi dago errauskailuak osasunean kaltea dakarrela".

ROBERTO MARTINEZ
BERGARA



"Berdegaren manifestua aurkeztu zenean mezuarekin bat egin nuen eta gaurko ekitaldira horrek animatuta etorri naiz eta horregatik hartu dut parte".

MIREIA ALBERDI
BERGARA



"Birziklapenari eta atez atekoari babesa emateko etorri naiz. Baliabideak mugatuak dira eta dena erretzen badugu, zer utziko diegu ondorengoei?"

Jaengo kartzelara 62 lagun joan ziren

Debagoienetik 62 lagun joan ziren zapatuan Jaengo kartzelara, Jesus Mari Zabarte eta Xabin Usandizaga presoek elkartasuna erakustera. Guardia Zibilaren bi kontrol pasa zituzten. Arrasateko Udalak onartutako mozioa gutun gisa entregatu zuten sarreran, eta Oñatiko Udalak faxez bidali zuen bertara.



HERRIRA

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua

IBILGAILUA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMANGO DIZUGU:
- LANTOKIRA
- ETXeko ATARIRA
AIREPORTUKO ZERBITZU EZIN HOBEA.
IBILGAILU-FLOTA ZABALA.

AUTOAK, EGUNEKO, **19,95** €TIK AURRERA.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 71 66 52 / 619 44 71 75

info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com



Iaz 2.560 laguni eman zion jaten Elikagaien Bankuak

Bergarako ordezkariak, halaber, 180.000 kilo janari banatu zituen

L. KORTABARRIA/Z.V.D.M. | BERGARA
Debagoieneko eta beste eskualde batzuetako 33 erakunde edo elkar-terren bidez, 2.560 laguni jaten ematen die Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren Bergarako ordezkariak. Hala, 2012an, ohiko bideetatik 97.575 kilo janari jaso zituztela eman dute aditzera, eta Azken Minutuaren bidez, berriz, 100.000 pasa. Orotara, 181.538 kilo jaki banatu zituen Bergarako ordezkariak.

Bigarren urteurrena
Zifra horien berri eman du Bergarako Elikagaien Bankuak egunotan. Hain zuzen, apirilean beteko ditu bi urte. Hori dela eta, hitzaldi sorta bat antolatu dute arduradunek.

Helburua da euren lana eza-gutzera ematea eta, bide batez, zerbitzatzin duen eremuan (Debagoiena, Debabarrena, Urola-Kosta/Iraurgi, Urola Garaia eta Goierri) ematen dituen zerbitzuen

ganean herritarrei informazioa zabaltzea.

Bi gai nagusi landuko dituzte hitzaldiotan: Zero xahubidea, Azken Minutua eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuko eta Europar Batasuneko oinarriko elikagaien banaketa.

Hiru hitzaldi
Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran duen ordezkariaren ganean jendea informatu asmoz,



Boluntarioak lanean. | L.K.

Anton Mendizabal Cristobal boluntarioak eskainiko ditu hitzaldiak.

Hiru izango dira, orotara. Ikasleendako berbaldia bihar, martitzena, eskainiko dute, Miguel Altuna institutuan. Etzi, berriz,

Ipintzan, Aranzadin eta Gureak tailerretan eskainiko dituzte.

Baina ikasleentzako bakarrak ez, publiko orokorrari zuzenduta ere hitzaldia egingo du Mendizabalek egunean 18:30ean, Miguel Altuna institutuan.

Bidaiarien Garraioaren hitzarmen duina izatearen alde

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE
UGT, LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta, Bidaiarien Garraioaren Gipuzkoako hitzarmen duina lortzearen aldeko agerraldia egin zuten egunean Arrasaten. Azken hamabost egunetan egindako bosgarren elka-

rretaratzea izan zen Garibaiko autobus geltokian egin zutena.

Soldaten jaitsieren kontra
German Setien LABeko garraio arduradunak hauxe adierazi zuen agerraldian: "Negoziaketekin hasi ginen, eta gure eskaera lan erre-



Arrasaten martxoaren 14an eginiko agerraldia. | ANE ETXEBERRIA

formak eraginik ez izatea eta soldaten jaitsiera ez gertatzea izan da. Patronalarekin bildu ginen, baina mahaia blokeatuta geratu zen". Patronalak azken egunetan hainbat mugimendu egin ditu, baina oraindik ez dira akordioa iritsi.

"Kontua da uztailaren 7aren aurretik hitzarmenak sinatzen ez badira, bertan behera geldituko direla, horrek dakarren gutziarekin". Hala eman zuten aditzera Setienek.

ALDEDI

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

Edurene Pujana | Setem-Hego Haizea GKEko kidea

"Norberaren diruarekin gauza onak egin daitezkeela erakusten dugu"

- ▶ 'Con tu dinero' dokumentala erakusten dihardu Setem-Hego Haizeak
- ▶ Emanaldia antolatzeko lanetan dabilta Oñatiko Fiare taldearekin

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Setem-Hego Haizea erakundea hizpide da, izan ere, *Con tu dinero* izeneko dokumentala ematen dabil Euskal Herri osoan. Elkarteko Edurene Pujanaren esanetan, urte bukaerara arte jarraituko dute emanaldiak antolatzen, orain arte arrakasta polita izan du-eta.

Con tu dinero dokumentalaren emanaldiak dituzue antolatuta apiril bukaerara arte, ezta?

Bai. Urte osoan emanaldiak egin nahi dugu, nahiko arrakastatsua izan delako orain arte. Datozen hilabeteen ere egingo ditugu emanaldiak Euskal Herri osoan.

Zergatik uste duzue izan duela hainbeste arrakasta dokumental horrek, zer dio?

Lehenengo zatian, hainbat banketxe arruntek egiten dituzten praktika txarrak salatzen ditugu; eta, bigarren zatian, finantza etikoetan estatuan eta Euskadi mailan dauden alternatibak erakusten ditugu. Jendeak badu gogo horrelako alternatibak zeintzuk diren jakiteko.

Kanpaina horren barruan, hitzaldiak egiten dituzue. Zer esaten dizue jendeak?

Oso pozik hartzen du eta galdera piloa egiten dituzte emanaldiak eta gero. Internetetik deskargatu daiteke dokumentala, baina jendeak elkarrizketak izan nahi ditu, Fiare alternatibako pertsonak ikusi eta bertako gauzak entzun. Jendeak galdera asko ditu eta erantzunak behar ditu.

Zein da, labur esanda, dokumentalaren mezua?

Finantzaren arloan aukerak badaudela, benetako alternatibak badaudela, eta norberaren diruarekin gauza onak egin daitezkeela. Bankuek ez digute esaten zer egiten



Edurene Pujana, Arrasaten. | ENKO AZKARATE

"Benetako datuak ematen ditugu, eta jendeak kasu egiten dio gure mezuari"

duren gure diruarekin, baina, finantza etikoen bidez, proiektu sozial eta gizarte polita lor dezakegun ikusten da.

Debagoienean ere egon zarete.

Bai. Oñatiko Fiare taldearekin zehazten gabiltza ea noiz eman dezakegun han dokumentala. Gure webgunean (www.setem.org/euskadi/) eta Facebook-ean (www.facebook.com/SetemHegoHaizea) data zehatzak ipiniko ditugu, baina urte osoan egongo dira emanaldiak, eta Debagoienean ere bai.

Setem-Hego Haizea asko agertu da komunikabideetan, kanpaina

"Jendeak galdera asko ditu, eta erantzunak behar ditu"

horren arrakastaren eskutik. Baina zuek 20 urte baino gehiagoko historia duzue. Asko aldatu da Setem-Hego Haizea hasieratik hona?

Ez da asko aldatu. Estatu mailan Setem dago, elkarte moduan, eta Euskadin, Setem-Hego Haizea. Ikusten dugu jendea gure mezua entzuten dabilela; gure kanpainen oso ikerketa sakonak egiten ditugu eta, ematen ditugun datuak zehatzak eta benetakoak direnez, jendeak ikusten du gure elkarte benetakoa dela, kontsumo arduratsuen ingurukoa dela gure mezua eta aukera badau-

kagula gauzak aldatzeko.

Hegoaldeko herrialdeetako erakundeekin elkarlanean ibili zarete gehien, orain arte. Krisiaren eraginez, hori aldatu egin da?

Sentsibilizazioa hemen egin behar da, baina lankidetzaren arloan badiugu proiektuak; Latinoamerikan, bereziki. Egia da krisia gizartearen nahiko sakon jotzen dabilela, eta are gehiago elkarlanean; Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan, murrizketak gure elkartera ere badatoz, baina saiatzen gara harreman hori ez galtzen.

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua bultzatzea da zuen beste lan-lerro bat. Nola bultzatzen duzue kontsumo arduratsua?

Gure eguneroko gauza guztietan zenbat gauza aldatu ditzakegun erakusten dugu: Arropa Garbia kanpaina dugu, erakusteko ze egoeratan egiten duten lan gure arropak ekoizteko; Asian eta Latinoamerikan, emakumeek hainbat eta hainbat ordu egiten dute lan, gure arropa oso merke egoteko. Bidezko merkataritza da gure beste kanpaina bat. Hemen ez dauzkagun produktuak beste herrialde batzuetatik atera bai, baina euren eskubideak defendatuz atera ditzagun. Hala, kafea eta txokolata bidezko merkataritzaren parte egiten ditugu.

Umeekin eta nerabeekin ere egin dituzue kanpaina horiek. Nola ikusten dituzue belaunaldi berriak?

Nahiko polita da ume eta nerabeekin lan egitea. Sentsibilizazio arloan hitzaldiak eta tailerrak egiten ditugu. Ikasgeletan ikuspuntu desberdinak topatzen ditugu. Telebistatik eta Internetetik informazio asko jasotzen dute, eta mundua nola dagoen antolatuta eta sistema horietarako dauden alternatibak erakustea polita da.

Urtero, formazio saioak antolatzen dituzue. Aurtengoan, marrazketa ikastaro bat ere badago.

Hiru formazio atal ditugu. Orain aterako dugu marrazketa ikastaroa Internetez, eta Facebook-en hiru txantilo sartu ditugu, marrazkiaren erdiarekin, eta beste erdia librea da. Ikastaroko matrikula doan izatea emango dugu sari moduan, parte-hartzea saritzeko.

Onartu egin da Eroskiko bazkideen soldata murrizketa

Eroskiko bazkideen soldatak, batez beste, %5 txikitzea onartu egin zuen joan den martitzenean Errektore Kontseiluak. 8.800 bazkideei eragingo die murrizketak, eta %2,5 eta %7,5 gutxiago artean kobratuko dute, gaur egungo soldataren arabera murrizketarekin. 2013-2016 eperako Plan Estrategikoaren barruan onartu da neurri hori.

Eroskiren Caprabo katean, batez besteko %10eko murrizketa onartu da.

Eskatu daiteke 2012ko ekitaldiko zerga informazioa

Joan den eguna ezker eska daiteke dagoeneko 2012ko ekitaldiko zerga informazioa. Bi modutan egin daiteke hori: Foru Ogasunaren Internet bidezko zerbitzu eta tramianteen atarian sartuta, Gipuzkoataria delakoan; eta, telefonoz edo Internetez, postaz bidal dezaten eskatuz. Argibideetarako, joan www2.gipuzkoa.net webgunera edo deitu 902 10 00 40 telefono zenbakira.

Iaz baino %8,5 diru gehiago dago kultura diru-laguntzetarako

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak 2.004.013 euro ipiniko ditu kultura sustatzeko eta ondarea kudeatzeko diru-laguntzetarako. Deialdi guztiei eutsi ez ezik, %8,5 handitu ditu diru-laguntzak, "kulturaren arlo gehienak" garatuko direla "ziurtatzeko", Aldundiaren esanetan. Diru-laguntzok lehiaketa bidez banatuko dira. Eguaztenean argitaratu ziren deialdiak aldizkari ofizialean.

Etxe-kaleratzeen legea aldatu egingo duela agindu du Espainiako Gobernuak

Kontsumitzaileen eskubideak babesik gabe daudela esan du Europako Justizia Epaitegiak

L.K. | ARRASATE

Europako Justizia Epaitegiak joan den eguaztenean emandako epaiak erreakzio handia piztu du, izan ere, epai horren arabera, Espainiako etxe-kaleratzeen legeak Europako legedia urratu egiten du. Epaitegi horretako epaileen iritziz, Espainian kaleratzeak eta gero kaltetuek duten babesa "ez da nahikoa", izan ere, etxebizitza

berdin-berdin galtzen da. "Nahikoa da profesionalek hipoteka-exekuzio prozedura hastea kontsumitzaileak Europako zuzentarauak eman nahi dien babesik gabe uzteko", esan dute epaileek. Gaineratu dutenez, Espainiako epaileek ezin dute kaleratze-prozedura bat gerarazi, eta aukera bakarra kaleratzea egin eta gero beste epaiketa bat hastea da.



Eguenean elkarretaratzea egin zuen Stop Kaleratzeak plataformak. | A.M.E.

Oraindik ez da guztiz argitu Luxemburgoko epaitegi horren epaiak ze ondorio zehatz izango dituen, baina Espainiako Kaleratze-Legea Europako epaitegira eroan duen epaileak, Jose Maria Fernandez Sejjok, egubakoitzean

esan zuenez, egun horretan bertan eta aurrerantzean gerarazi ahal izango zirela etxe-kaleratzeak, kontsumitzaileen eskubideak kolokan daudela demostratzen bazen. Beraz, Espainiako epailek ofizioz ekin ahal izango dutela

ondorioztatu zuen Fernandez Sejjok.

Justizia ministroak, Alberto Ruiz Gallardonek ere aintzat hartu du Europako epaia, eta legea aldatu egingo duela agindu du. Soraya Saenz de Santamariak, presidenteordeak, egubakoitzean prentsaurrean esan zuenez, gutxienez hiru aldiz ordaintzeari utzi beharko dio norberak kaleratze-prozedura hasi ahal izateko.

"Kasuak ugaritu egin dira"

Debagoieneko Stop Kaleratzeak plataforma sinadurak biltzen izan zen eguenean Seber Altube plazan. Kreditua amaitzen ari zaiuz lelopean batu zituzten sinadurak. Sinadura bilketa hori aprobetxatuta, elkarretaratzea egin zuten, izan ere "kasuak dezente ugartu" direla eta "kasu konplikatuak" direla esan zuten.

Ane Altuna | Ikerlaneko ingeniari kimikoa

"Alzheimerra sendatzeko lagungarriak izan daitezkeen orratzak asmatu ditugu Ikerlanen"

- ▶ Neuronengana heltzeko orratz mikroskopiko tolesgarriak patentatu ditu Ane Altunak
- ▶ Ikerlanen sortu dituzte, bost urteko ikerketaren ostean, beste zentro batzuekin batera

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Ikerlanen dihardu Ane Altunak (Arrasate, 30 urte) lanean. Inge-niari kimikoa da eta doktoratu berria da. Burmuinean sendagaiak emateko garatu duen polimeroz-ko orratz mikroskopiko batzuen inguruan egin du ikerketa lana. Harekin izan gara aurkikuntza horren eta gero eta ohikoagoak diren buruko gaitz endekapenez-koen gainean berba egiteko.

Zela sortu zaizu ikerketa honetan parte hartzeko aukera?

Inge-niari kimikoa naiz eta, orain doktoratu naiz, Ikerlanen egin dudana doktore tesi honekin. Zortzi urte daroztat Ikerlanen eta orain heldu zait ikerketa hau egiteko aukera.

Burmuinari sendagaiak ematen dizkion txipa da sortu duzuen, ezta?

Bai, polimeroz eginda dauden orratz mikroskopikoak dira. Orratz oso-oso txikiak; hortaz, zerebro edo burmuineko gaitz asko saihesten lagun dezakete-nak.

Polimerozkoak direla diozu.

Bai, hala da, eta hor dago berri-tasunetako bat, orratz hauen dohainetako bat. Izan ere, malguak dira, tolesgarriak, eta horrek ematen dio bio-bateragarritasuna. Horrek bereizten ditu beste orratz mikroskopiko batzuetatik.

Halakorik ez dago gaur egun, hortaz?

Ez. Gaur egun erabiltzen direnak siliziozkoak dira eta Iparramer-rikarren esku dago horien merkatua. Beste hauek irekitzen dute beste bide bat, beste aukera bat.

Azalduko diguzu zelako orratzak diren?

Esan dudana moduan, tolesga-riak edo malguak dira, besteen aurrean; bestalde, elektrodo batzuk ditu txertatuta eta elektrodo hauek ez daude putzu moduko batean hondoratuta, baizik eta azalean daude, neu-ronetatik gertu-gertu. Modu horretan, erraz ukitzen ditu neuronak, eta, orratzen bidez ematen dizkiegun elektrodoekin, neuronen jarduera erraz neur dezakegu. Neuronarengandik horren gertu egonda, neuronen erantzuna ere berehala eta hobeto neur daiteke.

Beste berezigarriak badute, ordea, botikak ere eman ditzaketelako, ezta?

Bai; bestalde, kanal mikroskopi-ko batzuk ere txertatu dizkiogu. Elektrodoekin batera, botikak isurtzen duten kanalak ere gehi-tu dizkiegu orratz horiei. Hortaz,



Ane Altuna, Ikerlaneko Arrasateko zentroan. | ENEKO AZKARATE

elektrodoak bai, baina sendagaiak ere eman ahal dizkiegu neuronei, ikusteko zein den erreakzioa. Horrek bihurtzen ditu orratzak funtzio askotariko: estimulatze-ko eta dispentsatzeko gauza dira.

Alzheimerra eta parkinsona sendatzeko bidean lagungarri izan daitezke?

"Burmuineko gaitz asko saihesten lagun dezakete orratz hauek"

"Polimerozkoak eta malguak dira; horrek ematen dio bio-bateragarritasuna"

Bai; merkatuan ez dago halakorik gaur egun, eta honek bihurtzen ditu orratz hauek gaixotasun neurologikoendako erreminta erakargarri. Denok dakigun moduan, alzheimerra eta parkin-sona gaitz ezezagunak dira oraindik, baina geroago eta ohikoagoak dira gure artean. Epe luzeko ikerketa aurreikusten da, zerebroa oraindik ere oso ezezaguna dela-ko.

Nori zuzenduta daude txip bidezko orratz mikroskopiko berezi hauek?

Neurozientzialariei. Oraindik ez dira pertsonekin frogatu eta ikerketarako erreminta moduan ulertu behar ditugu. Halere, komertzializatze-ko puntuan gaude orain. Horretarako, merkatua ezagutu, aztertu eta identifikatu eta inbertsioa egingo dutenak topatzea falta zaigu.

Non dago merkatua?

Mundu mailan, Europan eta Europatik kanpo ere bai. Hemen

bertan sortutako berritasun bat da, baina gure mugak gainditzen ditu. Izan ere, ez dago munduan era honetako beste orratzik aipatu ditudan bi gaitasun hauek dituztenak, dena bateratuta, eskala mikroskopikoan. Zerebroari ahalik eta min txikiena egitea eta neuronak ez akabatzea

"Ikerketarako erreminta moduan ulertu behar ditugu orratzok"

"Gaixotasunak sendatzen lagundu dutela jakiteak asko poztuko ninduen"

ahalbidetzen dute orratz hauek.

Ikerlanen sortua da, baina beste erakunde batzuekin elkarlanean?

Berez, hemen, Ikerlanen, garatua da nire doktore tesi moduan, nire zuzendari eta tutorearen laguntzarekin. Baina ikerketan parte hartu dute beste bi erakunde hauek ere: Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseiluak (CSIC) eta Zaragozako Unibertsitateko Aragoiko Inge-niari-tza Ikerketa Institutuak. Izan ere, pentsatu genuen neurologian izan zezakeela aplikazioa, eta horregatik jarri ginen harremanetan CSIC Espainiako erakunde publikoarekin. Erakunde horretako Liset Menendez de la Prida neurologoak esan zigun zer nahi zuen, orratzak zelakoak behar ziren... Nire tutorea, bestalde, Luis Fernandez izan da, Zaragozako unibertsitateko inge-niaria. Bi horien laguntza ezinbestekoa da ailegatu garen tokira ailegatzeko.

Esan genezake, hala ere, zeu zarela orratz hauen ama?

Bai, egia esan, hala da. Azkene-ko bost urteotan orratz hauekin ibili naiz. Baina esan behar da, era berean, talde lana ere izan dela eta nire lankideen laguntza ezinbestekoa izan dela.

Zientzialariek frogatu dituzte orratzok?

Liset Menendez de la Pridak berak frogatu ditu, baina orain, beste neurologo batzuek frogatu dituztela nahi dugu, eta indarra hartzea ikerketak; hau da, benetako orratzak direla frogatzea, erabilgarriak eta gaixotasunak saihesten laguntzeko tresnak direla ikusteko. Eta, azken helburua, jakina, saltzea da. Patentatuta daude.

Zela komertzializatzen duzue?

Ikerlanen badugu mikrosistemen departamentu bat, eta haiek egingo dituzte orratzak, gero, komertzializatze-ko. Hala ere, azken bide hau jorratzeko dago: merkatua aztertu, bezero posibleengana hurbildu, saltzeko moduak iker-tu...

Nor egon daiteke orratzok erosteko gertu?

Neurozientzialariak, ikerketan aritzen direnak. Aplikazio asko izan ditzakete, inplanteetarako -eta izan zitezkeen; azkenean, neurozientziara bideratu ditugu.

Zure ametsa da, azkenean, gailu hauek benetan pertsonekin, pazien-teekin, erabiltzea?

Orratzek gaixotasunak sendatzen lagundu dutela jakiteak asko poztuko ninduen, jakina.

ZABALIK

IGOR ARENAZA
http://goiena.net/iritzia/



Ametsak... eskertzen

Badaude munduan euren ametsak errealitate bihurtu dituzten hamaika erakunde zein pertsona; nik une hone-tan ezagunak diren batzuk eskertu nahi ditut.

Hasteko, 2012a kooperatiben urtea izan genuen, eta zein toki egokiagoa gure bailara baino, On Jose Maria Arizmendi-errietak izan zuen ametsa burutzeko. Esker mila, elkarlana eta formakuntza hain era sinesgarrian ekartzearen; hark esango zukeen moduan, "inoiz ez gara zeruan iratzarriko, bertara nola heldu garen galdetuaz".

Joan den astean, Martxoaren 8an, Emakumeen Eguna ospatu genuen. Mila esker, amets horretan jarraitzen duzuenok, berdintasuna eta indarra ateratzearren.

Bat pasatu, bestea korrika dator, badator. Eskerrik asko, AEKri, Euskal Herri guztia batzearren eta euskara bultzatzearen.

Dabilena eta iraungo duena Erreala da, bigarren mailako infernua eta lege konkurtsala atzean aurki utzita. Esker anitz, filosofia finko eta harrobiko lanak Gipuzkoari ematen dion nor-tasunagatik.

Hugo Chavez zendu zaigu. Etengabe sortzaileak izan behar dugu, teoria aurkitu behar dugu, ez dago iraultzarik teoria iraultzailerik gabe", zioen. Agur eta ohore, komandantea.

Azken biak, *Informe Robinson*-en agertuko bi debagoiendarri.

Bata, Alberto Iñurrategi, bidean makina bat oztopo izan arren bere kirolean munduko onena izatera heldu delako. Esker mila, zure hobetze etengabea erakustearren.

Bestea, Markel Irizar, minbizia menperatuta elitean dagoe-lako. Eskerrik asko, *Jervas*, bihotzez, irakatsi didazun guztiagatik. Egia bihurturiko ametsak bertakoak ditugu.

Nire aitaita Isidro esango lukeen bezala, "bixer beti gaur da". Has gaitezen, bederen, hemendik, oraintxe bertan gure ametsak egia bihurtzen.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Europatik esan beharra ere...

Kaleratzen legea aldatu egingo duela iragarri du Espainiak. Orain esan du hori. Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak horretara behartu eta gero. "Europako araudien kontraktotzat jo" dutelako, hain zuzen. Ez jendeak etxe barik geratu eta gero ere hipoteka ordaintzen jarraitu behar izan duelako. Ezta egoerarekin desperatuta batek baino gehiagok bere buruaz beste egin duelako ere.

Eta bitartean, Palmako dukea lapurretan, PP lapurretan, Miguel Sanz eta Yolanda Barcina lapurretan... Askok izan eta gehiago nahi, eta horrekin ere nahikoa ez, antza: jendea, erakundeak, herriak zuzentzeko *ausardia* izan, gainera. Arreglatuta gaude.

KALE INKESTA

Zer da zuretzat Korrika?



MIREN
ZUZABEITIA
ARETXABALETA

Zer den niretzat Korrika? Euskara bizi izateko aukera bat, eta jendea horretaz akordatu dadin. Gainera, dagoeneko, ia ez da praktikatzen.



IÑAKI
GURRUTXAGA
ESKORIATZA

Korrika oso inportantea da, euskararen aldekoa delako. Inplikatu egiten da herri osoa eta hor ikusten da urteroko balorazioa.



IKER
ETXABE
ARRASATE

Korrika niretako zer den? Bada, Korrika euskararen aldeko ekintza on bat da. Horixe da niretzako duen esanahia.



JOSE MARI
CASTELLANO
ARRASATE

Korrika euskararen aldeko ekimen bat da, eta herriarena da. Egia esateko, ez dakit beste modu batera nola azaldu.

HANDIK ETA HEMENDIK

Etsaitzat dute

Leire Narbaiza Arizmendi
http://eibar.org/blogak/leire/

Ez dut ulertzen euskalkia zergatik ikusten dute askok oztopo! Iban Arantzabalengo blogeko post hau *Tokiagoak beharko dugu izan, sustraituagoak* irakurtzen niharduela, erantzuna lagatzea erabaki dut. Ibanek eta biok ikuspegi antzekoa dugu –ez bada bera– euskalkiari dagokionez, erraza egiten zait berari oharrak uztea, agian, soka berekoak garelako, baliteke. [...]

Betikoa, ez dut ulertzen zergatik askok duten euskalkia etsaitzat! Sarasolak aitutzen du mendebaldeko euskaraz egindako edozer, okerra dela batuaren izenean eta batasunaren aitzakian. Hala ere, berak irrati (semi) nazionalen pontifikatzen duenean, gipuzkeraz dihardu bestean euskalkieriaz! To! Gora ekidistantzia, gora batua, gora gu eta gutarrak!

Horrelakoak esaten dituztenean, mespretxatu egiten gaituzte, euren hitzak eta ekintzak bat ez etorritak, –eta gutxiespen tonu horretan–, min handia egiten digute. Niri bai, behintzat, nagusikeria

adierazten duelako. Beraiena delako batua, noranahikoa, zentroa. Gurea da galdu behar dena, oztopo eta kalte baino ez dena. Ez du ulertzen jarrera hori, guretako euskalkia iturria delako, sena, batuaz egiten laguntzen diguna, erreferentea. Lehen ere esanda nago hori berori!

Batua maite dut, ikaragarri, berba eta esamolde asko eman baitizkit, hizkuntza lotu eta kohesionatu duelako; eta era berean, hegoak eman dizkiolako. Nola adieraziko nuke nahi dudana guztia, gura dudana eran, zabal eta nasai baturik ez banu? Zer irakatsiko nieke hainbat herritako ikasleei? Zelan irakurriko nuke Euskal Herri osorako prentsa, irratia entzun, beste euskaldunei aditu?

Baina, era berean, gureari asko gura diot, maitasuna eta goxotasuna ematen dizkidalako, barruan dudana ume horrekin konektatzen naudelako, nire alde intimoarekin, nire idiolektoa delako, azken baten! Euskalkian sentitu eta pentsatzen dudalako!

Hain gaitza egiten zaie ulertzea? Zergatik nahi gaituzte baztertuta eta eta ezdeustatuta? Hain kaltegarriak gara euskararendako? Ez dut deus konprenitzen!

Patxi

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Txikiteroek beren basoerrietan eta elkarren arteko ziritetan jarria dute arreta. Halako batean, *habemus papam!* (Aita Santua *daukagu!*) oihua entzun da. Bezeroek, buruak telebistarantz jiraturik, *habemus papam!* esan dute, beren taldeak gol eder bat sartu berri balu bezalako euforia batez. Txikiteroetako batek, ordea, *habetis papam!* (aita santua daukazu!) bota die erretxin. Xabierren egon zen jesuitetarako ikasten. Orditik, fedea galdu du, baina latina ez. Beste txikiteroek ez diote, ordea, esan nahi ziena ulertu, eta, gogo bero, aita santu berriak izentzat Frantzisko hautatu izanaz hasi dira. Jesuita izanda, ez litzatekeela harriztekoa Xabierreko Frantzisko izatea buruan. *Habetis papam!* esan duenari Frantzisko izenaren euskal hipokoristiko batzuk etortzen hasi zaizkio burura (Patxo, Pantxot, Patziku, Praisku...), eta Aita Santu berria agertu denean pantailan, Euskaltelen iragarkiko oihua atera zaiou: Patxi!!!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Martxoan, eskaintza berezia sukaldeko altzarietan

Zerbitzu osoa

**%20ko
beherapena**
material laminatu eta
estratifikatuetan



www.kibuc.com jarrai gaitzazu  

KIBUC Gure Ametsa

gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel. 943 15 16 81

KIBUC
Azkenean gure etxean

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Jesus San Vicente Bengoa | Elizateetako ordezkaria Eskoriatzan (1983-1987)

- ▶ Sasoi hartan Elizateetako elkarte osatu eta bi zinegotzi irten ziren Udalean
- ▶ 80ko hamarkadako elizateak aktiboagoak zirela uste du eskoriatzarrak
- ▶ Mankomunitateak Apotzagagan egin gura zuen zabortegearen plana gelditu zuten

"Garai hartan sentimendu garrantzitsua loratu zen zazpi elizateen artean: elkartasuna"

ZURIÑE V.D.M. | ESKORIATZA

Politikarako senak baino gehiago, elizateekiko sentimenduak eraman zuen Jesus San Vicente 80ko hamarkadan Eskoriatzako Udaleko kide izatera. Apotzagako agintaldi batez ordezkatu zituen herriko zazpi elizateak eta gogotsu egin zuen lan haien egoera hobetzeko asmoz.

Zerk bultzatu zintuen agintaldi bat politikan ematera?

Kontua da lehenagotik (zinegotzi izan aurretik) bazegoela Eskoriatzako elizateen mugimendu bat. Mugimendu hark zera aldarrikatzen zuen: erabakiak hartzen ziren tokian (udallexean) elizateetako kideek bertan egon behar zutela.

Bestela esanda, beharrezkoa ikusten zela Udalaren erabakietan parte hartzea. Mugimendu hura pixkanaka gorpuzten hasi zen Mankomunitateak Eskoriatzako Udalarekin batera etxeko zaborren kudeaketaren inguruan erabaki bat hartu zuenean. Hartutako erabaki hura hauxe zen: aurrez Apotzagako elizateen zegoen zabortege bat aprobetxatuz, bertara Mankomunitateko zaborrak ekartzea.

Horren aurrean, elizate guztietako auzotarrok elkartu eta elizateetako elkarte bat sortu genuen. Bertatik bi zinegotzi irten ginen. Beraz, esan daiteke aipatutako horrek guztiak eragin zuela zinegotzi gisa aritu izana. **Lan ugari egin zenuten, gainera; nola oroitzen duzu agintaldia?**

Maila pertsonalean oso aberasgarri izan zen sentsazioa dut, nahiz eta bizia eta tirabiratsua izan. Lan handiko garaiak izan ziren. Egiteko asko zegoen!



Jesus San Vicente, atzean Apotzagako hilerria duela. | Z.V.D.M.

Ez da berdina izango elizate bateko alkatea izatea edo Udaleko zinegotzi gisa jardutea, ezta?

Ez, noski. Ez da berdina zazpi elizateen hitza Udalera eramatea

"Maila pertsonalean oso esperientzia aberasgarria izan zela uste dut"

"Zailagoa da tamaina handiko talde bat ordezkatzeko"

edo elizate bakar baten ardurak kudeatzea. Zailagoa izaten da tamaina handiagoko talde bat ordezkatzeko talde txikiago bat gestionatzea baino, ezta?

Azken finean, bolumen handiagoko kontuak esku artean dauzkagunean, prozesuek luzeago irauten dute. Erronkek dimentsio handiagoa hartzen dute.

Nolakoak ziren garai haietako elizateak? Egungoen oso ezberdinak zirela esango zenuke?

Alde batetik, esango nuke aktiboagoak zirela elizateak garai haietan. Beti gauzak egiteko gogoz eta prest azaltzen ginen auzotarrok. Auzo-lanak benetako indarra zuen, eta, nolabait, esango nuke garai haietan egindako lan handiagatik dugula gaur egun daukagun azpiegitura eta egoera

ona. Alde horretatik, beraz, ondo ikusten ditut auzoak.

Baina, esan bezala, sentimendu edo *gar* aldetik egungo garaiak ez dira horren indartsuak. Apa-

"Auzoak gaur egun sentimendu aldetik ez dira horren indartsuak"

"Egun edozein proposamen eduki ezkerro Udalari parte eman behar diozu"

tikoago gaudela esango nuke, inizatiba barik. Eta nire aburuz, honen arrazoi bat da edozein ideia, ekintza, eskaera edo hobetze proposamen edukiz gero, Udalari parte eman behar diozula, eta ederki asko justifikatu behar duzula, gainera.

Eta Eskoriatza nola oroitzen duzu 80ko hamarkada hartan?

Ba, ez dakit zer esan. Sasoi hartarako nahiko herri lasaia zen sentsazioa daukat. Hori bai, apur bat berdeagoa bazela esango nuke!

Zer-nolako proiektuak garatu zintuzten garai hartan?

Proiektu dezente gauzatu ziren garai haietan, batez ere azpiegiturarekin lotuak. Esaterako, zazpi elizateetako baserri-bide gehienak hormigoitu ziren, etxe batzuetako ur arazoak konpondu ziren, auzo batzuetan kaleko argiak jarri ziren eta, noski, zabortegearen plana albo batera geratzea lortu genuen... Bai, lan handia egin genuen!

Edozelan ere, azpimarratzea gustatuko litzaidake gauza fisiko horiek baino garrantzitsuagoa izan zen sentimendua loratu zela zazpi elizateen artean: elkartasuna, hain zuzen ere. Eta horregatik, egun, elizateetako bi zinegotzik tokia dute Udalean. Beraz, nire ustez, proiektu edo lorpen arrakastatsuen izan zen hura, hasiera batean aldarrikatzen genuena eskuratu baikenuen elkartasun horrekin (Udalean elizateek tokia izatea).

Eskatzu gero, errepikatuko al zenuke esperientzia?

Pozik nago egin genuen lanarekin, baina orain ez nintzateke berriz saltsa horretan sartuko.

KORRIKA 18

GOIENA TELEBISTA I KORRIKA SAIO BEREZIAK

MARTXOAK 21, 20:15 / 22:43 | MARTXOAK 22, 20:50 / 23:00 | MARTXOAK 23, 10:00 / 22:00 | MARTXOAK 24, 15:00 / 20:00

BABESLEA: EMUN KOOP.



HERRIAK

ELGETA

Herritarren parte-hartze ezarekin kezkatuta daude gaztetxean

- ▶ Asanbladak jakinarazi du azkenaldi honetan gauza ez doala ondo; ez dela sostengatzen
- ▶ Apirilerako hausnarketa prozesua iragarri dute, eta herritarren inplikazioa eskatu dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Iragarri bezala, Gazte Asanbladakoek lanean eman dute gaztetxearen urteurrena. Aurten ez dute ez kontzerturik ez afaririk antolatu, eta, horren ordez, gaztetxearen teilatua, biltegia, bulegoa eta abar txukuntzen eman dute urteurrena. Ospakizunetarako baino lanerako behar handiagoa ikusi dutela azaldu dute Asanbladatik; baina zer esan nahi du horrek? Zer dago erabaki horren atzean?

Asanbladan kezkatuta daude, eta onartu dute gauza ez doala ondo. Jakinarazi dutenez, azkenaldian jendeak geroz eta parte-hartze txikiagoa du gaztetxean, eta Inauteriak erabakigarriak izan ziren. "Ez zen egon inor", esan dute Asanbladatik. "Aspalditik ditugu arazoak jendearengana heltzeko, baina azkenaldian ekintza ludikoetan ere —kontzertuak, bazkari-afariak...— beherakada nabaria izan da", adierazi du Janire Lazkanok.

Lanerako gogorik ez zaiela falta adierazi dute, baina azkenaldian egun klabeetan ere ez dutela herritarrengandik lehen besteko erantzunik jasotzen jakinarazi dute. "Ez dakigu zergatik izan den aldaketa hori. Gure helburua ez da dirua ateratzea, baizik eta gastuak kubritzea, eta denbora bat bagoaz horretara ere ia heltzen ez garena", gehitu du Nagore Moralesek.

Hala, apirilean hausnarketa prozesua zabaltzea erabaki dute Asanbladako kideek. "Gauzak nondik nora bideratu pentsatu behar dugu. Gizartea aldatu egin da, akaso, eta errealitate berri horretara egokitu beharko dugu gaztetxea ere", esan dute.

Hausnarketa apirilean

Apirilerako aurreikusten dute hausnarketa prozesua, eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango dela azpimarratu dute. Horregatik, dei berezia egin dute: "Jendeak gaztetxea erabiltzea nahi dugu, eta jakin nahi dugu ze erabilera eman nahi dion herriak gaztetxeari", azaldu dute. Gaztetxea bizirik mantentzea da gaur egungo Asanbladako kideen nahia, eta horretarako prest



Azken hilabeteotan Asanbladakoek denbora dezente eman dute gaztetxea txukuntzen. | ELGETAKO GAZTETXEA



Iaz berreskuratu zuen Asanbladak herriko neska-mutikoekin egiten zen Umeen Eguna. | ELGETAKO GAZTETXEA

agertu dira estatutuak eta gaur egungo dinamika berrikusteko. "Akaso, irtengo da gaztetxeak herriko elkarte ezberdinen elkar-gune izan behar duela, edo jendeak dantza entseguak egiteko erabili nahi duela, edo pintura

tailerrak egiteko... nork daki!", esan dute. "Herrira zabalduko dugu galdera eta nahi dugu herriak parte-hartzea; berriz definituko dugu gaztetxeari ze erabilera eman". Eta Asanbladatik argi eta garbi esan dute:

"Dinamika normal baten barruan funtzionatzen jarraitzen dugu, baina orain gauden moduan hau ez da sostengatzen. Posible izaten jarraitzeko herritarren parte-hartzea eta inplikazioa beharrezkoak dira, hori da-eta gure

autogestioaren motorra", esan dute.

Hala, herritar guztiei dei egin diete Asanbladan zabaltzeko den eta herritarrengana ere zabaltzeko duten hausnarketa prozesuan parte hartzeko.

Maputxeen alde lanean

Preso politiko maputxeen aldeko kanpainarekin bat egin du aurten gaztetxeak, eta buru-belarri dihardute horretan. Zapatuan egin zuten antolatutako sari banaketaren zozketa. Hemen saritutako zenbakiak: 753, 349, 214, 129, 905, 517, 088, eta 804.

Horrekin lotuta, maiatzaren 11rako egun osoko egitaraua iragarri dute, hitzaldiak eta kontzertuak tarteko. Preso politikoekin senitartekoei sostengu ekonomikoa bidaltzea da helburua.

Hurrengo hitzorduak

Arazoak arazo, Asanbladak finkatuta dauzka urteko lan-lerro nagusiak, eta ekintza horiekin aurrera egiteko asmoa dute. Apirilaren 6rako, esaterako, kontzertua iragarri dute gaztetxean. Azken orduko aldaketarik ez bada, Penadas por la Ley, Apurtu eta Tony Metrala y los Antibalas taldeak izango dira gaztetxean.

Asentzio eguna maiatzean, Umeen Eguna ekainaren 15ean eta herriko jaietako ohiko hitzorduak ere mantendu egingo ditu gaztetxeak Asanbladak.



Arrasateko erraldoi eta kiliek eta herriko musikariek ere ez zuten Korrikaren asteburuan huts egin. | IMANOL GALLEGO

**MIKEL IZURRATEGI**
OÑATZ DANTZA TALDEA

"Azkeneko sei urtetan moduan, aurten ere, Korrika batzordean gustura jardun dugu herriko beste kultura elkarteekin elkarlanean. Kilometroaren zozketan, zortea izan dugu, Olakuatik Bidaurretara eramango dugu-eta lekukoa".

**NEREA HERNANDEZ**
ESKORIATZA

"Korrika egiteko energiak beharko ditugunez, bazkaria antolatzea bururatu zitzaigun. Gero poteoa egingo dugu: Korrika euskararen festa denez, guk festa giroan hartu nahi dugu. Korrika egin ostean gosaria ere izango dugu".



Salmenta Aretxabaletan. | I. SORIANO



Bazkaria Eskoriatzan. | IMANOL SORIANO



Arrasateko dantzari gazteak Sagar Dantza egiten. | IMANOL SORIANO



Bertsu bazkaria egin zuten Gatzagan, umore onean. | ANDER LARRAÑAGA



Triki-txarangak girotu zuen goiza Oñatin. | IMANOL SORIANO

**CARLOS GARCIA**
ARRASATE

"Euskararen alde egiten den guztia ongi dago, eta gauza gehiago egin beharko lirake. Gainera, Korrika 18 gure bailararik pasatzeko gutxi falta denez, honelako ekintzek jendea korrika egitera animatzen dute".

DEBAGOIENA

Asteburuan inplikatu den jende guztia Korrika egitera deitu dute

Eguraldia patal samarra zen arren, jende ugari parte hartu zuen herriz herri Korrika jaialditxoetan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Korrikari ongietorri asteburuak ekintza mordoxka eta kale-animazioa ekarri ditu Debagoienara. Egubakoitzean hasi ziren ongietorri ekintzak, Eskoriatzako flash-mob batekin eta Aretxabaletako jaialditxoarekin, eta zapatuan jarraitu zuten. Herri guztietan ere, jendeak primeran erantzun zuen eta jendetza polita batu zen Korrikaren ekintzetarako, nahiz

eta eguraldia ez izan bereziki ona; tarteka, euria ere egin zuen.

Ikastetxeen ardura

Oñatin, eurtik babesteko, udaltxeko arkupean egin zituzten ekintzak. Aurten, herriko ikastetxeek hartu dute Korrikaren salmenta postuaren ardura. Elkar Heziko Andoni Salamero han zegoen, eta honakoa esan zigun:

"Hatsa eta hitza eta hotsa ahots bihurtzea nahi badugu, egin dezagun bihotzez", eta bere egin zituen Etxepareren hitzak, esanez horrela bihurtuko zaiola euskarari "behar duen tornua".

Oñatz taldearen ikurrin dantza izan zen une politenetako bat. Eta triki-txarangakoekin, dantza egiteko gonbidapena jendearendako izan zen. Korrika-bazkaria ere egin zuten 50 bat lagunek.

Bazkariak beste bi herritan

Dantzarien emanaldiak ez dira hain ohikoak Korrikako ekitaldietan, baina Arrasaten ere ikusi ziren, Seber Altube plazan. Base-ritarren azokak Korrika hartu zuen zapatuan gaitzat, eta Korrikaren inguruko produktuak izan ziren salgai -petoak izan dira aurtengo izarra-, eta Giokelak okela pintxoak saldu zituen, bertan erretako saihezik eginak.

Bazkaritara batu ziren ere, Korrikaren berora, Eskoriatzako gazteak eta Leintz Gatzagako gazte, ume, heldu eta nagusiak; azken horiek Soran etxera joan ziren, umore bikainean, Julio Soto eta Arkaitz Estiballes bertolariekin.

Ekintza herrikoiez gain, kultura emanaldiak ere izan dira.

Korrika batzordeko kideek badituzte gustura egoteko moduko arrazoiak, eta eguaztanean, Korrika txikian eta, eguen goizaldean, Korrikan parte hartzera deitu dituzte euskaltzale guztiak.

Informazio gehiago:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



BERGARA

Euskal eta saharar kulturen arteko senidetzea Bergaran

Saharako emakumeak diruz laguntzeko jaialdi goxoa izan zen frontoian

A. ARANBURUZABALA | BERGARA


Saharako emakumeei elkartasuna adierazi eta Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa aldarrikatzeko proposamena egin zuen Bubisher elkarteak Bergarako frontoian, zapatuan.

Bergararrez gainera, gertu bizi diren saharar asko han ziren, horietako asko emakumeak, euren bizipenak bertatik bertara azaldu eta euskaldunengandik jasotzen duten elkartasuna eskertzeko asmoarekin.

Kontakizun gordina eta erreala

Haurrentzako jolasak izan ziren jaialdia hasteko, baita horrelakotan ohikoa den tea hartzeko eta hennazko tatuaiak egiteko haima ere. Bibi Andueza, Bubisher elkarteko kidea, eta Yamila Dambar saharar aktibista igo ziren taularen gainera gero. Marokoko polizia orain bi urte erail eta oraindik desagertuta dagoen anaiaren istorio gordina eta erreala kontatu zuen Dambarrek; desagerpenak familian izan duen eraginaz jardun zuen, eta, malkoak ezin utsita, besteak beste, aitaren heriotzaz ere. Mezu zuzen eta gogorak bete-betean ukitu zituen frontoian zeuden guztiak.

Bestelako kolorea hartu zuen, baina, jaialdiak, Zestoako Leok'k musika taldearekin, jarraian; dantzan jarri zituzten bertaratuak, horien artean saharar emakumeak. Zestoarrek bi zatitan banatu zuten emanaldia: taldearen *Une bat* diskoan batutako Sahararen aldeko aldarrikapen kantuekin hasi ziren eta euskaraz kantutako abesti anglosaxoi ezagunak jo zituzten gero, Eric Clapton eta Bob Dylan-enak, besteak beste.




YAMILA DAMBAR
SAHARAKO AKTIBISTA

"Etengabe ditut kanpamentuetan bizi diren emakumeak gogoan. Mesedez beraietaz hitz egiteko eskatzen digute atzerrian gauden emakumeoi, eta horretan ari naiz. Askok gaixo daude. Han edo hemen egon, eurekin izango naute beti".



LUALI CHEJAMMED
SAHARARRA

"Biziki eskertzen dugu horrelako ekitaldiek gure auzia azalertzeko ematen diguten aukera; era berean, emakumeentzako batu den diruagatik ere, eskerrik asko! Egoera larrian daude lurralde okupatuan zein kanpamentuetan".



GOTZON LIZASO
LEOK'K MUSIKA TALDEKO

"Saemel deritzon proiektua sortu genuen desertuan bizi eta lan handia egiten duten emakumeen omenez. Horretarako atera genuen *Une bat* diskoa orain gutxi. Egiten ditugun kontzertu guztietan batutakoa beraietzako da".



MIREN ARANA
BERGARA

"Garrantzitsua da horrelako ekitaldietan parte hartzea, kanpotik datozenen integrazioa bermatzeko, batetik, eta, era berean, bertakook beste kulturez jabetu eta zuzeneko informazioa jasotzeko bidea ematen dutelako".



Saharako eta euskal emakumeak hennazko tatuaiak egiten. | IMANOL SORIANO

ARETXABAETA

Goroetako Santiago elizako erretaularen eta eskulturaren gainean sakondu zuten zapatuan

A.A. | ARETXABAETA

Gehienbat Aretxabaletatik eta Arrasatetik hurbildutako hamar bat bisitari batu ziren zapatuan Goroetako Santiago elizan Inaziotar Lurraldea egitasmoaren barruan proposatutako *Ezku-tuko altxorak* programako bisita gidatua.

Ordu bete pasa iraun zuen hitzorduan, Arantza Otadui

Arrasateko historialariak gidatuta, Santiagoren erretaula eta eskulturen gaineko zehaztasunak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. Horrez gainera, Otadui, bibliografia lagun, Donejakue bidearen Gipuzkoako zatiaren gaineko kontuak ere kontatu zituzten. Goiz pasa polita eta emankorra bada, Goroetan, zapatuan.



Bisitariak, Goroetako erretaularen gaineko azalpenak jasotzen. | ANA HERIZ



Bergarako Laino Skate parkean bigarren eskuko azoka egin zuten zapatuan. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Mauka ederrak izan ziren Laino skate parkeko bigarren eskuko azokan

Guztia saldu ez zuten arren, antolatzaileak gustura, izan zuten harrerarekin

A.A. | BERGARA

Mauka ederrak izan ziren zapatuan, Bergarako Laino Skate parkean egin zuten bigarren eskuko azokan. Askotariko gauzak ziren saltoki mahaietan: musika tresnak, neoprenoak, trajeak, kaskoak, arropak, margolanak eta liburuak. Denak

prezio ezin hobean erosteko aukera paregabea izan zen.

Guztia saldu ez zuten arren, antolatzaileak gustura ziren estreinakoz egin zuten azokarekin.

Udara begira, bigarrena

Etxeko trastelekua husteko helburuaz bururatu zitzaizen Laino-

koei lagun arteko azoka antolatzea orain bi aste; uste baino oihartzun zabalagoa izan zuten, baina, proposamenak, Gasteiztik ere hurbildu ziren-eta saltzaileak, horien artean, artisaubat.

Udara begira beste bat antolatzeko asmoa azaldu dute bergarrek.

Arrazakeria eta xenofobia salatzekeo eguna eguenean

- ▶ Elkarheztzen elkarteak sentsibilizazio tailerrak ematen ditu eskoletan
- ▶ Ekin elkartearen harrera zerbitzuak zortzi urte bete ditu aurten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguen honetan, hilak 21, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Eguna ospatuko da nazioartean. Arrasaten elkarte bat baino gehiago dago etorkin-ekin lan egiten duena. Horietako bat da Elkarheztzen: Jose Luis Iñarra kaleko 30. zenbakian dute egoitza eta elkartearen helburu nagusia da Debagoienean sentsibilizazio eta kontzientziario lana egitea, iparraldearen eta hegoaldearen artean ematen diren ezberdintasunen eta egoera injustuen aurrean kontzientzia pizteko: "Hiritarren partaidetza piztea dugu helburu; gizartean hobekuntzak sustatu eta norbanako ohitura zein jarreretan aldaketak bultzatu nahi ditugu, jarrera solidarioak sustatuz", adierazi du Elkarheztzen elkarteak Maitane Igartuak.

Krisi garaian, arrazakeriak gora Arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko mekanismoen artean hezkuntza eta sentsibilizazioa aipatu ditu Igartuak: "Kultura ezberdinen arteko lankidetzak bultzatu eta aurreiritziak apurtzeko tailerrak ematen ditugu ikastetxeetan. Helduendako eta talde ezberdinendako ere egiten



Pascal izeneko senegaldarra Arizmendi ikastolan tailerra ematen ikasleen aurrean. | ELKARHEZTZEN

ditugu tailer horiek. Antolatutako edozein ikastarotan funtsezkoa iruditzen zaigu gai hori jorratzea. Horrez gain, bizi dugun murrizketa, eskubide sozialen galera eta bizi-baldintzen hondatzeari aurre egiteko herriko talde eta eragile ezberdinetan parte hartzen dugu, eta arazoei aurre egiteko lantaldeak sustatu".

Izan ere, krisi garaian arrazakeriak eta xenofobiak goranzko joera hartu ohi du, Elkarhe-

zitzen elkarteak kidearen arabera: "Langabeziaren errua ez da etorkinena; euren doko gizarte zerbitzuak murriztuz ez dira gureak salbatuko".

Elkarlana, ezinbesteko

Elkarheztzen-ek beste elkarte batzuekin egiten du lan; elkarlana ezinbestekoa da euren doko. Horietako bat da, adibidez, Harresiak Apurtuz Euskal Herriko etorkinen laguntzarako gobernu-

kanpoko erakundearen koordinakundea. Bertako kide eta arrazakeria, xenofobia eta migrazio kontuetan aditua den Trinidad Vicentek helduei zuzendutako ikastaroak ematen ditu eta eza-guna da Elkarheztzen elkarte-koendako: "Gai horien gaineko edozein zalantza, arazo edo erronka badugu, euren gana jotzen dugu", dio Igartuak. Sos Arrazakeria da beste elkarte bat: "Martxoan izaten den arrazake-

riaren eta xenofobiaren aurkako martxan parte hartzen dugu." Atzo egin zen martxa, Donostian. Era berean, Aretxabaletako eta Arrasateko emakume etorkin talde batek sustatutako *Hemen* aldizkarian ere kolaboratzen dute. Gurean bizi diren etorkinen kezkek eta ideiak ezagutarazi eta zerbitzu zein ekintzen berri ematen du aldizkariak eta tresna eraginkorra da euren doko.

Ekin elkartearen harrera plana

Ekin emakumeak elkarte ere ezin aipatu gabe utzi. Harrera zerbitzua eskaintzen dute Udalarekin elkarlanean eta dagoeneko bete dira zortzi urte zerbitzu hori eskaintzen dutenetik. Hala, dagoeneko erreferente bihurtu da Ekin etorkinendako, Arrasaten zein bailara osoan: "Arrasateko etorkinen %80 pasa dira gure elkartetik, gutxienez. Saretoxa egitea lortu genuen eta orain sarea handitzen doa", adierazi zion Tamara Perezek.

Etorkinei dagokienez, gehienak Espainiatik kanpo datozenak dira: 2012an gehienak Pakistan, Kolonia, Sahara eta Nigeriatik etorri ziren. Bestalde, Udalak adierazpen instituzionala aterako du asteon.



ARRASATE PRESS



JOKIN BEREZIARTUA

Biteri plaza, aparkalekutik 'Gasolinera'-ra

Urte gutxian Arrasatek nolako aldaketa jasan duen adierazle da Biteri plaza. Goiko argazkia 1980ko hamarkadan ateratakoa da, Udal Artxiboaren arabera. Lehen aparkalekuak nagusi ziren lekuan, egun *Gasolinera* moduan ezaguna den eraikina dago; beheko argazkiak erakusten duenez, oinezkoendako pasabidea da egun.

Korrikaren 18. edizioa hilaren 21ean goizaldeko bostak aldera helduko da, Zigorrola auzotik


Korrika 18 eguenean, hilak 21, helduko da Arrasatera. AEK-k egin dituen aurreikuspenen arabera, goizaldeko bostak aldera iritsiko da. Etzi, bestalde, Korrika Txikia egingo dute, ikastetxeek antolatuta: 15:00etan ibilbidea egingo dute *tronkomobilarekin* eta gero, 16:00etan, txokolate-jana egingo dute. Amaitzeko, karaokea eta jolasak izango dira Txatxilipurdiren eskutik.

Alderdi sozialistak kaleen garbiketarako ordenantza martxan jar dezala eskatu dio Udalari

PSE-EEK uste du Arrasateko kaleen egoera "tamalgarría" dela, eta, horregatik, kaleen garbiketarako ordenantza martxan jar dezala eskatu dio Udalari: "Arrasate izango da kale garbiketa publikorako ordenantzarik ez duen herri bakarra", adierazi du Aritz Arrieta bozeramaileak prentsa ohar bidez. Kaleak zikintzen dituztenendako isunak jartzea ere proposatzen dute sozialistek, "inoizko Arrasaterik zikinena" denari konponbidea emateko.

'Herrixa dantzan' dantzaldi irekiaren beste saio bat egingo dute egubakoitzean Garaia gunean (20:00)

Portalo elkarrekin antolatzen duen *Herrixa dantzan* ekimenaren beste saio bat gidatuko du hilaren 22an Patxi Monterok. Gidatutako dantzaldi irekia da *Herrixa dantzan*, Euskal Herriko eta Europako beste eskualde batzuetako dantza tradizional ludikoe-kin osatutakoa: sokan, korroan, taldeka, bikotean... Helburua da adin askotariko herritar soilek dantzan elkarrekin gozatzeko. Garaia guneko jatetxean izango da saioa, 20:00etan hasita.



Aurreko jardunaldietan taularatutako atzezanetako bat. | GOIENA

Ikasleak antzerkira hurbiltzeko jardunaldiak Amaia Antzokian

Antzerki jardunaldiak LH eta DBHko gazteei zuzenduta daude

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Herriko gazteek Azken urteetan moduan, antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzeko asmoz, herriko ikastetxeekin batera 23. Eskola-antzerkiaren Jardunaldiak antolatatu ditu Udaleko Hezkuntza sailak. Ikasleak antzerki munduak dituen ezaugarriak bertatik bertara ezaugatzeko ekimen ezberdinak antolatatu dituzte.

Arizmendi ikastolako Gaztelupe eta Almen gunetako eta Arrasate institutuko lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzendutako programa da. Ekimen honen bitartez antzerkiak jorratzen dituen arlo ezberdinak ezaugu ahal izateko. Ekitaldi programa luzearen barruan ere, ikasleek prestatutako antzezanak taularatutako dituzte Amaia Antzokiaren oholta gainean.

Ikasleek protagonismoa

Esan moduan, Amaia antzokia goitiki behera ikusi ostean eta denbora luzez ikasgelatan hainbat antzezan prestatu eta gero, egindako lana erakusteko unea iritsiko da. Antzerkiarekin zuzeneko kontaktu horren aurretik eszenatokiko argi eta neurriekin ohitzen joateko ikasleek bi entsegu egingo dituzte.

Martitzena izango da hitzordua: egun dezentetan antzerkiaren mundua ezagutzen ibili ondoren, estreinaldi batek dituen gorabeherak, urduritasun uneak eta azken orduko presak zuzenean igarriko dituzte. LHko 4., 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek ez dute ikuslego erraza izango, eszenatokiaren aurrealdean guraso eta beste ikasle batzuek izango dituztelako.

Hala ere, entsegu askoren ostean guztia primeran irtingo zaie aktore gazte horiei.

Profesionalak ere bai

Jardunaldiei amaiera emateko, antzerki talde profesionalak antzerki emanaldiak egingo dituzte. Ikastetxe guztietako ikasleek, adinaren arabera, antzerki bakarra ikusiko dute.

Honela, LHko 1., 2. eta 3. mailakoek Gorakadaren *Munduari itzulua* ikusiko dute apirilaren 13an. LHko 4., 5. eta 6. mailakoek Dar-Dar produktzioaren *Eta zer? II* antzezanaz gozatuko dute. Azken egunean nagusien txanda izango da, kasu honetan DBHko 1. eta 2. mailak Paraiso Antzerki taldearen *Nire odisea* izango da ikusiko duten obra. Ziur guztiek antzerki munduaz asko ikasten dutela.

Etxeko txikiek igeri egiten ikasteko edo hobetzeko ikastaro sorta berria

Ikastaroak egun ezberdinetan emango dira eta haurren mailaren arabera izango dira

I.G. | ARRASATE

Igerileku kanpainara begira, Aukeak igeriketa ikastaro berriak antolatatu ditu. Taldeak ez dira adinaren arabera antolatuko; aldiz, maila hartuko da kontuan. Ikasle berriek proba txiki bat pasa beharko dute zein taldeetan sartzen diren jakiteko. Hastapeneko taldea, Olagarroak izenekoa, berria eta berezia izango da. Gai nontzeko taldeetan gertatzen ez

den moduan, lehen fase honetan gehienez ere 8 haur egongo dira ikastaro bakoitzean. Aurrerago ko mailatan: Karramarro, Igel, Amuarrain, Izurde eta Marrazoen kasuan ikasle gehiago egon daitezke. Dena den, guztietan tokia dago.

Eskolak 45 minutukoak izango dira eta bertan parte hartzeko haurrek gutxienez 4 urte eduki beharko dituzte. Bazkideek hilean

20,60 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek berriz 10 euro gehiago.

4 urtetik beherakoentzat

Ikastaro hauek bereziak dira, hastapenera zuzenduta daude eta bertan 4 urtetik beherakoek soilik hartzen dute parte, betiere guraso baten laguntzarekin. Bertan parte hartzeko, umetxoak gutxienez 6 hilabete eduki behar ditu eta, besteetan gertatzen ez den bezala, hauetan taldeak adinaren arabera antolatuta daude. Ikastaro hauek zapatu goizetan emango dira eta bazkideentzat hileko 15,25eko kostua izango dute eta bazkide ez direnek 25,25 euro ordaindu beharko dute.

Interesa dutenek, gogoratu kiroldegian bulego orduetan informazio gehiago jasotzeko aukera izango dutela.

Aste honetan, Kooltur hitzordu bikoitza Arrasateko gaztetxean

I.G. | ARRASATE

Aste honetakoa Kooltur emanaldi berezia izango da, eguneko ohiko hitzorduaz gain, egubakoitzean bigarren saio bat izango da-eta. Lehen saioa, beti moduan, egunean izango da eta Moby Dick bakarlari bizkaitararen txanda izango da. Euskal Herriko txoko askotan eman ditu kontzertuak Getxoko Moby Dick bakarlariak eta jende askok goraiatzeko bere zuzeneko indartsuak.

Abestiek duten intentsitatea eta bere ahotsak duen izaera kontuan hartuz, bakarlari bezala mugak gainditu dituela esan daiteke. Gainera, bere konposizioez gain, oso abesti anitzak abestiak ere bertsionatzen ditu: Mikel Laboa, Kyuss... Bakarlariek soilik lortzen dituzten une hunkigarriak sortuko ditu. Bere kontzertuetan erakusten duen

aldakortasunaz gozatzeko parada ezin hobea izango da eguen gauekoa.

Esne beltza eta Lurra

Egubakoitza gau handia izango da gaztetxean, azken urteetan arrakasta handiena lortu duen euskal taldeak hartuko baitu gaztetxe oholta. Arrasateko kontzertu berezia izango da, izan ere, Freedom 3 Kolpetan biraren azken kontzertuetako bat izango da. Laster, taldeak geldione bat egingo du disko berria prestatzeko eta kide batzuek Fermin Muguruzaren biran parte hartuko dutelako.

Gaua borobiltzeko, oholta gainean Lurra, Iñigo Muguruza (Kortatu, Negu Gorriak...) musikariaren azken proiektuaren laguntza izango dute. Ziur egubakoitzeko gau zirraragarria izango dela.



Esne beltza taldea. | HOTSAK.COM

Apirilaren 15ean hasiko da Gazte bulegoak eta TTakunek antolatu duten txalaparta ikastaroa

Ttakun txalaparta taldeak txalaparta ikastaroa emango du. Apirilaren 15ean hasi eta maiatzaren 13ean bukatuko da. Eskolak astelehenetan izango dira, 18:30etik 20:30era Zerrajerako erlojuaren eraikinean. Interesa dutenek gazte bulegotik pasa edo 943 25 20 65 zenbakira deitu beharko dute. Ikastaroak 25 euroko kostua duen arren, langabe eta ikasleek 15 euro ordainduko dituzte.

Zabarte preso arrasatearraren askatasuna eskatzeko bigarren elkarretaratzea asteazkenean

Aurreko zapatuan Oñatiko delegazioarekin batera Arrastekoak Jaenera egindako martxaren ostean, eguaztenean, hilak 20, elkarretaratzea egingo da Herriko plazan, 19:00etan. Ekitaldian, Herrirak deituta, Espainiako Auzitegi Gorenaren 197/2006 doktrina salatuko dute, eta Jesus Mari Zabarte *Garratz* preso arrasatearraren askatasuna aldarrikatzeko ere erabiliko dute eguaztenteko hitzordua.

Udaleku irekietarako begirale zerrenda osatzeko hezitzaile bila hasi da Txatxilipurdi elkarte

Txatxilipurdik begirale zerrenda "luze" bat egin nahi du udaleku irekietarako. Izena emateko azken eguna da maiatzaren 10a eta hezitzaile izan nahi dutenek hiru baldintza bete beharko dituzte: 18 urte edo gehiago izatea, euskara jakitea eta ekainaren 8rako antolatu duten formazio saiora joatea –egun osoko saioa izango da. Argibide gehiagorako deitu 943 29 54 46 telefonora eta Mirari edo Arantzagatik galdetu.



Gure Ametsa elkartearen jendez bete zen 40. urteurrena ospatzeko. | IMANOL GALLEGU.

40 urte San Antonio eta bertakoak dinamizatzen

Canalejas tabernako hegazkina berriztu eta elkarteko sabaian jarri dute

IMANOL GALLEGU | BERGARA

40 urte ez dira egunero betetzen eta Gure Ametsak elkarteak, beti egin duen moduan, atek zabaldu dizkio San Antonio auzo guztiari. Data garrantzitsu hau ospatzeko, auzoari buruzko argazki zaharren erakusketa antolatu dute. Bertan ageri dira elkarteak antolatutako zenbait ekintza. Kontuan hartzekoa da, gainon-

tzeko elkarte gastronomikoekin gertatzen den moduan, Gure Ametsa ere horrela jaio zela, baina Serafin Esnaola apaizak, zenbait kideren laguntzarekin, danborrada, Napar feria... antolatu zituzten. Urteen poderioz, hitzordu horiek auzoko ohituren parte bihurtu dira.

Hango kultura batzordeko Patxi Uribesalgoren hitzetan,

"elkarte bat ez litzateke aflatzeko toki bat bakarrik izan beharko", eta Gure Ametsaren kasuan, 40 urtetako ibilbide honetan behin eta berriro erakutsi duten zerbaite da hori.

Canalejaseko hegazkina

1931. urtean Taapken diseinatzaile alemanak eraikitako Junkers hegazkina urteetan Canalejas taberna desagertuaren sabaian egon zen. Orain, berriz, Eugenio Perez, Roman Gonzalez eta Agustin Diezek egindako berritze lanen ostean, elkarteko sabaian egongo da, auzotar ugariaren gazte denborak gogora ekarriz.

Elkartean ere, hegazkin bera agertzen den Simon Arrietaren koadro baten kopia ere jarri dute.



Berritu ostean elkartean jarri duten Junkers hegazkina. | I.G.

Itziar Ibarzabal eta Lucia Farrás | San Antonioko auzotarrak

"Auzoan beste elkarte bat egon arren, hau izan da beti festaren muina"

Biei Gure Ametsa Elkarteko atek zeharkatzeak oroitzen on ugari ekartzen dizkie burura

I.G. | BERGARA

Gutxi izango dira San Antonio auzoa Itziar Ibarzabal eta Lucia Farrásen bano hobeto ezagutuko dutenak. Bertan jaio ziren biak eta orain ere auzoan jarraitzen dute. Euren bizitokia gustuko dute eta azken urteetan dezente aldatu dela igarri arren, harro sentitzen dira sanantoniarrak izateagatik.

San Antonioko auzoarekin zerkusi handia duten oroitzen asko batzen ditu elkarte honek, ezta?

Itziar Ibarzabal: Askok eta politik, gainera. Gizona hasieratik kide zenez, elkartearekin harreman handia eduki dut.

Lucia Farrás: Uff, oroitzen asko, bai! Nire gizona lehen kidea izan zen eta, alargundu ostean, suhiak hartu du bere tokia. Oraindik une asko pasatzen ditugu hemen.

Gure Ametsak, kideentzat ez ezik, auzoarentzat antolatzen zituen festak.

I.A.1: Hala zen, bai. Danborrada, feria... gauza asko antolatzen ziren hemen.

L.F.: San Antonio auzoan beti izan gara festen aldekoak eta

elkarte honetan gauza asko antolatu dira beti.

Elkarteak, auzo bezala, asko aldatu da?

I.A.: Ez pentsa, auzo gehiago aldatu da. Gure Ametsak bere horretan jarraitzen du. Orain ere oso gizon atseginak daude, baina lehengoek beste xarma bat zuten.

L.C.: Auzoak ez da asko aldatu baina jende berri ugari etorri da. Hemen bizi eta jaio garenetatik zaharretako bat naiz eta orain ez dut jende asko ezagutzen. Elkarteak, berriz, bere horretan jarraitzen du; kide asko aldatu arren, beti moduan segitzen du. Auzoan beste elkarte bat egon arren, hau izan da beti festaren muina.

Zenbat oroitzen dituen agertzen da Canalejas hegazkina?

I.A.: Hegazkina ez zuten egunero pizten, hitzordu berezietan soilik. Orain martxan ikusteak asko alaitu nau.

L.F.: Taberna oso ezaguna zen. Bertako Felisa nire lagun handia zen eta taberna ongi ezagutzen nuen. Hegazkina berriz martxan ikustean oroitzen asko etorri zaizkit burura.



Lucia Farrás eta Itziar Ibarzabal, argazki erakusketan. | I.G.

Elosuarrek lehen aldiz Korrika batzordea antolatu dute

60 auzotar inguruk jarri du dirua Elosuatik pasatzen den kilometroa erosteko

I.G. | BERGARA

Korrikak beti sortzen du zirra berezi bat, baina 18. Korrika berezia izango da elosuarrentzat. Ainhoa Beristain, Elosuako Korrika batzordekidearen hitzetan, "uste dut Korrika 18 izango dela Elosuatik pasatzen den lehen Korrika eta horrek animatu egin gaitu". Nabaritzen da, bai, Korrikaren alde lan egiteko grina. Korrikaren antolakuntzatik deia jaso zutenetik lan asko egin dute. Auzo alkatetako jaso zuen deia eta bereha-



Korrika 17 Bergarako kaleetan. | GOIENA

la auzo guztia martxan zegoen. Batzorde kideak, auzotarrak... Elosuar guztiak Korrika jasotzeko irrikaz dute.

Martxoaren 20ko gaua iritsi aurretik, baina, lan dezente egin dute komisiokoek. "Behin hemendik pasatu eta, aukera ez galtzeko, kilometro bat erostea premiazkoa zen". Horretarako bertso afaria antolatu zuten. Xepela eta Beñat Lizasoren kantek 30 pertsona batu zituzten arren, 60 auzotarren diruarekin erosi zuten kilometroa; izan ere, "ez dugu inor kanpoan utzi nahi izan". Auzotarrek Korrikari harrera egin aurretik, afaria izango dute Elurmendi elkartean. Gainera, traktore eta erremolke bana ere eramango dute: "Kilometroa aldapan gora denez, laguntza apartekoa beharko dugu". Dena

den, ez dute laguntza handirik beharko, izan ere, normalean Bergaran edo Azkoitian Korrika egiten duten elosuarrek aurtan auzora igoko dira. Beristainek argi dauka "gaueko hamabiak baino lehenxeago bertan egongo" direla, "korrika gogoz egiteko asmoarekin".

Bergara Korrikaren zain

Korrikari ongi etorria egiteko martxoaren 20ko arratsaldean, Korrika Txikia antolatu dute Bergarako kaleetan zehar. 15:20ean San Martin Eskola paretik irtengo dira etxeko txikiak; ondoren, 17:00etan, txokolatada izango dute San Martin plazan. Nagusiagoek, Korrika 18 noiz etorriko den itxaroten duten bitartean, energia biltzeko, gaztetxean afari-merienda izango dute.



Barrakak, iaz, Pazkoetan. | GOIENA

Abian Pazkoetako irudia aukeratzeko lehiaketa

Herri Mugimendua, bestalde, Jaixetako II. Korto Lehiaketa deitu du, iazkoari jarraipena emanda

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Pazkoak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak. Lehiaketan edozein pertsona har dezake parte eta lanak kultura etxean aurkeztu beharko dira, apirilaren 16ko 13:00ak aurretik. Kartelek 24x34 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta formatu bertikala. Papean inprimatuta eta kartoizko

oinarri baten gainean aurkeztu beharko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala CD informatiko batean ere aurkeztu beharko da. Teknikari dagokionez, berriz, librea erabili ahal izango da, baina kartelek ondorengo testua izan beharko dute, nahitaez: **Pentekoste jaiak 2013 Bergara.**

Lehiaketara aurkeztutako lanek originalak izan beharko dute, egi-

leak berak sortuak, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean aurkeztu gabeak. Udalak plagioa egon den zantzurik ikusten badu, sortutako kalteen aurrean kalte-ordainak eskatu ahal izango dizkio egileari.

400 euroko saria

Lehiaketako irabazleak 400 euro eskuratuko ditu. Dena den, saria

Abian jaietako film laburren lehiaketa

Herri Mugimendua ere lanean hasita dago txosnaguneko egitaraua prestatzen. Zeregin horretan, kaleratu dituzte dagoeneko Jaietako II. Korto Lehiaketaren baldintzak. Gaiari dagokionez, librea izango da, baina luzeraren kasuan, gehienez 10 minutu izan beharko ditu. Aurkezteko epea maiatzaren 10ean itxiko dute eta xaxaukonpartsa@gmail.com helbidera bidali edo kultura etxera eraman beharko dira lanak. Irabazleak jaietako domekan, maiatzaren 19an, emango dituzte aditzera. 23:00etan hasita, labor guztiak emango dituzte txosnagunean eta irabazleak ere orduan jasoko du saria. Herri Mugimendutik parte hartzeko dei egiten dute.

eman gabe ere geldi daiteke, epaimahaioek gutxienerako kaliterik ez dagoela uste badute. Bestalde, epaia aditzera ematen den egunean jakinaraziko dute epaimahaia nortzuek osatu duten, eta epaimahaio kideek hartutako erabakia aldaezina izango da.

Udalak egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiakin erakusketa antolatuta ahal izango du. Egingo balitz, saritu gabe gertatutako lanak erakusketaren azken egunetik hasi eta 30 eguneko epean jaso ahal izango dira.

Herriko industria, Udalaren egutegiko gaia

M.B. | BERGARA

2013a hasi berri bada ere, Udala dagoeneko badabil 2014an kaleratuko duen egutegia prestatzen. Hain zuzen ere, egutegia osatuko duten argazkiak aurkezteko epea ireki du.

Udaleko Euskara batzordeak urteak daramatza gure herriari eta tradizioei buruzko argazkiak eta informazioz osatutako egutegia kaleratzen. Gainera, azken urteotan herri-tarren argazkiekin osatu izan da egutegia, eta, aurrean ere, 2014ko egutegiari begira, deialdi irekia egin du.

Irailaren 25era arte

Egutegiari aukeratu duen gaia *Bergarako industria* da: langileak, prozesuak, eraikinak, tresneria... Gaur egungoa edo antzinakoa izan daiteke eta argazkiak aurkezteko epea irailaren 25ean bukatuko da.

Argazkiaren formatuari eta aurkezteko moduari dagokionez, 20x30 zentimetroko tamaina izan behar du; 300 PPP (puntuak pulgadako); eta JPG formatuko artxibo digitala. Lanak CD baten aurkeztu eta Udaleko Euskara Zerbitzura eroan beharko dira.

Euskara batzordeak izendatutako lantalde batek aukeratu ditu argazkiak, eta aukeraturakoak ordaindu egingo dira.

Udalak turismo webgunea eta mugikorrerako aplikazioa ditu

Hilaren 20an aurkeztuko dituzte eta merkatariei gonbidapen berezia egin diete

M.B. | BERGARA

Eguaztenez, hilak 20, *Bergara-turismo.net* webgunea eta *Bergara Turismo* mugikorrerako aplikazio berria aurkeztuko dituzte Udala Gobernu gelan, 10:30ean egingo duten ekitaldian.

Udal arduradunek uste dute komertzioa duten herritarrendako erreminta interesgarriak izan daitezkeela, eta, horregatik, gonbidapen berezia egin nahi diete bertaratzeko eta izan ditzaleten ekarpenak egiteko.

Herria ezagutzera ematea

Udala lanean ari da azken boladan herrira bisitariak erakartzeko eta dagoen eskaintza turistikoko zabalaren barruan Bergararendako gunea egiteko. Bergarak bisitariendako erakarri egiten duten berezko hainbat ezaugarri dauzka: ondarea, kultura, natura... Baina bisitarien



Turismo webgunearen irudia. | GOIENA

esperientzia borobiltzeko, funtsezkoa da Udalarentzat horiek guztiak ezagutzera ematea eta herrian eskaintza sendoarekin indartzea. Hala, Udalak herria

ezagutzera emateko oinarritzko erremintak garatzen dihardu. Oraingoan, turismora zuzendutako webgune berria eta mugikorrerako aplikazioa -Android

Marketen eta Apple Storen doan lor daiteke- garatu ditu, bisitariari gure herriko eskaintza zabalera aurkeztu eta ikusgarriago egiteko.

Parte garrantzitsua

Aplikazioan eta webgunean herriko eskaintza zabalera osatzen duten komertzioen berri ere jaso nahi dute: jatetxeak, tabernak, ostatuak, hotelak, landa-etxeak, kirol taldeak... Izan ere, Bergarak bisitariari eskaintzeko duenaren parte garrantzitsu direla uste du Udalak.

Impresioak partekatzeko

Eguaztenezko batzarrean, sortu berri diren bi erreminta horiek nola funtzionatzen duten azalduko dute eta,aldi berean, komertzioetako ordezkarien iritziz hobe daitezkeenak ere jaso nahiko lituzkete Udaleko arduradunek.

Horrekin batera, Udalak eta herriko eragileek bertoko eskaintza turistikoa elkarrekin garatzeko eta turismoarekin lotuta interesgarritzat jotzen dituzten beste hainbat gai tratatzeko aukera ere izango da.

Egubakoitzean bertso jaialdia egongo da pilotalekuan

M.B. | BERGARA

Egubakoitzean, hilaren 22an, Erramu-zapatu bezperan ohiko bilakatu den bertso jaialdia izango da.

22:30ean izango da, Udala Pilotalekuan, eta izen handiko bost bertsoari hartuko dute parte: Amets Arzallus, Ainhoa Agirreazaldegia, Anjel Mari Peñagarikano, Igor Elortza eta Alaia Martin igoko dira Udala Pilotalekuko taula gainera. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Josu Goikoe-txeak jardungo du. Sarrera 8 euro da.

Erramu-zapatuan egongo den herri bazkariari dagokionez, berriz, txartel gutxi batzuk geratzen dira dagoeneko: Depor, Kortazar, Eusebio, Bulebar eta Ariznoa tabernetan daude salgai, 12 eurotan.

20 eragilek eramango dute lekukoa Oñatin

Udanatik sartuko da Korrika 18 eguenean, 03:33an, eta 16 kilometro egingo ditu Oñatin barrena

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Badator Korrika 18 Oñatira. Eguenean helduko da, Udanatik, eta herria zeharkatu ostean, Arrasateko bidea hartuko du.

Udanatik Elorregira

Eguenean 03:33an helduko da Korrika 18 Udanara, eta hantxe egongo dira futboleko beteranoak lekukoa hartzen, horiek izango dira eta Oñatiko lehen kilometroa eramango dutenak.

Udanatik Elorregira bitartean, 16 kilometro egingo ditu Korrikak eta herriko 20 eragilek eramango dute lekukoa: futboleko beteranoek, Elkar Hezik, San Martingo etxe okupatuak, ezker abertzaleak, Arranak, Antixena gaztetxeak, Oinarrik, Emakume taldeak, Urgain eskolak, herriko musika taldeek, Udalak, Oñatz dantza taldeak, LAB sindikatuak, Txanxiku ikastolak, Makalena, Txanxiku Ikastola berriz, Garay, Txintxurreta, Ulma, Fagor, suhiltzaileak eta Ulma berriz.



Duela bi urteko Korrika Txikian ateratako argazkia. | MIREIA BIKUÑA

Korrika Txikia eguaztenean

Bestalde, eguaztenean, Korrika Txikia egingo dute herriko ikasleek. Haur Hezkuntzakoek bakoitzak bere ikastetxean egingo du, eta hiru ikastetxeetako Lehen Hezkuntzakoek, berriz, txandaka

eramango dute lekukoa Foruen plazatik aterako den ibilbidean zehar. 14:30ean izango da hori eta ondoren, txokolatea banatuko diete Pago Uso eta Makalena elkarteek. Txorimaloak ere egingo dira.

Kirol zerbitzuei buruzko iritzia jakin gura dute

Erabiltzaileen asebetetze maila jakin gura du kirol sailak, eta inkestak egiten ari da

O.E. | OÑATI

Zubikoa kiroldegiko zerbitzuen erabiltzaileen asebetetze maila ezagutu gura du udaleko kirol departamenduak eta hori jakiteko, inkestak ari da egiten.

Helburua da kiroldegiko erabiltzaile kolektibo ezberdinen asebetetze maila baloratu, zerbitzuen hobekuntzarako proposamenak plangintza estrategiko baten barruan jasotzea. Martxoaren 4an hasi ziren inkesta horiek egiten, eta egubakoitza arte, hilaren 22ra arte, egingo dituzte.

Galdetegia

Zerbitzuen araberako galdetegiak daude aukeran. Adibidez, zerbitzu orokorren gaineko galdetegi kiroldegiko harreraren eskuratu daiteke; gimnasia eta fitness zerbitzuen gaineko galderak, monitoreek banatuko dituzte eskaintzen dituzten zerbitzuetan; ur ekintzak eta igeriketa ikastaroak baloratzeko bete beharreko orriak, kiroldegiko ur eremuan daude eskuragarai; kirol instalazioak baloratu gura dituenak, harreraren eskatu behar du galdetegi eta

eskolak eta kirol elkarteei buruzko iritzia eman gura duenak, azkenik, galdetegi indibidualizatua izango du.

Kirol zerbitzuen gaineko iritzia eta proposamenak jasotzeko galdetegiak, kutxa baten ondoan daude, mahai gainean. Kiroldegiko zerbitzu guztietan daude mahaiak jarrita. Erantzunak anonimoak izango dira eta bakoitzak gura duen galdetegi bete ahal du.

Udal zerbitzuen inguruan herritarrek duten iritzia jakiteko asmoz, inkesta egin zuten urtarrietik otsaila bukaera arte. Kultura eta kirol zerbitzuen inguruan ahalik eta datu gehien jasotzeko beste inkesta bat egingo zutela aurreratu zuten orduan.

Igerilekuak itxita

Bestalde, aurren ere igerilekua itxita egongo da Aste Santuko oporren bueltan. Hain zuzen ere, martxoaren 25etik apirilaren 1a arte itxita egongo dira, bi egunak barne. Kiroldegiko gainerako zerbitzuak bestalde, zabalik egongo dira, Aste Santuko jai egunetan izan ezik.

Udalak bueltatu egingo ditu gaztelaraz heltzen diren gutunak

O.E. | OÑATI

Udalak bueltatu egingo ditu gaztelara hutsean jasotako eskutitzak. Autonomia estatutuan jasota dagoen euskararen kooziazintasuna bete dadin eskatzea erabaki du modu horretara, udal gobernuak.

Espainiako gobernu ordezkarietatik gaztelara hutsean iritsi diren eskutitzen harira hartu erabaki hori udal gobernuak. Azken hilabeteetan idatzi eta errekerimendu ugari bidali dizkio Espainiako gobernu ordezkariak Oñatiko udalari, besteak beste, Madrileko gobernuak erabaki dituen murrizke-

ten berri emateko, Espainiako bandera udaletxean jartzeko errekerimendua edota presoen Euskal Herrira ekartzeko eskatzen duen banderola kentzeko agindua. Autonomia estatutuen 6.1 artikulua dio euskarak Euskal Herriaren berezko hizkuntza izanik, hizkuntza ofizialaren maila izango duela Euskal Herrian eta bermatzen du idatzi ofizialak bi hizkuntzatan eskuratzeko eskubidea.

Gaztelera hutsezko gutunak itzuli ez ezik, adierazpen administratibo guztiak euskaraz jaso gura dituela jakinaraziko dio udalak igorleari.

Bizikletak aparkatzeko gune berritua

Berritu egin dute Zubikoa kiroldegi ondoko bizikleten aparkalekua. Lehengo gunea kendu eta haren parean jarri dute bizikletak aparkatzeko gune berria. Zubikoa kiroldegi aurreko eta Osasun zentro inguruko irisgarritasun lanen barruan sartzen da bizikleten aparkaleku berrituaren proiektua ere.



O.E.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga kobratzen hasi da Udala

Zirkulazio zerga moduan ezagutzen dena da trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga. Apirilaren 25ean bukatuko da ordaintzeko borondatezko epea. Ordaintzeta helbideratuta duten ia 6.600 ibilgailuen jabeek jakinerazpena euren aurrezki kutxa edo banketxetik iritsiko zaie. 7.000 ibilgailu baino gehiago daude Oñatiko ibilgailuen erroldan.

Eguenean egingo dute martxoko ipuin kontaketa umeendako

Hileko azken eguna Eguen Santua izanik, astebate aurreratu dute hile honetako Ostegun Kontalariak ekimeneko ipuin kontaketa. Eguenean izango da, 18:00etan. Lur Kortak izango da kontalaria eta berdintasunaren mezua zabalduko duen ipuina kontatuko die 3 eta 6 urteko umeek. Gonbidapenak har daitezke.

Ekofeminismoaz eta ekonomiaz jardungo dute martitzenean

Ekofeminismoa eta emakumearen papera ekonomian izeneko hitzaldia emango dute bihar, martitzena, kultura etxean, 18:30ean. Oñatiko udaleko berdintasun batzordeak antolatuko du hitzaldia. Aurora Iturriotz izango da hizlaria, feminista, Urola Garaiko berdintasun teknikaria eta ekonomian aditua.

Egubakoitza da azken eguna udalekuean izena emateko

Egubakoitza, martxoak 22, da azken eguna aurtengo udal udalekuean izena emateko. 4 eta 10 urteko umeendako udalekuak izango dira eta aurren ere Eteon egingo dituzte. Informazio gehiago behar duenak Txaloka ludotekara jo dezake. Aurren, hirugarren urtez, zaintza zerbitzua egongo da 07:30etik 10:00etara.

Gaztetxean egingo duten bertso afarirako txartelak salgai daude

Bertso afaria egingo dute gaztetxean egubakoitzean. Unai Gaztelumendi, Maider Arregi, Andoni Goitia eta Beñat Iguaran izango dira bertsolariak. Txartelak bost eurotan daude salgai Boga eta Arrano tabernetan. Bestalde, 18:30ean, Andu Lertxundiren *Etxeko hautsa* liburuaz jardungo dute Antixenako irakurle klubean.

ESKORIATZA

Etzi gaztetxoak eta eguenean guztiak irtengo dira korrikan

Korrika Txikia egingo dute eguaztenean: umeek lasterketa, txokolatea eta disko festa izango dituzte

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Asteburuko ekintzen ostean, etzi, eguaztana, itzuliko dira herrira Korrikaren bueltan antolatutako ekimenak. Korrika Txikia egingo dute egun horretan. Arizmendiko eta Luis Ezeizako Haur eta Lehen Hezkuntzakoak irtengo dira korrika egitera. Aurtengo ibilbidean aldaketak daude. 4 eta 5 urtekoak San Pedro eliza ondoan 15:20an hasiko dira; jarraian, 2 eta 3 urtekoak Santa Marinaran elkar-tu, eta plazaraino joango dira. Bestetik, seigarren mailakoak 15:30an herriko zaharren egoitza ondoan hasiko dira, eta,

ohiko bidea jarraituz, beste ikasleak elkartzen joango dira, eta denok plazan bukatu.

Zaharren egoitzakoek, petoak Zaharren egoitzakoek ere parte hartuko dute euskararen aldeko ekimen horretan, azken horiek dagoeneko badabilta-eta Korrika Txikirako petoak eta beste-lakoak prestatzen. Lasterketa amaitzean, buruhandiek korrika egiten jarraitu ahal izango dute neska-mutikoen. 17:15ean, berriz, txokolatea banatuko dute eta arropa salduko dute.

Bestalde, 18:00etatik 20:00etara bitartean disko festa izan-



Flashmob-a grabatu zuten egubakoitzean. | AMAIA TXINTXURRETA

go da plazan, Jon Urbieta disko jartzailearen eskutik. Eguenean, berriz, Korrika 18 helduko da gurera. Goizean goiz pasatuko da herriatik: hain justu ere, 06:26an. Lasterketa amaitzean, txokolatea banatuko dute parte-hartzaile guztien artean.

Herriko hainbat eragile ibili dira elkarlanean, Korrikaren harira, egunotan antolatutako ekintzak gertatzen, hala nola Almen, Jose Arana eta Luis Ezeiza ikastetxeak, guraso elkarteak, Aitzorrotz kultura elkarteak, Einkein eta Udala.

Batzar irekia egingo du Teatro Kanapek etzi

M.B. | ESKORIATZA

Aurrera doa Eskoriatzan sortu berri den Teatro Kanape egitasmoa; antzerkia eta sorkuntza uztartzen dituen topagunea. Esku artean duten proiektuaren berri emateko batzar informatiboa deitu dute etziko, eguaztana, 19:00etan, Ibarraundi museoa.

Proiektua nahiko aurreratu dute, eta maiatzean egingo duten topaketarako eguna eta tokia zehaztu dituzte dagoeneko. Maiatzaren 11n izango da, Ibarraundi museoa eta Zubiarte labea.

Etzi egingo duteen bilkurara joaterik ez baina interesa duena Interneten jar daiteke harremanetan haiekin, teatrokanape@gmail.com helbidera idatzita.

'Wert' legeari buruzko kafe tertulia egingo dute bihar

M.B. | ESKORIATZA

Bihar, martitzena, Luis Ezeizako Koldotxo guraso elkarteak Wert legearen inguruko nondik norakoak eztabaidatzeko kafe tertulia egingo du, 18:00etan, herri eskolan. Tertulia horren helburua da elkar-terko gurasoen artean lege horrek seme-alabengan eta gizartean nola eragiten duen aztertzea, partekatzea eta sentsibilizatzea.

Koldotxotik gogorarazi dute lege horrek ekar ditzakeen ondorioen "larritasuna" ikusirik, hainbat eragilek dagoeneko kontrako manifestu bateratua sinatu dutela, hala nola EHIGE, Ikas-

tolen Elkarteak, Sortzen-Ikasbatuak, Kristau Eskola eta Eliz Barrutiko Ikastetxeak.

Guraso elkarteak honakoak salatu du: "Madrilek hezkuntza sistema gizarteko ezberdintasunak orekatzeko baino gehiago, kostu minimoarekin eliteko ikasleak ateratzeko fabrika bihurtu nahi du. Ikuspegi honen arabera, hezkuntza sistema gastu bat, eta ez inbertsio bat. Horretaz gain, curriculumaren erdia baino gehiago Madrilgo Gobernuaren esku geratzen da, bertan daukagun berezitasunetara egokitzeko baliabideak mugatuz".

Hilaren 24a arte eman daiteke izena Diputazioko udalekuetan

M.B. | ESKORIATZA

Gipuzkoako Diputazioak gertu du Udalekuak 2013 programa, eta dagoeneko eman daiteke izena zozketan parte hartzeko. Hilaren 24a baino lehen apuntatu beharko dute umeek www.gipuzkoagazteria.net/udalekuak webgunean edo herriko kultura etxeko Gazteria Zerbitzuan. Azken horretan honako ordu-tegian eman ahal izango da: martitzenean 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:00etara, eguenean 09:00etatik 16:00etara eta egubakoitzean 09:00etatik 15:00etara.

Udalekuak 7 eta 13 urte arteko haurrei zuzenduta daude;

hain justu, 1998 eta 2006 urte artean jaiotakoei, eta honako lekuetara joateko aukera izango dute: Araban, Barria eta Zuhatzara; Bizkaian, Gorliz, La Arboleda, Lapurreketa, Lauxeta, Lurraska eta Urduñara; eta Gipuzkoan, Hondarribia, Orio, Segura eta Zaurautzera.

Erreklamazioak

Apirilaren 8an eta 9an erreklamazioak egin ahal izateko, zozketarako onartutakoen izenak jarriko dituzte kultura etxean eta Interneten; zozketa plaza lortu dutenek behin betiko izena eman beharko dute apirilaren 15etik 22ra bitartean.

'Fracking'-ari buruz egingo dute berba bihar

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Ibarraundi museoa *Zer da Fracking-a?* delako hitzaldia izango da bihar, martitzena, Fracking Ez Araba plataformaren eskutik. 19:00etatik 20:30era bitartean izango da berbaldia.

Gasa ustiatzeko apurketa hidraulikoaren teknikaz berba egiteko erabiltzen duten hitza da *fracking-a*. Araba gasa duen zona baten erdigune bilakatu da eta Jaurlaritzak iragarri du gasa ustiatzeko teknikaren bideragarritasun ekonomikoa ikertuko duela.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Oñatitik Arantzazurako ohiko ibilbidean izena eman daiteke

Erramuen bedeinkapena egingo dute asteburuan

M.B. | ARETXABALETA

Zapatuan, hilak 23, Garizuma bukaerako ohiko ibilbidea egingo dute Oñatitik Arantzazura otoitz eta gogoeta giroan, eta, urtero moduan, autobusa jarri dute. Joan gura duten fededunek eguenera arte dute epea txartela jasotzeko; bidaiaren prezioa 12 euro da. Aretxabaletan Jose Luisekin egon beharra dago eta Eskoriatzan, berriz, Rosaritarekin.

Irteera hori, baina, ez da egunotan izango den ekimen bakarra. Aretxabaletan Garizumako otoitzaldia dute etzi, eguaztana,

Monasterioan, 19:00etan. Egun horretan ez da mezarik izango. Egubakoitzean, mezaren ordez, gurutze-bidea errezatuko dute, 19:00etan, Aretxabaleta eta Eskoriatzako parroketan.

Erramuen bedeinkapena

Domekan erramuen bedeinkapena izango da, 09:00etan Aretxabaletan Monasterioan eta 11:30ean parroketan. Eskoriatzan, aldiz, zapatuan zaharren egoitzan egingo dute erramuen bedeinkapena eta meza, 18:00etan; eta domekan parroketan izango da bedeinkapena, 12:30ean.

ARETXABALETA

Diabetesa izango dute hizpide biharko berbaldian

Debagoieneko ESik antolatuta, hitzaldia dago bihar, martitzena, Arkupeko Zaratza aretoan: *Diabetesa. Ondo jan, ondo bizi* izenburukoa. Debalde da 19:00etan hasiko den berbaldia. Oñatiko Osasun Zentroko Erizaintza arduradun Isabel Arenatzak eta zentro bereko erizain Kizkiza Alustizak eskainiko dute. Hitzaldia elikagaien ezagutzan oinarrituko da: besteak beste, jateko neurriak, jakiak nola konbinatzen diren ikasi eta nola sukaldatu ere erakutsiko dute, eta alimintuen piramidearen errebasoa ere egingo dute. Edozeini dago zuzenduta hitzaldia.

Aretxabaleta eta Sostoa abesbatzen kontzertua dago egubakoitzean

Aretxabaleta Abesbatzak bi kontzertu eskainiko ditu asteon Eibarko Sostoa Abesbatzarekin batera. Hilaren 22an Aretxabaletan izango dira eta 23an, Eibarren. Aretxabaleta 19:30ean hasiko da, parroketan, gurutze-bidea amaitu eta berehala. Sostoa *Alleluia-Resurrexit, Kyrie eta Domine* kantika espiritualak, *Ave Maria, De profundis, 87. salmoa eta Benedictus sit Deus* abestu ostean, aretxabaletarren txanda helduko da; honako egitaraua izango dute: *Kyrie, Congaudeant, Llama de amor viva, Las ruinas del monasterio, Judas mercator eta Ave Maria*. Amaitzeko, Aita Madinaren *Aita Gurea* abestuko dute batera.

Korrika Txikia plazatik irtengo da etzi, 17:30ean

Aretxabaletan ere Korrikarekin lotutako ekintzak izango dira egunotan. Euskararen aldeko lasterketa erraldoiaren etorreraren bezperan, Korrika Txikia egingo dute Herriko Plazan; Etzi, eguaztana, izango da hori, 17:30ean. Trikitilariz lagunduta joango dira umeak kaleetan, eta erraldoi eta buruhandiak ere ondoan izango dituzte. Lasterketa amaitzean, txokolate-jana egingo dute.

Eguenean, hilak 21, herri-tik Korrika 18 pasatuko da; edizio honetan, goizeko lehenengo orduan igaroko du udalerria, 06:06an.



Euskara ikastaroetan zazpi ikasle daude egun; udaletxean elkartzen dira astelehen eta eguaztenetan. | JOKIN BEREZIARTUA

ARAMAIO

Uema eguna Aramaion izango dela-eta, lelo lehiaketa abiarazi du Udalak

Aramaio da Uema barruan dagoen Arabako herri bakarra eta ospakizuna ekainaren 8an izango da; bestalde, Udalaren euskara ikastaroak aurrera doaz

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Aramaio Udalak 1996ko urtarilaren 25eko osoko bilkuran onartu zuen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea eta urte bereko maiatzaren 5ean Aramaion bertan ospatu zen Uema eguna. Arabako herri bakarra da Uema barruan dagoena eta aurtan, 13 urteren ostean, berriro ere Aramaion ospatuko da. 2013ko aurrekontuan jasota dago, besteak beste.

Gainera, egun berezi horretarako lelo lehiaketa ireki dute eta parte hartu gura duenak martxoaren 22a baino lehen aurkeztu beharko du esaldia. *Euskara, Aramaio* eta *Uema* hitzak tartekatu beharko ditu lelo horrek; irabazleak ekainaren 8an egingo den herri bazkarirako bi txartel jasoko ditu. Udaletxean entregatu behar dira lanak.

Euskara ikastaroak udaletxean
Bestalde, urri aldera hasitako euskara ikastaroak aurrera doaz. Zazpi ikasle daude egun eta ikastaro berean perfil ezberdineko ikasleak daude, Jon Azkoaga irakasleak azaldu duenez. Batetik, euskara ikasi gura dutenak daude, hau da, zerotik hasi direnak. Bestetik, euskaraz jakin bai baina idazten zein irakurtzen arazoak dituzten ikasleak daude, hau da, alfabetatze maila hobetzeko izena eman dutenak.

Astelehen eta eguaztenetan elkartzen dira udaletxean, 17:00etatik 19:00etara. Azkoagak dioenez, orokorrean taldeak bilakaera ona izan du ikasturte hasieratik hona: "Euskaraz ez zekitenek batez ere asko hobetu dute. Ikasturte erdialdean gaude eta dagoeneko gai dira era batera edo bestera euskaraz komunikatzeko".

Korrikarekin bat egiteko jaialdia

Egubakoitzean, hilak 22, San Martin eskolako umeek Korrika Txikia egingo dute, 15:00etan. Gero, txokolate-jana egongo da Guraso Elkartearen eskutik. Ondoren, jaialdia egingo dute kiroldegian, 19:30ean hasita. Bertsolariek, dantzariak, trikilariek, Bea Asurmendi musikariak, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzek eta herriko rock taldeek hartuko dute parte, besteak beste. Sarrera bi euro ordaindu beharko da; txartelak salgai daude dagoeneko herriko tabernetan.

ANTZUOLA

Martxoaren 23an Independentzia Eguna

Bazkarirako txartelak eguaztenara arte izango dira salgai gaztetxean 10 euroren truke

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Urteotan urte amaieran izan bada ere (iaz azaroan izan zen), aurtengo Independentzia Eguna martxoaren 23an izango da. Iaz bezala, gastronomia lehiaketa, poteoa eta bazkaria antolatuko dute gaztetxeko kideek Bergararengandik Independentzia lortu zela ospatzeko.

Bazkarirako txartelak eguaztena aurretik erosi beharko dira gaztetxean bertan 10 euroren truke. Gastronomia lehiaketan parte hartzeko, izena emateko zerrenda Gaztetxean dago; hortaz, interesatuek bertatik pasa beharko dute.

Goizean hasita iluntzera arteko ekintzak izango dira: 10:30ean, sukaldatzen onena zein den ikusiko da gastronomia lehiaketan; ondoren, poteoa izango da eta 14:30ean, bazkaria.

Arratsaldean, poteoa izango da bertsolariekin batera eta gaueko kontzertuak ikusi aurretik lunch txiki bat izango da Gaztetxean. Gaueko 22:30etatik aurrera Joxe Ripiau taldeak, Joxe Ripiau taldeari tributua egingo dio. Hortaz, badago zertaz disfrutatu aurtengo Independentzia egun honetan.

Korrika eguazten gauean

Bestalde, Korrika egun goizaldean pasako da herritik (01:00etan) eta aurretik, Korrika batzordeak afaria antolatu du egun horretarako. Izena emateko zerrenda gaztetxean dago. Bestalde, Korrika Txikia ere egunean egingo dute, 16:00etan. Ibilbidea: Antigua-Ondarre-Plaza-Sagasti-Aiherra-Beheko Auzoa-Sanjosepe-Kalebarren-Plaza-eskolako patioa.



LARRAITZ ZEBERIO



LARRAITZ ZEBERIO

ELGETA

Astuan Villa eta Bandoleira

Atzo, domeka, amaitu zen herri mailako futbito txapelketa. Emakumezkoetan Bandoleira nagusitu da atzo eguerdian Etxaon taldeari 6-0 irabazi ostean. Bezperan jokatu zen gizonezkoen finala eta Astuan Villa taldeak 5-2 hartu zuen mendean Jaitxo taldea.

LEINTZ GATZAGA

Lur-jausiak eta Dorletarako errepidearen egoera, aztertuta

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak egoeraren jakitun dira eta ikusten ere izan dira

UBANE MADERA | GATZAGA

Aurtengo negu gorabeheratsuak utzitako zauriak oraindik agerian dira Leintz Gatzagan. Bereziki, Dorletarako bidean.

Gatz museora iritsi aurretik errepidea altxatuta dago, eta gatz museotik Dorletarako bideko lur-jausiak erabat konpondu barik. Sikiera, hori bai, errepidea era-



Dorletara bideko lurjausi bat. | U.M.

biltzeko moduan dago, bertako bizilagunek harri eta lur gehienak erretiratu ostean.

Bestalde, mendi zatia jausita dago, baita ere, Leintz Gatzagako errepide zaharrarenpeko zati batean.

Diputazioaren errepidea

Edozelan ere, egoeraren berri jakinarazi diete udal ordezkariak Gipuzkoako Diputaziokoei. Izan ere, Dorletarako errepidea Foru Aldundiaren ardura da.

Juan Luis Zabala Zerbitzuetako zinegotziak jakinarazitakoaren arabera, Diputazioak dagoeneko egon dira lekuan bertan, egoera ikuskatzen.

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO MARTXOAN

ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean martxoan honakoa zozketatuko dugu.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).

Parte hartzeko

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

BaserriSarea
 Arrikruz
 Romeo

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
 Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozuzte. Eskubidea izango duzue datuotatik sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

DESKONTUAK: www.goienakluba.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



ANTZERKIA

Antzerki honetarako bina sarrera ditugu zozketatzeko. Arrasateko Amaia Antzokia: Martxoak 24, 19:30ean Romeo antzezlan.

Alabatxo HAUR antzerkirako bina sarreren irabazlea:
 Oskar Vitoria Gallastegi (Arrasate)



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA



2 erosi 1 ordaindu. Eureka! Zientzia Museoko eta planetariumerako sarrera bat erosi eta prezio bereko edo merkeagoko beste bat jasoko du doan.

Izena:
 Abizena:
 Bazkide Zenbakia:



Kupoi horien balio-epaia 3 hilabetekoa izango da.



KORRIKA

Korrika pack-en irabazleak:

- Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)
- Ainhoa Osa Etxebarria (Arrasate)
- Jabier Loidi Larrañaga (Bergara)
- Anuska Elorza Altuna (Arrasate)
- Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)



SARIA JASOTZEKO: Etorri Goienak Aretxabaletan duen bulegora Goiena Klubeko txartelarekin edo bazkide zenbakiarekin GOIENA, Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta.
 Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00. Ostiraletan: 08:00 – 14:00.



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan Goiena papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
 Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
 943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA



Beñat Arnaiz lehenengo helmugaratu zen debagoiendarra, bosgarren sailkapen orokorrean, bizikleta eskuetan hartuta. | IMANOL SORIANO



Lourdes Oartzabal, lehenengo helmugaratu zen

DUATLOIA

Felix Javier Martinez irabazle ezustekoan, Oñatiko duatloian

- ▶ Emakumezkoen artean Lourdes Oartzabal gailendu zen
- ▶ 286 parte-hartzailerekin, antolatzaileak gustura gelditu ziren

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI
Gizonezkoen lasterketaren hasieran, 15-20 lagun inguruko talde bat aurreratu zitzaiezen gainontzekoei. Bizikleta hartu eta Bergarara iritsi orduko, talde hori hamarrera murriztu zen eta Udana hasieran bost laguneko taldea zihon lasterketaren buruan. Hasierako talde horretan egon ziren kirolari hauek: Felix Javier Martinez, Benoit Kuentz, Iurgi

Etxeandia, Guillaume Ducasse, Beñat Arnaiz aretxabaletarra, Rodrigo Rodriguez eta Luis Maria Urizar. Lurra bustita zegoenez, beste batzuetan baino kontu handiagoz ibili behar izan ziren bizikletan Udana jaisten. Korrikako azken metroetan erabaki zen lehian zein zen bizkorrena: Kantabriako Felix Javier Martinezek ezustekoan Garai enpresaren parean aurreratu zituen gainon-

tzekoak. Horrela, Kantabriako beteranoak bere esperientzia erakutsi zuen Oñatiko proban. Benoit Kuentz frantsesa bigarren postuarekin konformatu behar izan zen eta Iurgi Etxeandia gainera hiruugarren helmugaratu zen. Etxeandia, gainera, joan zen asteazken Euskadiko txapeldun egin zen Durangon distantzia laburrean eta joan zen urtean berak lortu zuen Oñatiko duatloiko garaipen-

na. Debagoiendarren artean, Beñat Arnaiz aretxabaletarra nagusitu zen bosgarren postuarekin eta oñatiarren artean onena Xabier Luis Urzelai izan zen.

Emakumezkoetan, Lourdes Oartzabal nagusitu zen lasterketa guztian zehar.

Dopin frogak


Aurtengo Oñatiko proban, horrelakoetan egiten den bezala, aurre-

abisatu gabe, dopin frogak egin zituzten, gainera, lehenengo aldiz. Lasterketa hasita zegoela abisatu zieten antolatzaileei amaieran dopin frogak egin beharko zituztela kirolari batzuek, eta sailkapenean aurreneko postuetan gelditu zirenei egin zizkieten.

Frogen erantzuna pare bat aste barru jakinaraziko dela azaldu zigun Mikel Larrea antolatzaileak eta, sari banaketa beste batzuetan bezala egin bazuten ere, diruzko sariak ez ziren banatu eta sari horiek dopin froga horien erantzunak jakitean banatu beharko dituztela kontatu zigun Larreak.

Balorazio positiboa

Antolatzaileek aurtengo duatloien balorazio oso positiboa egin zuten bukaeran. Mikel Larrea antolatzaileak esan zigun "oso gustura" gelditu zirela beste urte batez Oñatiko duatloiak izan zuen harrerarekin.



XABIER LUIS URZELAI
ANTXINTXIKA TALDEA

"Lehenengo korrikaldian denbora ona egin dut. Taldeko hiruzpalau lagun batera joan gara ia lasterketa guztian eta azkeneko korrikaldian bakarrik joan naiz. Urtero bezala giro polita egon da eta jende asko elkartu gara".



OSKAR KARLOS
TRIGOI TALDEA

"Hiruugarren urtea da triatloietan parte hartzen dudana, baina nire lehenengo duatloia izan da Oñatiko. Nahiko ondo sentitu naiz eta pozik nago egindakoarekin. Ikaratuta gelditu naiz zegoen mailarekin!"



IBONE SANCHEZ
UROLA TALDEA

"Korrika bizikletan baino hobeto ibili naiz, bizikleta nahiko gogorra egin zait, baina gustura nago. Orain arte lasterketa motzagoetan hartu izan dut parte eta hau nahiko luzea egin zait baina esperientzia polita izan da".



NAROA ARRIETA
TRIGOI TALDEA

"Sei edo zazpigarren urtea da parte hartzen dudana. Lasterketa polita da, baita gogorra ere. Hasieran jendea oso azkar zihon sentsazioa izan dut, baina gero hiru emakume taldean oso ondo joan gara".



IGOR ESPARZA
OÑATI TRIATLOI TALDEA

"Lasterketa oso polita izan da. Gogorra da eta nekatuta bukatu dut baina egindakoaz gustura nago. Hasieran uste baino gehiago sufritu dut, bizikletan gustura ibili naiz eta azkeneko korrikaldian iristearrekin nahikoa, baina pozik".

ESKUBALOIA | Soraluze BKE-k Askartzaren kontra jokaturako partiduaren kronika | 26



Emakumea, bizikletarekin. | I.S.



Gizonezko eta emakumezkoen artean lehenengo hiru irabazleak, antolatzaile eta alkatearekin. | A.T.



Kantabriako Martinez kirolaria helmuga zeharkatzera zioala. | I.S.



Valera eta Urzelai Antxintxika taldekoak korrikako lehen metroetan. | I.S.

FELIX JAVIER MARTINEZ | GIZONEZKOETAN IRABAZLEA

"Duatloiak albo batera utzita neuzkan eta pozik nago gaurko garaipenarekin"

Felix Javier Martinez Kantabriakoa izan zen azkarrena gizonetakoetan.

Zer moduz zaudete?

Ondo, pozik. 1998an irabazi nuen hemen eta 2008an bigarren gelditu nintzen. Duela urte eta erditik utzita neukan duatloia kontua eta berriro irabazi dudalako oso pozik nago.

Ibilbide luzea daukazu aurretik eginda, gainera?

Bai. Bi aldiz izan naiz munduko txapeldun eta *ironman*-etan ere



A.T.

proba nahiko garrantzitsuak irabazi ditut. Euskal Herriko triatloi proba gehienak ere irabazi ditut nire kirolari ibilbidean.

Orain zein helburu dituzte?

Beste helburu batzuekin hasi naiz orain. Euskal Herrian gustatzen zitzaizkidan lasterketara itzuli naiz, beste mentalitate batekin. Hala ere, asko entrenatzen naiz eta lasterketetan oso lehiakorra naiz. Gaurko garaipenarekin oso pozik bukatu dut.

LOURDES OIARTZABAL | EMAKUMEETAN IRABAZLEA

"Bai sufritu eta baita disfrutatu ere, biak egin ditut Oñatiko duatloian"

Lourdes Oiarzabal Antxintxika Triatloi Taldeko emakumea izan zen azkarrena.

Zer moduzko lasterketa izan duzute?

Ona. Bakarrik egin dut lasterketa guztia, baina nesko hori tokatzen zaigu. Udako jaitziera arriskutsu zegoen, izan ere, elurra zegoen ertzetan eta errepidea bustita zegoen. Baina egin dugu.

Aurretik lasterketa honetan parte hartu izan duzute?



A.T.

Bai, esango nuke aurtengoa seigarren aldia izan dela lasterketa honetan parte hartzen dudana. Joan zen urtean bigarren gelditu nintzen eta aurtun lortu dut irabaztea. Gainera, hau da nire lasterketa kutunena, gehien gustatzen zaidana, Oñatikoa.

Eta disfrutatu duzue aurtengo lasterketarekin?

Bai, noski. Sufritu ere egin dut baina baita disfrutatu ere, bi gauzak egin ditut.

LASTERKETAREN SAILKAPENA

GIZONAK

1. Felix Javier Martinez 2:08:47
2. Benoit Kuentz 2:09:02
3. Iurgi Etxeandia 2:09:12

EMAKUMEAK

1. Lourdes Oiarzabal 2:20:13
2. Leire Etxezarreta 2:22:19
3. Nerea Gamba 2:23:01

BETERANOAK 3

1. Enrique Gutierrez 2:46:29

BETERANAK 2

1. Inmakulada Ruiz 2:24:30

BETERANOAK 2

1. Jose Mujika 2:21:03
2. Juan Karlos Muñoz 2:23:51
3. Andoni Cabanillas 2:25:32

BETERANAK 1

1. Stephane Arrayago 2:17:07
2. Lourdes Oiarzabal 2:20:13
3. Naroa Arrieta 2:32:36

BETERANOAK 1

1. Felix Javier Martinez 2:08:47
2. Luis Maria Urizar 2:10:33
3. Josu Uriarte 2:13:03

JUNIOR GIZONEZKOAK

1. Iker Arkauz 2:25:46
2. Ruben Astiz 2:26:36
3. Iker Prieto 2:28:13

SUB 23 EMAKUMEAK

1. Maialen Muñoz 2:31:22
2. Ane Ziaran 2:32:47

SUB 23 GIZONAK

1. Ignacio Barranco 2:13:43
2. Javier Fernandez 2:16:02
3. Iñigo Rubio 2:16:37

EMAKUMEEN TALDE ONENA

1. KO Triatloi Taldea, Gasteiz

GIZONEN TALDE ONENA

1. Triatlon Santander



Aloña Mendik bere joko eraginkorra erakusteko aukera onak izan zituen domekan. | JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak garaipen borrokotua lortu zuen Azkoagainen

Etxekoek lehen zatian lortutako bi goleko abantailak joko erraztu zion

EMAITZA

ALOÑA MENDI

3-1

ZARAUZ

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Lehen minutu lasai batzuen ostean, Aloña Mendik zelaian duen eraginkortasuna erakutsi

zuen atzoko partiduan. Presioa handitu eta Zarautz bere kanpoan egotera bultzatu zuen. Abiadura handiko jokaldi batean lortu zuen Aloñak lehen gola; area kanpotik alboko sake baten ostean Iñigo Zubiak kontrakoen deskuidu bat aprobetxatu zuen horretarako.

Horren ostean pase luzeetara bueltatu ziren bi taldeak. Baina, Aloñak bigarren aukera bat ikusi eta probetxua atera zion. Unai Uribetxebarriak baloia area ingurura eraman zuen, eta albotik 2. zutoinera bidali zuen esferikoa,

eta bertan Joseba Morenok buruz jo eta sare barrura bidali zuen baloia etxeokak bi goleko aldearekin utziz. 2-0 emaitzarekin bukatu zen lehen zatia.

Estrategia aldaketa

Bigarren zatia hasi bezain laster Zarautzek bi aldaketa egin zituen eta joko zeharo aldatu zen. Aloña bere kanpoan pilatu zen eta Zarautzek presioa areagotu zuen. Kanpokoek 61. minutuan sartu zuten golak berdinketarekin amesteko aukerak eman zizkien. Falta baten

ondoren egindako jokaldi estrategiko baten ostean lortu zuten gol bakarra. Baina eztabaida handia sortu zuen jokaldi baten osteko golak itxaropen guztiak ezabatu zizkien zarautzarrei.

Arbitroak ikusi ez zuen eskuak joko moteldu eta Jon Ander Kortabarria baloiaren jabe egin zen. Ia zelai osoa gurutzatu ostean Unai Uribetxebarriari eman zion pasea eta bakarrik zegoen atezaina erraz gaintu zuen. Azkenean premiazkoak ziren hiru puntuak ez dira Oñatitik irten.

FITXA TEKNIKOA

Aloña Mendi: Julen Agirre (1), Iker Ugalde (3), Endika Ruiz (4), Gorka Lazkano (6), Aritz Garmendia (7), Unai Uribetxebarria (11), Joseba Irizar (12), Iñigo Zubia (14), Ibai Moreno (15), Josu Juaristi (16), Jon Lertxundi (17).

Zarautz: Jaka (1), Ahedo (2), Joseba (3), Eneko (4), Alex Iriondo (5), Dier (6), Kimetz (7), Julen (8), Alex (9), Ferman (10), Illies (11).

ANDONI AZKARGORTA ENTRENATZAILEA

"Beste bi partidu irabazita mailari eutsiko diogu"

Lortu tako emaitzarekin gustura?

Bai, baina ez da emaitza erraza izan.



IMANOL GALLEGO

Azken unera arte estu egon da partidua. Hala ere, oso gustura, puntuen behar handia genuen-eta.

Hiru partidu irabazita, mailari eusteko moduan zaudete, ezta?

Hala uste dugu, 38 punturakin mailari eustea posible izango da. Orain 33 ditugu, hortaz beste bi partidu irabazita mailari eutsiko diogu.

Hirugarren gola polemikoa izan da. Zuk ze ikusi duzu?

Ez dut gezurrik esango, aulkitik eskua izan dela iruditu zait, baina arbitroak itxuraz ez du hori ikusi eta guk gola sartzea lortu dugu. Hala ere, egia esan behar dut eta eskua izan dela iruditu zait.

OHOREZKO ERREGIONALA

Inoiz egin duen lehenengo zatirik onenatariko bat eginda, 0-1 irabazita bueltatu da Bergara

Gol aukera asko izan zituen Bergarak zapatuan Touringen zelaian; Neka Galan entrenatzailearen esanetan, taldeak "inoiz" egin duen lehenengo zatirik "onenatariko bat" izan zen. "Lau edo bost gol aukera oso garbi izan genituen; azkenean, bakarrean sartu genuen, Imanolen gola", esan digu Galanek. Gol hori defendatzeko helburuarekin irten ziren bigarren zatian zelaira, eta, Touringek defentsa hori apurtzeko asmoz sartu arren jokalaria bat, ez zuten berdinketa lortu. Hori gutxi balitz, Bergarari balio gabetu egin zioten gol bat. Azkenean, 0-1.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Igoerarako puntuak pilatzeko aukera alperrik galdu zuen Antzuolak Eibartarrak taldearen kontra (0-1)

Sei partidu geratzen zaizkio Antzuolari Ohorezko Erregional mailarako behar dituen puntuak eskuratzeko, izan ere, zapatuko aukera ez zuen aprobetxatu. Klasifikazioan 8. postuan zegoen Eibartarrak taldearen kontra zuen neurketa, haien zelaian, eta 0-1 galdu zuten Juanina Garairen mutilek.

Datorren aste bukaeran aurkari zail samarra du, sailkapeneko postuari kasu eginda, behintzat: 4. postuan dago Mutriku. Dena dela, zapatuan ikusi zen moduan, ez dago aurkari txiki-girik ez eta, alde zurretik, partidu errazik.



OHOREZKO ERREGIONALA

JOSETXO ARANTZABAL

Bi jokalaria gutxiagorekin, 1-1 egin zuen Mondrak

1-1 geratu zen markagailua Mojategin, domekan. "Lehenengo zatian, nahiko ondo jokatu genuen, eta gola egin genuen, Iker Lopezen eskutik", baloratzen du Lutxo Iturrino entrenatzaileak. Handik gutxira penaltia adierazi zuen epaileak Touringen alde eta Mondraren jokalaria bat bota zuen, baina Anderrek gelditu egin zuen. Hala ere, alboko jaurtiketa buruz errematatu eta berdindu egin zuten bisitariak. Bigarren zatian, erasoari eusten kontzentratu ziren arrasatearrak, baina Jon del Palacio ere kaleratu egin zuen epaileak. Azkenean, berdinketa.

FUTBOLA



Igoera helburu zutela, gogotsu aritu ziren UDAko mutilak. | JOSETXO ARANTZABAL

Amesten jarraitzeko moduko garaipena UDAk

Ander Fernandez jubenilak eta Oxel Apraizek egin zituzten hiru golekin pozarren ipini zuten Ibarra

EMAITZA	
UDA	
3-0	
BERIO	

L.K. | ARETXABAETA

Oso pozik zeuden klubeko kideak eta zaleak atzo Ibarra lortutako garaipen ederrarekin, izan ere, hiru gol egin eta euren atea hutsean edukitzeaz gain, etxeko bolada txarra apurtzea lortu dute. Horixe azpimarratu du Igor Arenaza kirol zuzendariak: "Garaipen honek Aste Santuko oporren aurretik dugun partidurako indarra hartzeko balio-

ko digu", esan zigun. Hondarribia taldearen etxean jokatu dute hurrengo aretxabaletarekin.

Bost minutuan, bi gol

Partiduak bi izen propio izan zituen: Ander Fernandez eta Oxel Apraiz. Aretxabaleta "oso-oso indartsu" zelairatu zen, Arenazaren esanetan, eta Fernandez jubenilak segituan egin zuen lehenengo gola. Horren poza baretzeko astirik ere ia izan gabe, Oxel Apraizek bigarrena egin zuen. Bi golak bost minutuan etorri ziren. "Hainbat gol aukera izan ziren lehenengo zati osoan; batez ere UDAREndako", esan digu Igor Arenazak.

Kontuak kontu, atsedendaldira emaitza pozgarri horrekin joan ziren.

Berriok ere bere jokoa egiten zuen eta aretxabaletarren atera ailegatzeko saiatzen zen; baina, halako baten, kontraeraso baten Ander Fernandezek jokaldia egin eta Oxelek buruz sartu zuen ate aurrean lasaitasunerako gola, bere bigarrena.

Igoeraren bila

Horrenbestez, jardunaldi buketan laugarren postuari eusten dio Aretxabaletak. Amesten jarraitzeko moduko garaipena lortu zuen, igoera ematen duten bi postuetako batengatik borrokan jarraitzeko.



IMANOL SORIANO

Berdinketa, partidu gogorraren ondoren

Berdinketa (0-0) ontzat ematen du Mondrako nesken entrenatzaileak, Andoni Ezkurak, zapatuan Abantoren aurka "partidu gogorraren" emaitza gisa: "Gure moduko egoeran dagoen taldea zen eta gol gutxi jasotzen dituzte", esan digu. Ezusterik ez, beraz, eta puntu banaketa, Mojategin.

SASKIBALOA

Eraso bikainak defentsako hutsak konpentsatu zituen

Tabirakok planteatutako zonakako defentsari ondo erantzuten jakin izan zuen MUK zapatuan

EMAITZA	
MU	
105-96	
TABIRAKO	

L.K. | ARRASATE

Ikusleendako partidu polita izan zen zapatu arratsaldean Iturripen MUK jokatuakoa. Tabirakori 105 eta 96 irabazi zion. Erasoa oso joko ona egin zuten arrasatearrek; horregatik, nahiz eta defentsan arazoak izan, garaipena lortu zuten.

Josu Larreategi entrenatzaileak esan digunez, Tabirakok "oso defentsa gogorra" ekarri zuen, eta horrek "ustekabeen" harrapatu zuen taldea: "Eurek ez zituzten ekarri barrutik jokatzen dituzten bi jokalarik, eta taldearen egitura guztiz aldatuta zegoen: bere bosteko titularrek kanpotik jokatzen zuten, eta hiruko oso saskiratzaile onak dira". Defendatzea ez zen "batere samurra" izan arrasatearrendako, eta hasieratik igarri zen: "Konturatu barik,

0-5 emaitzarekin geunden", esan du entrenatzaileak. Horrela bada, lehenengo minutuan bi aldaketa egitea erabaki zuen entrenatzaileak (Iker Barbero eta Martxel). Lehenengo laurdena 22-24 bukatu zen.

Tabirakok "oso ondo eta erosotasunez" jokatzen jarraitu zuen. "Defentsan ez zuten gauza handirik egiten, baina bizpahiru zona defentsa erabili zituzten gu konfunditzeko. 1-3-1 eta 2-3 erabili zuten", esan du Josu Larreategik. "Baina guk badakigu sartzeko, horregatik gara ligan puntu gehien sartzeko ditugunak, eta atzo erakutsi genuen sartzeko gai gara", gaineratzen du.

Bigarren zatia, bestelakoa

Aldageletara "bizirik" ailegatzeko lortu ondoren, bigarren zatira "taldea beste modu batera irten" zen, eta denbora gutxian aurretik jarri zen markagailuan. Hirugarren eta laugarren laurdenetan, 31 puntu sartu zituen MUK. "Azken minutuetan berriz oso ondo jokatu genuen eta benetan pozgarria da", esaten du Josu Larreategik.



Martxel, erasoan. | IMANOL SORIANO

20 puntuko abantaila xahututa, azkenean txiripaz irabazi zuen Natra Oñatik (83-85)

Zer pentsatua utzi zien Natra Oñati saskibaloitza taldekoei zapatuan Aluminios Alberdiren aurka jokatu zuten partiduak. Nahiz eta irabazi (83-85), aldea askoz handiagoa izan zitekeen, oñatiarrek nagusitasun handia erakutsi zutelako lehenengo zati osoan, eta atsedenera 20 puntuko koltxoiarekin joan zirelako. Baina aurkariak presioa handitu zuten eta Natrak berandu erreazionatu zuen. Eneko Blanco entrenatzailearen esanetan, "partidua txarto doanean erreazionatzen hobeto ikasi" behar du taldeak.

Lehenengo zati orekatuaren ondoren, partiduak ihes egin zien Zarautzen Eskoriatzako seniorrei

Senior mailako neskek esku hutsik itzuli ziren Eskoriatzara, Zarautzko Murkilen aurka 49-36 galduta. Atsedenera arte lehia bizirik egon zen, nahiz eta eskoriatzarrak galtzen joan (21-15), baina handik aurrera etxekoek abantaila gero eta gehiago handitzea lortu zuten, eta Fernando Rasoren neskek aukera barik geratu ziren. Entrenatzaileak azpimarratzen du erasoan hutsegite asko egin zituztela, baita saskiratze errazetan ere. Datorren astean, Atletico San Sebastian hartuko dute etxean eskoriatzarrek.

ESKUBALOIA

Bigarren zatiak erabaki zuen oso partidu parekatua

Soraluzek bigarrenen sailkatuen kontra galdu arren, azken partidutan baino maila hobea erakutsi zuen

EMAITZA
SORALUZE BKE
31-33
ASKARTZA

IMANOL GALLEGO | BERGARA
Erronka ez zen erraza, baina Jose-txo Muniategiren mutilak gogotsu irten ziren. Askartzan izandako garaipenaren ostean, etxean beste garaipen bat lortu nahi zuten, baina oso partidu berdindua izan arren, azken minutuetan zenbait akats egin ostean, kanpotarrak izan ziren garaile.

31-33 oso emaitza estua izan zen eta taldeak, azken partiduetan gertatu ez den moduan, zapatukoan bere benetako maila erakutsi zuen. Lehen minutuetan, Soraluzeren ikurra den joko arina erabili zuten, pase bizkor eta motzak bisitarien jokoak ezegonkortzeko. Planteamendu horri esker, berdinketarekin iritsi ziren atsedendira.



Soraluzek ez zuen amore eman eta gogotsu ari zen. | IMANOL SORIANO

Bigarren zatia erabakigarria
Askartzak bigarren zatian bere jokoa aldatu eta, defentsa indartu ostean, luze jokatzen hasi zen. Azken minutuetako akatsek eta

Plazaolari egindako defentsa mistoak etxekoan jokoa kolokan jarri zuten. Lesioek ere ez zioten mesede handirik egin eta azkenean puntuak kanpora joan ziren.

JOSU AGIRRE
JOKALARIA

"Azken partiduetan galdua ibili ostean hobeto egon gara"

Oso partidu parekatua izan da.

Ez da partidu erraza izan. Kontua hartzekoa da eurak bigarrenak direla eta gu bosgarrenak, Baina maila ona erakutsi dugulakoan nago.

Bi zatiak oso ezberdinak izan dira.

Bai, bietan gogotsu aritu arren, lehen zatian hobeto aritu gara. Bigarren zatian oso indartsu irten dira eta, guk kontra egin diogun arren, azkenean bigatik galdu dugu. Pena izan da, euren etxeak guk irabazi genuelako, baina tira...

Galdu arren, emaitza gozo moduan hartu dezakegu?

Gazi-goza izan dela esango nuke. Batetik, azken partiduetan apur bat galdua ibili ostean, bide ona berreskuratuz dugula esango nuke, baina guztioi gustatzen zaigu irabaztea, eta une askotan garaipena oso gertu izan dugu.



IMANOL GALLEGO

EUSKADIKO TXAPELKETA

Lehen postuan sendo jarraitzen du Ford Mugarrik

Ezustekorik ez Ford Mugarrentzat: erraz irabazi zion zapatuan Basauriri, haien etxean (21-38). Pablo Garcia entrenatzaileak onartu digunez, "entrenamendua moduko" izan zen partidua arrasatearrendako. Horrenbestez, maiatzaren 11n hasiko den igoera faserako hobeto prestatzeko partidu gisa jokatu zuten. Datorren astean derbia izango da, Soraluce BKE-ren kontra jokatuko baitu Ford Mugarrik.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Datorren astean jokatuko du Aloñak Urdulizen kontra

Datorren aste bukaeran jokatuko dute Aloña Mendiko neskek Urdulizen kontrako partidua. Joan den zapatuan ziren jokatzeak norgehiagoka hori Zubikoan, baina, azkeneko momentuan, atzeratu egin zuten, Urdulizko jokalaria batzuek beste kirol konpromiso batzuk zituztelako. Berez, datorren aste bukaeran ez zegoen jardunaldirik, eta oraingo asteko jokatzeak aprobetxatuko dute.

ATLETISMOA

Malen Ruiz de Azuak Espainiako marka ondu du

L.K. | ARRASATE

Malen Ruiz de Azua (Super Amara BAT) arrasatearrak Espainiako pista estaliko pertika-salto errekor berria ezarri du, Espainiako Junior Txapelketan 4,01 metroko saltoarekin. Antequeran jokatutako txapelketetan parte hartu du arrasatearrak, eta zapatu goizean lortu zuen marka hori. Aurreko errekorra ere berea zen, baina beste atleta batekin, Mar Sanchezekin berdinduta zegoen; hark 1998an lortu zuen.

Horrenbestez, Ruiz de Azuak denboraldi bikaina modu ezin hobean amaitu du.



Malen Ruiz de Azua. | GOIENA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK		
Ostadar-Lagun Onak	0-1	
Aurrera-Hondarribia	1-2	
Aretxabaleta-Berio	3-0	
Trintxerpe-Urola	1-1	
Oiartzun-Real Union	2-0	
Beti Gazte-Tolosa	2-2	
Mondra-Hernani	1-1	
Touring-Bergara	0-1	
Aloña Mendi-Zarautz	3-1	

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Oiartzun	59	26
2 Hernani	55	26
3 Real Union	52	26
4 Aretxabaleta	48	26
5 Bergara	45	26
6 Berio	42	26
7 Hondarribia	37	26
8 Tolosa	35	26
9 Touring	33	26
10 Aloña Mendi	33	21
11 Zarautz	28	26
12 Lagun Onak	27	26
13 Mondra	27	25
14 Beti Gazte	27	26
15 Urola	27	26
16 Ostadar	27	26
17 Trintxerpe	25	26
18 Aurrera	23	26

HURRENGO JARDUNALDIA

Zarautz-Ostadar	
Lagun Onak-Aurrera	
Hondarribia-Aretxabaleta	
Berio-Trintxerpe	
Urola-Oiartzun	
Real Union-Beti Gazte	
Tolosa-Mondra	
Hernani-Touring	
Bergara-Aloña Mendi	

ERREGIONAL PREFERENTEA

Eibartarrak-Antzuola	1-0
----------------------	-----

I. ERREGIONALA, IGOERA

Vasconia B-Aretxabaleta B	0-1
---------------------------	-----

I. ERREGIONALA, KOPA

Soraluze-Arizmendi	5-0
Eibartarrak-Bergara	5-2

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Zumaiako	1-0
Aloña Mendi-Bergara	0-1

I. GAZTEAK, IGOERA

Aretxabaleta B-Urnieta	4-2
------------------------	-----

I. GAZTEAK, KOPA

Beasain-Bergara	2-2
Arizmendi-Eibartarrak	3-3
Eibartarrak B-Aloña Mendi	3-1

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Mondra-Abanto	0-0
---------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Basauri-Ford Mugarri	21-38
Soraluze BKE-Quiron	31-33

GIPUZKOAKO 1. MAILA

Izarraitz Tab. Aloña-Ordizia	21-17
------------------------------	-------

GIPUZKOAKO 2. MAILA

Bergara-Tolosa	24-33
Talleres Ondo-Arrasate	22-22

SASKIBALOIA

EBA LIGA

Alum. Alberdi-Natra	83-85
---------------------	-------

LEHEN NAZIONAL MAILA

MU-Tabirako	105-96
-------------	--------

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Saltxaileak	5-3
------------------------	-----

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



goiena

ESKUBALOIA

Jose Manuel Ruiz de Cenzano | Euskadiko Eskubaloi Federazioko presidentea

"Guraso batzuek euren seme-alaben partiduetan izaten duten jarrera penagarria eta onartezina da"

- ▶ Urtarrilaren 30ean egin zen bozketan izendatu zuten oñatiarra federazioko presidente
- ▶ Lehiaketa eredia aldatzea izango da Jose Manuel Ruizek izango duen erronketako bat

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Jose Manuel Ruiz de Cenzano Oñatin bizi da azkeneko 35 urteetan, Barakaldon jaioa izan arren. Eskubaloi jokalaria eta entrenatzaile izan da, eta orain Euskadiko Federazioko presidente kargua hartu du. Ilusioz eta lanerako gogoz dago Ruiz.

Zorionak! Ilusioa bai, baina baita konpromisoa ere.

Eskerrik asko! Bai, ilusio handia daukat, eta konpromisoa oraindik handiagoa. Orain arte egin diren gauza asko mantendu daitezkeen arren, gauza asko ditugu aldatzeko. Talde polita sortu dugu eta lehenengo egunetik gabiltza lanean.

Orain dela lau urte ere aurkeztu zinen kargura. Zergatik aurkeztu zara berriro ere?

Egia esan babes handia jaso dut jende askorengandik. Azken bi urteetan hauteskundeak gertatzen ibili naiz, gaur egun dudatan taldearekin azken urtean. Gipuzkoako 21 elkarteetan babesaren nuen. Hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko Gipuzkoako edo Bizkaiko babes osoa beharrezkoa da; Bizkaian 22 boto daude eta Araban lau. 35 boto lortu nituen, uste baino gehiago.

Zein da erronka nagusia?

Lurraldeko federazioekin harremana hobetzea da erronketako bat. Azkeneko urteetan harremana ez da ona izan, batez ere Gipuzkoarekin. Horrez gain, instituzioekin ere harremana hobetu egin behar dugu. Eusko Jaurlaritzaren menpe gauden arren, gainerako Diputazioekin ere harreman ona izan behar dugu. Bi erronka horiek beharrezkoak dira, horrez gain kirol erronkak ditugu. Uztailean lehiaketa eredu berriak aurkeztea nahi dizkiegu Lurraldeko federazioei. Egin nahi ditugun gauza guztiak Lurraldeko federazioekin hitzartuta egin nahi ditugu, ez guk esaten dugulako eta kito. Izan ere, kritikak berehala etorriko zaizkigu, edozer gauza egin orduko.

Kirol arloan hainbat aldaketa egin nahi dituzu. Horietako batzuekin hasi zarete. Zeintzuk dira?

Epaileen estamentuari dagokionez, azkeneko urteetan epaile gutxi batzuek partidu mordoa adierazi izan dituzte. Hori aldatu beharra dago, partiduak denetan artean banatu behar dira. Batzuk azkeneko hiru urteetan 56 partidutan izan dira, eta beste batzuk, ordea, 10 bat partidutan. Epaileen presidente berriaren ardura nagusia hori izango da; bestalde, konfiantza hartu behar da epaile guztiek



Jose Manuel Ruiz de Cenzano, Aloña Mendik Atzeko Kalen duen egoitzaren aurrealdean. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Jendearengandik jaso dudatan babesari esker aurkeztu naiz kargura"

"Epaile gutxi batzuek partidu asko epaitu dituzte azkeneko urteetan"

"Lurraldeko federazioekin harremanak hobetu behar ditugu"

"Aurrerantzean hautatzaile denek titulu nazionala izan beharko dute"

ez dutela maila bera. Hortaz, Euskal Ligan epaitzeko moduan ez daudenak beterekin jarri beharko ditugu, esperientzia hartzen joan daitezke. Gainera epaile batzuk probak pasa barik edo lizentzia barik ibili dira, eta horiek kanpoan geratuko dira orain. Lehiaketa eredia ere aldatzea nahi dugu, baina horrek denbora gehiago beharko du. Hautatzaileei dagokionez, aurrerantzean titulu nazionala izan beharko dute denek; Euskadin, titulua duten asko daude.

Kontabilitatea uste baino okerrago dagoela konturatu zarete.

Bai, kontabilitatea eramaten duenak ia egunero deitzen dit esateko gauza oso arraroak ikusten dituela. Nondik heldu ez dakiela dabil! Gainera, 2013ko aurrekontua gertatu barik dago eta hori ere egiteko dugu. Denboraldia irailetik maiatzera bitartean izaten den arren, kontabilitatea urte naturalaren eraman behar izaten da, eta diru-laguntzak ere urte naturalaren arabera jasotzen dira.

Osatu duzun taldean nortzuk zaudete?

Epaileen presidente berria Asobal mailako epaile bat da, Juanjo Gude; zuzendari teknikoa, Goyo Villoria da; Lehiaketa batzordeko presidentea, Txema Hernandez; diruzaina, Juango Diaz de Monasterioguren oñatiarra; eta, presidenteordea Jabi Zubiarrain, Asobal ligako presidente izan zena.

Hori federazioari dagokionez, baina euskal eskubaloien egoera nola ikusten duzu?

Euskal eskubaloien egoera Espainiakoaren antzerakoa da. Nahiko gaizki dago, ikusi besterik ez dago jokalaria guztiek nola alde egin duten. Europako gainerako herrialdeetara joan dira jokalaria on gehienak. Batez ere emakumezkoen mailan; Espainiako selekzioarekin jokatzeko gehienak joan egin dira. Bestalde, esan behar da, elkarteek lan ona egiten dutela harrobirekin: Oñatin, Arrasaten, Tolosan, Ordizian, Zumarragan... Oinarrria ondo landuta dago baina goiko mailak ez daude ondo.

Kezkatzen zaituen beste gai bat gurasoek umeen partiduetan erakusten duten jarrera da.

Bai, asko gainera. Taldeko kirol gehienetan ematen den egoera da hori. Izugarria da! Epaileak iraintzen dituzte –benjamin mailako partiduetan epaileak kadeteak izaten dira, adibidez–, entrenatzaileekin sartzen dira euren seme-alabek gutxi jokatzeko dutelako, gurasoen artean haserretzen dira... umeei ondo pasatu behar dutela erakutsi behar zaie! Gertatzen dena ezin da onartu, penagarria da eta badakit ezin dela konpondu. Arazo honi irtenbidea aurkitu behar diogu.

Nola ikusten dituzu Debagoieneko taldeak?

Gizonezkoetan Arrasatekoak ondo dabilta, igotzeko ilusioz. Emakumezkoetan, ostera, Aloña Mendik lan handia egiten du, beti egin izan duen moduan.

Gatazkak ohikoak dira harremanetan, eta berdin gertatzen da anaia-arreben artean

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren azalpenak jaso dituzte 'Hik Hasi'-n

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Adituak argi dauka: "Gatazkak ez dira, berez, txarrak. Horiek ondo ez kudeatzea eta bideratzea izan liteke arazoa, beti liskarrean amaitzea eta jarrera bortitzetatik ez ateratzea". Mendizabalen ustez, seme-alaben arteko gatazkak gauzak hobetzeko aukeratzat hartu beharko genituzke gurasoek, eta ez arazotzat.

Bi pertsona diferente

Odola berdina izanagatik anaia-arrebak pertsona diferenteak dira, eta diferente izanik beraiek eraikiko dute euren harremana. "Gurasoen rola oso garrantzitsua izango da, bai euren arteko harremana eredu izango delako seme-alabentzat, eta baita gurasoek haur batekin zein bestearrekin duten jarrerak zeharo baldintza dezakeelako haurren arteko harremana". Giro ona bermatze aldera, haur bati zein besteari ezartzen zaizkion rolez jabetzea lagungarri izango dela ohartarazten du adituak, eta konparazioak saihe-



Bi ume liskarrean. | J. CARCELES

tu behar direla dio. "Kasu askotan ume berbera da beti liskarrak pizten dituen, beste haurra maitatuago edo babestuago dagoela iruditzen baitzaio".

Bitartekari lanak

Mendizabalek ohartarazten du umeek ez dituztela sentimendu mingarriak hitzez adierazten. "Soluzioa ez da, beraz, jokaera

debekatzea, baizik eta gurasoei eskatzen ari zaien hori asetzeari: maitatua, garrantzitsua eta baloratua dela adieraztea". Horren harira, Nerea Mendizabalek zenbait gomendio egiten ditu: seme-alaba bakoitzari atentzio eskusiboa ematea, epaile lanak baino gehiago bitartekari lanak egitea eta liskarra egon denean guztien bertsioa entzutea.

'Hesiak gaintitzen' ikus-entzunezkoa sarean ipini dute ikusgai

Hogeita bost minutuko dokumentala da eta 'Guraso.com' atarian ere egongo da ikusgai

L.Z. | ARRASATE

Hesiak gaintitzen dokumentalaren helburua da hizkuntzaren transmisioaren garrantzia azpimarratzea eta euskarara hurbiltzeko eta euskara hurbiltzeko ahalegina egin zutenei eta egiten ari direnei esker ona adieraztea. Dokumentalaren ideia duela urte eta erdi inguru sortu zen Arrasateko Txatxilipurdi Elkartean. Gidoia Arteman Komunikazioa enpresarekin eta Jon Maia bertsolariarekin batera garatu zuen Txatxilipurdik.

Arrasaten abenduan aurkeztu bazuten ere, dokumentalaren hedapena Debagoieneko eta Euskal Herriko beste zenbait herri eta hedabidetan zabaltzen ari da. Orain, sarean ere ipini dute ikusgai. Besteak beste, *Guraso.com* atarian aurkituko duzue lotura. Ikus-entzunezkoa-

ren ekoizpenak esperientzia ezberdinak jaso ditu, betiere euskara ardatz izanda. Hala, Arrasateko eta inguruetako familia eta guraso ezberdinen testigantzak jasotzen dira bertan.

Jarrera txalotu

Kanpotik etorri eta euskaraz ez ikasi arren ondorengoei euskaraz ikasteko bidea erraztu zutenen edo Euskal Herrian jaio arren euskara galdu eta berreskuratu dutenen testigantzak jasotzen ditu *Hesiak gaintitzen* dokumentalak. Horrela, proiektu horrekin, Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak horien guztien jarrera txalotu eta onartu nahi izan du. Ikus-entzunezkoak hogeita bost bat minutuko iraupena du.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDIREN TXOKOA

Heriotzaren uretan, dolua zubi

Josu Iriarte

Erizaina eta Arizmendiko irakaslea

Gure gizartean, osasun arloan, oraindik ere familiak eta etxeko zainketek dute pisurik handiena. Ondorioz, edozein zainketaren plangintzan egiteko familiaren parte-hartzea izan behar da kontuan.

Hasieran, familiak beldurra izan ohi du gaixoarekin gaixotasunari buruz hitz egiteko. Beldur diote nahikoa lagundu ezin izateari, gaixoa luzaroan sufritzen ikusteari, egoeraren larritasunari... Egoera berriak familian desoreka sor dezake, familiako unitate bakoitza desberdin erantzungo baitio egoerari. Desoreka sortzen duten faktoreak dira familiako kideen zenbatekoa, funtzionamendua, kultura maila, maila ekonomikoa... Desoreka horrek gaixoari gehiegizko babesa ematea, zainzailearen sindromea —gaixoari arreta guztia eman

norberaganako arreta galduta—, amore ematea edo familiako kideen arteko haserrea eragin dezake.

Heriotza iritsitakoan

Heriotzaren ueña iristean epe motz zein luzerako egokitzapena hasten da; maitatutako senitarteko hori gabe bizitza antolatze-ko ueña, alegia. Une horretan kolokan jartzen da familiako kideen eta familiaren beraren identitatea. Sortzen den krisi horrek identitate berrirako zubi izan behar du, eta fase horri dolua deritzo.

Dolua heriotza bezala prozesu natural bat da, non emozio arloan, arlo fisikoan, espiritualean eta kognitiboan erreakzio batzuk izaten diren, bakoitza bere erritmo eta intentsitatean. Banakako

Heriotzaren ostean egokitzapena hasten da

doluak dolu familiarrean eragingo du, eta baita alderantziz ere.

Banakakoan dolua naturalki pasatzeko faseak dira: galeraren errealitatearen onarpena, emozioak kanporatzea, errealitate berrira egokitzea zein hildakoa emozionalki kokatzea eta bizitzan aurrera jarraitzea. Familiarentzat, berriz, egin beharreko bidea izango litzateke kide guztien onarpena, emozioak partekatzea, familia berriz antolatzea, eta inguruko bizitzara integratzea.

Askotariko doluak

Fase bakoitzak bere denbora behar izaten du: aurreratzeak edo asko atzeratzeak dolua gaixotasun bihurtu dezake. Kasu horietan askotariko doluak aipa ditzakegu: gehiegizko dolua, dolu kronikoa, atzeratutako dolua edo gordetako dolua.

Doluaren zubia igarotzean bizitzen jarraitu beharra dago joandakoen irribarrea eta maitasuna lagun.




Senitarteko bat gaixoa zaintzen. | PORTAL DEL SURES

Zaintza aringarrietako langileak

Ezin uka daiteke zaintza aringarrietako langileak bokazioz beteriko langileak direla, berdin da medikua, erizaina zein laguntzailea izan. Gaixoa eta familia zaindu, gaixoari duintasunez hiltzen lagundu, eta era berean, familiaren euskarri izan behar dute. Baina momentu gogorak eta zailak gaixoen azken irribarrearekin edo familiaren esker onarekin konpentsatzen dira. Momentu horretan konturatzen da norbera lan profesionala ez ezik lan pertsonala ere badela. Lan hori ondo egiteak bai pertsona bai lantaldea asebetetzen ditu.

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Txapela ez zuen lortu, baina txartela, bai

- ▶ Oihane Perea da Arabako bertsolari txapelduna berriro, zapatuan jokatu zen finalean gailenduta
- ▶ Manex Agirre aramaioarrak, txapeldunorde izanda, aurtengo Txapelketa Nagusirako txartela lortu zuen

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU | GASTEIZ
Manex Agirre aramaioarrak ezin izan zion txapelari eutsi zapatuan Gasteizko Principal antzokian jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako finalean. Ofizioetako ariketetan umoretik deman zirikatzaile eta pikante aritu bazen ere, bakarko lanetan ez zuen goitik beherako bertsosaldirik ontzerik izan. Oihane Perea, ordea, freskotasanari eutsi zion ariketaz ariketa eta atalez atal, eta era horretara nagusitu zitzaion Agirrer buruz burukoan. Hala, Arabako txapeldun izatera itzuli zen Perea hirugarren txapela irabazita.

Finalurrekoetan bertsoerarik helduenarekin, gainontze-koekiko alde nabarmena nabaritu zitzaion. Zapatuko finalean, zortziko eta hamarrek txikiko ofizioetan nagusitasun hori nabaritu zen, baina gainontzeko lanetan ez zen nabarmen nagusitu. Dena den, txapelik ez, baina txapelari eutsi ezinaren minaren aringarri, aurtengo azken hiru hileetan jokatu den Txapelketa Nagusirako txartela lortu zuen. Izan ere, bi txartel

zeuden Arabatik, eta buruz burukora sailkatu ziren lehen bi sailkatuek lortu zituzten.

Perearekin eta Agirrerekin batera, puntu erdira sailkatu ziren Iñaki Viñaspre eta Asier Otamendi, eta apalagotik jardun zuten Ruben Sanchezek eta Jagoba Apaolazak. Viñasprek ofizioetan lehertu nahiz kantatu zuen, eta azken eginbeharra izan zuen bakarkoan erabat leherraraztea lortu zuen. Otamendi beteranoak eta txapeldun ohiak urtez urte heldu duen bertsoera erakutsi zuen. Aldea-



Manex Agirre aramaioarra eta Oihane Perea buruz burukoan | HAIZEA PASTOR

rekin zen helduena, eta zenbaitetan Otamendiren umorea atemporal ere egin zen entzuleen belarrietara. Sanchezek ohiko ausardia izan zuen, eta tekniki labankor arituagatik, kol-

pe bila erantzunez indartu zituen bertsoak. Bakarkakoan poto eginda bukatu zituen betebeharrak, eta horrek ordura arteko ahalegina trakestu zion. Apaolazak bat-batekotasunerako ahalmena erakutsi zuen finalurrekoetan bezala –lehen puntua emandako lehenean, batez ere–, baina, halabeharrez, gatzetasuna nabari zitzaion oraindik bertsoeran.

Bertsoari eta lehiari lotuta, Arabako bertsolaritzaren festa izan zen, eta giroa berotik berora joan zen saioan zehar: animo oihiak eta Pereaen zaleen bonbo eta txindata zaratek girotu zuten 700 bertsozalez bete zen antzokia.

Agirrereren zirtoak

Zortziko txikian hasi zen pizten Agirre, eta Viñaspreekin osatu zuen bigarren ariketa horrek piztu zituen entzuleak lehen aldiz. Zuzendariaren bulegoan ziren Viñaspre eta Agirre Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak dutzetan zelatan harrapatu zituztelako. "Baina hala ere dago / gauza bat krudela / goizegi harrapatu / egin gintuztela", hasi zuen bertsoaldia

MANEX AGIRRE | ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO TXAPELDUNORDEA

"Min egiten du txapela galtzeak, ez dut ukatuko"

Ez zuen txapelari eutsi ezinaren minik ukatzen Manex Agirrek saio ostean, baina Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarako pozarekin orekatu egiten zitzaion mina.

Nola sentitu zara saioan zehar?

Ondo. Hasieran kostatu egin zait saioan sartzea: beti egon behar da transiziozko une bat finalan sartu arte eta gus-tura sentitu arte, eta normalean oso luzea ez bada, hobeto izaten da. Hasieratik ofiziotan nik uste nahiko txukun ibili naitzela eta erritmoa hartu diodala. Ez dudalako bidea ondo hartu ala josten asmatu ez dudalako edo, bakarko lanen arantza hori geratzen zait.

Txapeldun izateko faboritua izanda nola erreparatzen diozu emaitzari?

Min egiten du txapela galtzeak, hori ez dut ukatuko. Gainera, bi urte izango dira, gauza asko gerta litezke, eta horrek min egiten du. Euskal Herrikoak

poz handia ematen du. Lehen aldia izango da. 31 urte egin behar ditut datorren astean. Ez da adin txarra horrelako gauza baterako. Orain momentuan, poz horrekin geratzen naiz.

Min hori zure burua aurrez txapeldun moduan ikustetik sortzen zaizu?

Nik aukerak ikusten nituen, gezurrik ez dizut esango. Finalurrekoetan gustura egon nintzen, eta gero, esango nuke



HAIZEA PASTOR

azkeneko bi urteetan bertsoekin harreman ona izan dudala; saioetan inoiz baino gehiago gozatu dut. Orain horrek guztiak jarraituko du, dudu barik, baina ez da gauza bera izango.

MUSIKA | 'Erlautzaren sekretua' arrakastatsu Antzuolan ere | 33



Ohiko tresnekin ezohiko doinuak eskaini zituzten Oñatiko musika eskolakoek

Triki konbo, akordeoi, trikitixa eta pandero eta haize taldeko ikasleak izan ziren taularen gainean

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Iazko esperientzia ona gogoan, Oñatiko musika eskolakoek egubakoitzean, Santa Anan egin zuten senitartekoentzako eta herritar guztientzako kontzertua.

60 ikaslek, ordubete pasako emanaldian, euskal kantu klasiko eta herrikoiak eta atzerriko pop eta rock kantuekin osatutako erreperorioa eskaini zuten; zaleek, gustura, txaloekin eta kantuan erantzun zieten.

Lau taldetan banaturik

Lehenengoz jendaurrean jotzen zuten Triki Konbo taldeak ekin zion emanaldiari; trikiti, gitarra, baxu eta ahotsarekin, Etxakit, Itoiz eta Gozategiren kantu bana eskaini zuten. Akordeoi taldea izan zen bigarrena, eta Deep Purple taldean *Smoke on the water* kantuen bertsiotzat bitxi eta poli-

tarekin hartu zuen lekukoa. Oñatz dantza taldeko bi kidek dantzatutako fandango, arin-arin eta biribilketa banarekin borobildu zuten zegokien atala.

Trikitixa eta pandero taldearen txanda izan zen gero; euskal

kantu ezagunak aukeratu zituzten horiek, Gorra Knörr, Benito Lertxundi eta Kepa Junkerarenak, besteak beste. Amaitzeko, haize taldeak *Sister Act* eta *Toy Story* filmetan sartu gintuen eta baita, *I will survive* kantuekin, dantzara gonbidatu ere. Amaiera polita eman zioten *La greve des musiciens* abestiarekin; taularen gaineko musikariak, banan-banan, eszenatokitik joan ziren, bukaeran bi bakarrik geldituz.

Ikusleak, gustura, kantuen artean txaloka eta entzundako doinuak kantatuz. Musikariak, harro egindako lanarekin; hasierako urduritasuna gaindituta, jarrera dotorea erakutsita.



Estreinekoz egin zuten Triki Konbo taldeak egubakoitzean kontzertua. | A.A.

NEREA ALONSO


ZEHARKAKO
TXIRULA



"Orain sei urte hasi nintzen musika ikasten. Asko entseatu dugu gaurko. Oso pieza politak prestatu ditugu; bereziki, *Toy Story*-rena dut gustuko".

ANDER BIAIN


SAXOFOIA



"Musika oso gustuko dut baina jendaurrean jotzea ez dut askorik atsegin. *Sister Act* kantuan soloa egiten dut eta hanka sartzeak arduratzen nau".

BEÑAT MARKINEZ

KLARINETEA



"Gitarra ikasi nahi nuen arren, klarinetearen doinuak harrapatu ninduen. Urduri izaten naiz beti jendaurrean jotzerakoan. Guraso eta lagunei eskaini nahi diet".

Viñasprek, eta zuzendariari proposamen bitxi samarra eginez jarraitu zuen hurrengo bertsoan, *pay per view* delakoa egitea proposatu baitzion. Ezustean harrapatu zuen kontzeptuak Agirre, baina artez erantzuten asmatu zuen: "Nik ere flipatu dut / *Pay per view* -arekin. / Ba ni konformatzen / *Interviu* batekin".

Hurrengo ariketan, hamarreko txikikoan, tonu berari eutsi zion. Zahar etxe batean kokatu zituen Maialen Kortabarria gai jartzaileak Agirre eta Sanchez. 12. gelako agurea berriro ez zen bere gelan, hala behar zuenean. Ohi duenez, gairako aproposak ziren izenak eta egoerak baliatzen jo zuen umorerako, eta asmatu zuen. "Agian, joango zen / Pilartxon gelara / eske beti izan da / pixka 't animada", azken puntuan kantatuta abiatu zuen ariketa Agirrek, eta izenen jolasari errimak larri hartuta jarraitu zion Sanchezek: "Hor dabil: 'Ene, lore / eta ene, lili'. / Eta non zaude oihuka / Pilartxo, Manoli". Bigarren bertsoan azken puntua moldatu beharra

izan zuen Agirrek aurrez pentsatutakoa neurrian sartzen ez zitzaiola ohartuta, eta, hala moduz, baina salbatu zuen. Atal horretan, azken ofizioa izango zuenaren azken bertsoan txukundu zuen hiriko erreferentzia ezaguna umorerako ekarrita: "Gauetan egoten da / ez al da arraro? / Jimmy Jazzean baino / ambiente gehiago".

Ordutik aurrerakoetan, bakarkakoetan eta sei puntuko motzean, behera egingo zuen, ur handiegitan igerian larri.

SAILKAPENA

1. Oihane Perea	616
2. Manex Agirre	606
3. Iñaki Viñaspre	411
4. Asier Otamendi	410,5
5. Ruben Sanchez	371
6. Jagoba Apaolaza	341

Jende asko joan zen artista gazteen erakusketaren inauguraziora

A.A. | BERGARA

Bergarako Aroztegi aretoa jendez bete zen Convergen5 erakusketaren inaugurazioan. Bost artista gazteren lanak batzen ditu erakusketak: Ander Barruso bergararrak gainera, Jon Solaun, Kristina Urizarbarrena, Laura Marchante eta Maider Montalban dira egileak.

Erakusketa zabalik izango da hil bukaerara arte.

Gazte asko ikusleen artean ere
Egileak oso pozik zeuden erakusketak eta inaugurazioak izan zuen erantzunarekin. Bost artista gazte izanda, ikusleen artean ere, gazte piloak gerturatu zen. Herriko zaleez gainera, artistak

Bilbo, Gasteiz eta Gordexolakoak izanda, kanpotar asko ikusi ahal izan zen inaugurazioan.

Bisitari gehienek azpimarratu zuten "erakusketa desberdina" dela, "originala" zela. Bearteko margolari dezente ere han ziren. Bi musikari bergarar disko-jartzaile ibili ziren, eta giro polita ipini zuen horrek. Aipatzekoa, Aroztegi ondotik pasatzen ziren herritar dezente aretoan sartu egin zirela barruko giroak erakarrita.

Koadro guztiek, artelan bat

Bost parte-hartzaileek Arte Ederak ikasten dihardute Bilbon. Artista bakoitzak lan egiteko metodologia edo teknika bat du,



Inaugurazioko une bat. | ARRITXU BARRUSO

eta hori errespetatu nahi izan dute erakusketan. Hala, akrilikoak, mistoak, collageak, akuarelak eta eskanografiak daude Aroztegin ikusgai. "Koadro guztiek batera artelan bat osatzen dute", esan digu Ander Barrusok.



Espaloiko agertokian, Ahotsak proiektuaren jaialdia amaitu ostean, bertaratutako guztiekin ateratako argazkia. | JOSETXO ARANTZABAL

Ahotsak proiektua, 10 urtez sutondoko transmisioa zabaltzen

Urteurreneko jaialdia egin zuten Espaloian proiektuan parte hartu duten pertsoneri eskerrak emateko

AMAIA TXINTXURRETA | ELGETA

Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzen ibili dira azkeneko 10 urtetan Ahotsak proiektuko kideak. *Ahotsak.com* webguneak ere 5 urte bete ditu dagoeneko. Hori guztia ospatzeko eta Ahotsak proiektuan parte hartu duten herritarrek eskertzeko, jaialdia egin zuten egubakoitzean Elgetako Espaloian. Webgune berria ere aurkeztu zuten eta komunitatearen atalean edozein pertsonak parte hartzeko aukera duela ere azaldu zuten. Espaloia jendez lepo betetzea lortu zuten jaialdiarekin.

Jaialdia

Mikel Laskurain aktore bergararrak gidatutako saioan, Ahotsak proiektua zer den azaldu eta transmisioaren garrantzia azpimarratzen zuen ikus-entzunezkoa jarri zuten lehenengo. Gero, Ahotsak-eko Asier Sarasuak hartu zuen hitza. Proiektuan parte hartu duten pertsona guztiak eskertu zituen eta "munduko lantalde onena" dutela ere esan zien Espaloira bertaratutakoiei.

Idoia Etxeberría Ahotsak-eko langileak, bestalde, azaldu zigun garai batean sutondoan egiten zen transmisioa orain ikasgela eta Internet bidez zabaltzen ari direla proiektuarekin.

Ikus-entzunezkoen bitartez, Ahotsak-en historia eta helburuak ere azaldu zituzten. Esan zuten euskara jasotzeko eta nagusien ahozko ondarea jasotzeko helburuarekin sortutako proiektu bat dela eta euskalkiak batzeka eta gordetzeko ere balio duela.

Oroigarriak

Dagoeneko zenduta dauden lekuko ahotsak ere entzun ziren Espaloian. Eta oroigarri bana ere jaso zuten proiektuan lagundutako lau kidek; hiztunik zaharrenei grabazioak egindako lau kidek, hain zuzen. Batetik, Jaione Isazelaia eta Iñaki Etxanizek oroigarria jaso zuten Anizeta Agirre osintxuarrari 1985ean egindako elkarriketarekin. Eta bestetik, Amurrioko Pilar Isasiri 1974an egindako grabaketa lortzearekin oroigarri bana jaso zuten Inazio Karrera eta Imanol Gartzia.



PATXI BAZTARRÍKA
EUSKO JAURLARITZA

"Zorionak ematea tokatzen da. Nahiko gertutik jarraitu dut proiektua eta benetan merezi duen proiektua da. 10 urterekin oraindik ibilbide luzea geratzen zaie egiteko, eta gainera, espero dut ondo egingo dutela".



ZIGOR ETXABURUA
FORU ALDUNDIA

"Jaialdi ederra eta hunkigarria izan da. Ahotsak sortu zen unearekin gogoratzen naiz eta orain ikustea Euskal herrian egindako lan guztia bilduta, euskaraz bizi den herria iruditzen ikustea, ikaragarria da. Poztekoa da".



JAIONE ISAZELAIA
OMENDUA

"Oso emozionantea izan da proiektua aurrera doala ikustea, itzela da. Osintxuko euskara jaso genuen Iñaki Etxaniz osintxuarrak eta biok eta lekukorik zaharrenaren testigantza jaso genuelako oroigarri bana eman digute".




INAZIO KARRERA
OMENDUA

"Badirudi guk eskuartean izandako grabazio bat zaharrenetarikoa dela eta eskertu nahi genuke Luiso Lopez Barandiokoa berari esker lortu genuelako grabazio hori duela 10 urte inguru".



IMANOL GARTZIA
OMENDUA

"Oso polita izan da jaialdia. Laburbildu du hainbat euskalzalek gure ondarea jasotzen egindako lana. Ezinbestekoa da euskara batua, baina euskalkiak ezagutzea ere garrantzitsua da euskara normalizatzeko".



MIKEL LASKURAIN
AURKEZLEA

"Bergaran gurasoen etxean bizi nintzenez pertsona nagusiz inguratuta egoten nintzen beti eta neuk ere asko edan dut lehengo kontuetatik. Horrelako testigantzak benetan gorde behar direla sentitzen dut".

Huhezinema lehiaketak 125 film labur jaso ditu edizio honetan

A.E./A.T. | ARETXABAETA

Amaitu da Huhezinemako lehiaketa ofizialean zein Mondragon Unibertsitateko ikasleen lehiaketan parte hartzeko deialdia eta dagoeneko aurkeztutako film laburren zenbaketa egin dute Huhezikoek. Hala, Movibeta online plataforman zein posta arruntaren bitartez jasotako lanak kontuan hartuta, guztira 125 film labur aurkeztu dira.

125 film labur

Huhezinemaren seigarren edizio honetan, beraz, 125 lan jaso dituzte. Horietatik 29, gainera, euskara hutsean ekoiztutakoak.

Guztira, lehiaketa ofizialean 110 film labur jaso dituzte; fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak, animaziozkoak eta genero nahasketak dituztenak.

MUko ikasleen lehiaketan, berriz, 15 film labur aurkeztu dituzte; fikziozkoak, dokumentalak eta bideoklipak.

Aurten 15 film labur jaso dituzte fisikoki; gainontzekoak, berriz, Movibeta online plataformaren bitartez.

Aukeraketa prozesua

Aurreko urteko markari eutsi dio aurtengoan lehiaketak eta Movibeta plataformak egileen artean duen arrakastari esker, Huhezinema jaialdia egonkortu egin dela esan daiteke.

Momentu honetan, jaialdiko antolatzaileak hautaketa prozesuan murgilduta dabilta eta laster prest izango dute film finalisten zerrenda. Ikasleen lan aukeratuen zerrenda hilaren 19an, hau da, bihar, martitzena argitaratuko dute.

Lehiaketa

Apirilaren 16tik 18ra bitartean izango da lehiaketa ofiziala eta bertan ikusi ahalko dira lanak, Aretxabaletako Arkupe kultura etxean.

'Hesiak Gainditzen' dokumentala aurkeztu du Txatxilipurdik

Dokumentalaren ideia duela urte eta erdi inguru sortu zen Txatxilipurdin. Asmoa, hizkuntzaren transmisioaren garrantzia azpimarratzeaz gain, euskarara hurbiltzeko eta euskara hurbiltzeko ahalegina egin zutenei eta egiten ari direnei esker ona adieraztea zen. Orain, dokumentala aurkeztu ari dira herrietan.



Atzo, domekan, Antzuolako Torresoroa antzokian egin zuten *Erlauntzaren sekretua*. | JOSETXO ARANTZABAL

'Erlauntzaren sekretua' ipuinak, antzuolarrak txunditu zituzten oraingoan

- ▶ Aretoa gainezka, artista txikien lanaz gozatzen
- ▶ 50 haur zeuden taularen gainean kantuan

A. ARANBURUZABALA | ANTZUOLA
Bergarako musika eskolak azaroan Bergarako Aroztegi aretoan estreinatu zuen naturak berba egiten zuen eta baserri giroan kokatutako *Erlauntzaren sekretua* ipuin musikatua. Bada, Antzuolako Torresoroan antzeztu zuten domekan.

Aretoko ateak zabandu aurretik, zain zegoen ikusleen ilara aintzat hartuta, nabaria zen herrian horrelako ikuskizun bat ikusteko ilusia. Gogo berezia zutenak, taularen gainean

zeuden Antzuolako ikasleak; beraientzako lehenengo aldia zen, ez zuten-eta Bergarakoetan parte hartu.

Kantuz kontaktutako ipuina

Josemari Iturralde idazleak idatzitako istorioa da eta David Azurtzarena da, berriz, musika. Haur txiki edo hastapenetako koruontzako idatzitako ipuina da honakoa; gehienbat, kantuz kontaktutakoa.

Eszenatokiaren erdian, istorio-riko izarra zen erlauntzaren

alde bietan banatuta, 50 neska-mutiko; txikienak 4 urte zituen eta 9, berriz, handienak. Eskuinertara, Marije Ugaldere, musika eskolako zuzendariaren gidaritzapean, talde instrumentala: Ane Zangitu, txeloan; Nekane Gabilondo flautan; Marijo Juaristi klarinetean eta Angel Agiriano akordeoiarekin. Guztiek, eskolako irakasleak. Ezkerretan, gehienbat kantuz kontaktutako istorioaren haria lotzen zuen Aitzol Mujika, ikasle baten aita, narratzaile lanetan.



ALAN PAYNE
PARTE-HARTZAILEA

"Gazta probatzen duen pertsonaia izan naiz ni. Urduri samar nengoen. Lagunek esan didate etortzekoak zirela. Iaz hasi nintzen musika eskolan; asko entseatu behar den arren, gustuko dut horrelako ikuskizunak egitea".



NAHIKARI PEÑAGARIKANO
PARTE-HARTZAILEA

"Ardiaren papera egitea egokitu zait; gustuko dut. Eztarria ez dut oso ondo, katarro pixka bat dudalako. Ilusia nuen herrian antzezteko. Ama etorri da ikustera eta grabatu egin du gainera, gero amamari-eta erakusteko".



ASIER INSAUSTI
GURASOA

"Ainhua alaba ikustera etorri naiz. Urduri samar zegoen, baina sekulako ilusioarekin, eskola barruan egindakoa jendarean erakusteko. Bergarako eskolara eramatea guretako lana da, baina duda barik, merezi du ahaleginak".



AMETS ORMAETXEA

Erabateko arrakasta Azpeitian

Zapatukoa hitzordu garrantzitsua zen, Azpeitiko San Jose jaialdia trikitilari munduan ekitaldi garrantzitsuen delako. Kepa Junkera, Eneko Dorronsoro... lehen mailako izenekin batera egon ziren Amets Ormaetxea eta Irati Gutierrez arrasatearrak. Beti erakutsi duten estilo gazte eta apurtzailea erakutsiz txalo ugari jaso zituzten.



IMANOL SORIANO

Punk gaua MCDren eskutik

Bilboko MCD eta Txabolakumeak taldeek kontzertua eskaini zuten zapatu gauean Arrasateko gaztetxean. Bilboko taldeak bere ibilbidean egindako abesti klasikoak jo zituzten, hala nola *Gernika*, *Barrenkalle*, *Barrio Blues* edo *Todo por nada* abestiak eta baita Rip talde arrasatearraren *Enamorado de la muerte*.



JOSETXO ARANTZABAL

Gaztetxeko ereserkia aurkeztuta

Bergarako Udal Musika Bandak emanaldia egin zuen atzo pilotalekuan eta bertan gaztetxeari egindako ereserkia aurkeztu zuen. Emanaldiaren lehenengo pieza izan zen eta ondoren, gaztetxeko kideek, egindako lana eskertzeko, bandako zuzendariari lore sorta eta gaztetxeko irudia zuen biniloa oparitu zioten.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Abadiño. Pisua salgai edo alokairuan Abadiño probalekuan; 3 logela, 3 balkoi, sukalde-jantokia, egongela handi bat, komuna eta ganbara. 615-71 12 40.

Abadiño. Matiena auzoan pisua salgai. Bizitza sartzeko moduan. Guztiz berriztatuta eta altzariz jantzia. 3 logela, igogailua, hegoaldera begira, denak kanpora ematen du, eta eguzkitsua. Zatoz ikustera, gustatuko zaizu. Prezioa: 199.000 euro. 688-86 18 78.

Abadiño. Pisua salgai/ alokairuan Muntzaraten. Sukalde-egongela, 3 logela, bainugela eta komuna, balkoi handia, igogailua eta berogailua. Garajea eta ganbara. Tel.: 94-681 68 91.

Arrasate. Apartamentua salgai erdigunean. Uharkape kalean. 53 metro koadro erabilgarri. Egongela-sukaldea, bainugela, logela bat, balkoia eta jantzi-gela. Igogailuarekin. Berokuntza individuala. Jantzita. Ondo zainduta. Bizitzera joateko prest. 130.000 euro. Garajea aukeran. 619 18 14 86 edo 665 74 82 43

Bastida. Pisua saldu edo egunetarako alokatu egiten da. Bastidan (Arabar Errioxa). Herriaren erdialdean kokatuta dago. 106m2koa eta 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta saloia dauka. Altzariekin geratzen da. 8-10 pertsonentzat alokatzen da 65 euro eguneko, pisu osoa. Arremanetan jartzeko 600-46 32 76 telefonora deitu. alejandrojosefina@gmail.com.

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Egoera ezin hobean. Tel: 647-77 73 92.

Durango. Pisua salgai Durango erdigunean (merkatu plazaren ondo-ondoa). Logela bi. Sukaldea eta egongela, bat eginda. Trasteleku. Kontsumo baxuko berogailua. 63 metro karratu inguru. Erreformekin. Etxe oso-osoak kanpora ematen du. Oso argitsua eta eguzkitsua. Lasaia eta polita. 130.000 euro (argazkiak iragarkilaburrak.com eta idealista.com-en). Tel.: 695-70 24 61.

Eibar. Etxea salgai Eibarren. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Berriztatze. Tel.: 94-655 05 53.

Eibar. Pisua salgai Arragueta kalean. Eraikitako 75m2 ditu. 3 logela, komun bat, sukaldea, egongela, despentsa eta bi balkoi ditu. Etxebizitza hirugarren solairuan dago. Eraikinak igogailua du eta orientazioa ipar-hegoaldekoa da. Arroparako esekitokia estalita dagoen patio batean dago. Kokapena eta komunikabideak oso onak dira. Tfnua. 656-78 60 97.

Elorrio. Elorrioren estreinatua gabeko etxe berria salgai. 2 bainugela, 3 logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trasteleku. Prezioa: 210.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Lurreta. Pisua salgai Lurretan. Maspe kalean. Tel.: 633-23 38 48 (Jon).

Lurreta. Pisua salgai Arriaundin, Lurretan. 66.000 euro. 685-72 80 42.

Mallabia. Pisua eguzkitsua, 3 logela handi, 2 komun, terraza, sukalde eta egongela. 112m2 azalera eraikitua. Aukera bikaina. Tel.: 695-77 31 41.

Zaldibar. Zaldibarren pisua salgai. 3 logela, komuna, egon-

gela, sukaldea biltegiarekin eta balkoia. Altzariz hornitua. 697-28 59 48.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, egongela-jantokia, bi komun eta trasteleku. Hilean 600 euro, komunitateko gastuak barne. 653-71 22 42.

Bergara. 80 m2ko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 680-33 36 36.

Durango. Pisua alokatzen dugu Durango. 2 logela, 2 komun eta 90 m2-ko terraza. Oso eguzkitsua. Telefonoa: 637-41 64 38.

Elorrio. Elorrioren apartamentua alokatu herri erdian. Logelabak, eguzkitsua, bizitza sartzeko prest. Tel.: 94-682 04 38.

Elorrio. Elorrioren estreinatua gabeko etxe berria alokatu. Bi bainugela, hiru logela, sukalde ekipatua eta 8 m2-ko trasteleku. Prezioa 650 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Eskoriatza. Etxebizitza errentan ematen da Eskoriatza erdian. Etxea berri da, hiru logela eta bi komuneko. 652-70 08 00, 620-50 08 49.

Santo domingo de la Calzada (Errioxa). Pisua berria alokatzen da Santo Domingo herri erdian. Ezkaraitik hurbil. Denboraldietarako. 2-4 pertsonentzako. 657-77 26 13.

104. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Bikotea pisu bila aramaion. Deitu zenbaki honetara: 620-15 13 11.

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Telefonoa: 634-41 90 51.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 667-36 09 39.

Bergara. Etxebizitza behar dugu errentan. Bi edo hiru logelakoa. 638-93 11 48.

Lurreta. Baserrira alokatu edo erosi genuke, lursailekin. Lurretan. Tel.: 647-44 40 57.

Durango. Pisua txikia alokatuko nuke. 500 euro inguru ordaintzeko prest. Tel.: 665-70 34 08.

105. ETXEA OSATU

Abadiño. Logela bat alokatu Muntzaratz auzoan. Komun pribatua, ikuspegi paregabea, argitsua eta oso merke. Tel.: 653-71 24 67.

Abadiño. Muntzaraten logela bat alokatzen da. Neska euskalduna bada, nahiago. 676-98 33 06.

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan erdigunean, Andra Mari auzunean. Telefonoa: 603-14 28 89.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Urbe auzoan (langilea ahal bada). Oscar: 616-39 11 43; Josean: 695-03 76 75; Luis: 653-29 74 63.

Arrasate. Etxea osatzeko logela ematen da errentan. 699-11 45 14.

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. 610-82 02 17.

Berriz. Berrizen logela bat alokatu. Erdi-erdian, tren geltokitik eta autobus paratetik minutu batera. Tel.: 615-75 21 36.

Bilbo. 2 neska euskaldun pisukide euskaldun langile baten bila dabilta. Etxea handia da: 3 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta balkoia. Altzariz

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00 arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarria egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galdtu
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: iragarkilaburrak.com



lbargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
• 150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.
• Zubieta 70 m², 3 logela. Oso ondo. 132.223€.
• Masterreka 73 m², 2 logela. Oso ondo. Igogailua.
• Aranerrika 84 m², 3 logela, trasteleku. Garajea aukeran. 150.000€.
• Barrenkalo 90 m², 3 logela. Erabat berriztua.
• San Pedro 70 m², 4 logela. Erabat berriztua. Garajea aukeran. 150.000€.
• Bolu 66 m², 2 logela. Trasteleku. Garajea aukeran. Oso ondo. 150.250€.
• Bidekuruzeta 65 m², 2 logela. Trasteleku. 120.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN.
• Zubietaurre 56 m², 2 logela. Igogailua, erabat berriztua. 135.000€.
• Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
• Koldo Eleizalde 74 m², 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ondo.
• Zabalategi 80 m², 3 logela. Igogailua. 154.760€.
• Azkarunzi 75 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243€.
• Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
• Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
• Ibarra 65 m², 3 logela. Berriztua. 150.000€.
• Artzamendi 70 m², 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
• Zubietaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
• Zabalategi 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA.
• Bidekuruzeta 147 m². Igogailuarekin. 135.000€. Prezio jeitsierarekin.
• Martzial Agirre 60 m², logela bat. Terraza eta trastelekuarekin. Garajea aukeran.
• Matxiategi 60 m², 2 logela. Igogailua. Erabat berriztua.
• Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoiekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
• Fraizkozuri 78 m², 3 logela. Balkoia, trasteleku eta garajearekin. 205.000€.
• Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trasteleku eta garajearekin. Oso ondo.
• Arrizuri 160 m², 4 logela. Igogailua, garajea. Oso ondo.
• Martko m², 4 logela. Berritua. Oso ondo. 225.000€.

ANTZUOLA:

• Behoko Auzoa 60 m², 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
• Errekalde 94 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
• Zurategi 83 m². Oso ondo. Prezio ondo.
• Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
• Buztinziuri, Sagasti, Antigua, Zurategi, Behoko auzoa, Ibarra auzoa, San Josepe, Aiera eta Errekalde. Etxe onak.

SORALAZTE:

• Sagaz Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:

• Domingo Iturbe 90 m², 4 logela, 126.212 €. Prezio jeitsierarekin.
• Torreade 77 m², 3 logela. Berritua. Oso ondo.
• Domingo Iturbe, adosatu 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

jantzita dago. Etxean sartzeko aukera apirilaren 1etik aurrera. Kostua: 400 euro hilean gastuak barne. Leku lasaia da, argitsua, 2. solairua. Interesatuta bazaudedeitu: 659-12 49 11 Janire.

Durango. Logela bat alokatu Durango. Ibaizabal auzoan. Komun pribatuarekin. 652-86 57 80.

Durango. Durango. Landako etorbidean, logelak alokatu. 607-68 64 02.

2. GARAJEAK

201. SALDU

Durango. Auto birako garaje-plaza itxia salgai Montevideo kalean. Tel.: 670-80 92 25.

Elorrio. Elorrioko Berrio-otxoa kalean garaje itxia saltzen da. Interesa baduzu eta informazio gehiago nahi baduzu, deitu! Tel.: 658-75 92 64.

Elorrio. Elorrioren Berrio-Otxoa kalean, garaje itxia salgai. 17.000 euro. Tel.: 634-45 72 01.

Elorrio. Garaje itxia salgai Elorrio erdialdean. Telefonoa: 660-45 87 56.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia errentan edo salgai Kontzezio kalean, Iturbide egoitza parean. 15 metrokoa. Deitu 94377 08 02

edo 628 14 92 74 telefono zenbakietara.

Arrasate. Uarkapen garaje itxia ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 680 77 64 05

Bergara. Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 943 76 06 60

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Oñatin, Errekalde auzoko 45 zenbakian inguruan, garaje bat hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 950 27 05 78

Oñatin. Kalegoien garajea hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu ezazue telefono zenbaki honetara 653 71 04 56

3. LOKALAK

301. SALDU

BERGARA

Martxan dagoen kristaldegia eskualdatzen da. 772 35 04 35

Gasteiz. Azken erabilera: Tailer mekanikoa. Garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariak eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urriko pertsonen moldatua. Hiri erdiguneko komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzera ere posible da: 800 euro/hil. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate. Basolanak egingo nituzke. Basoak garbitu zein baserri edo lorategietan. Javier. 690-38 16 98.

Arrasate. Neska gertu lan egiteko egun osoz, orduka, gauetan zein asteburuetan. Sukaldea, tabernatan, nagudi edo umeak zaintzen eta abar. Esperientziaduna. Telefonoa: 645-58 71 61.

Arrasate. Mutila lanerako gertu. Eskarmentua dut kontabilitatean, nagusien zaintzan etxean bertan bizizaten, edota gidari lanetan. Baina bestelako edozer lan egiteko ere gertu nengo. Autoa daukat. 654-71 78 18.

Arrasate. Mutila gertu tabernan laguntzen edo nagusiak zaintzen lan egiteko. Esperientziaduna. 662-08 22 03.

Arrasate. Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko emakumea prest. Telefonoa: 649-52 86 54.

Arrasate. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia eta erreferentziak. 634-28 16 34.

Arrasate. Bertako emakumea, 54 urtekoa, nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna. Telefonoa: 943-79 60 89.

Arrasate. Gizonezkoa edozein lan egiteko gertu debagoienan. 636-60 48 51.

Arrasate. Neska gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanetan jarduteko. Erreferentziaduna. 674-53 60 59.

Arrasate. Neska arduratsua geru garbitasun lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 629-80 77 73.

Arrasate. Neska nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten edo bestela. Geriatria ikasketak, gidabaimena eta erreferentzia onak ditut. Danni. 680-87 38 66.

Arrasate. Emakumea nagusiak zaindu eta garbitasun lanetarako gertu. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. 637-07 23 70.

Arrasate. Neska gertu lanerako: umeak edo nagusiak zaintzen eta atari garbiketarako egiten. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 617-64 08 48.

Arrasate. Neska gertu lanerako. Esperientzia daukat nagusiak eta umeak zaintzen edota atari eta abarren garbiketan. 617-64 08 48.

Arrasate. Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko papearak eguneratuta daukat. 636-80 87 68.

Bergara. Antzuola edo Zumarraga. Bikotea, esperientziaduna eta erreferentziaduna, garbiketarako eiteko gertu: atari, bulego, taberna, elkarre eta abarrak. Merke.

Orduetegi arazo barik. 634-91 81 73, 943-76 66 24.

Bergara. Bergarako emakumea gertu gauetan emakumeak zaintzeko. 665-75 41 32.

Bergara. Edo Arrasate. Neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia. Gauak egiteko gertu nengo. Baita etxean bizi izaten, egunez zein orduka lan egiteko ere. Legezko paperekin. 674-93 20 47.

Bergara. 19 urteko mutil euskalduna ostiral arratsalde, astebukera eta jaiegunetan zerbitzari lanetan aritzeko prest. Esperientziaduna. 627-36 83 70.

Bergara. Emakumea prest goizez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Telefonoa: 649-52 86 54.

Debagoiena. Neska lan bila dabil. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Gaez, etxean bertan, orduka... Garbiketarako egiteko ere gertu. Telefonoa: 617-64 08 48.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaindu, etxeko lanetan, lantegian zein jatetxean. 647-10 58 72 / 943-79 96 25.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Nagusiak edo umeak zaindu, etxeko lanekin, sukaldatu... Letitia. Telefonoa: 632-08 76 19.

Debagoiena. Erizain titulua daukan neska lan egiteko gertu. Gauean edo egunean zehar ospitalean edo etxean nagusiak zaintzeko gertu. 688-80 27 01 / 943-25 02 96.

Debagoiena. Eritzaintza laguntzaile tituludun neska etxean laguntzen jarduteko gertu. 686-40 42 03.

Debagoiena. Neskatila baten-tzako frantses irakasle bat behar dugu, zerotik hasteko. 634-43 80 66.

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko gertu, garbiketarako orduka egiteko edo nagusiekin egon eta pasioan laguntzeko. Telefonoa: 695-73 87 95 / 943-71 53 74.

Debagoiena. Neska gertu sukalde laguntzaile edo garbiketarako lanetan jarduteko. Baita nagusiak zaintzeko ere. Etxean bertan bizi izaten ere bai. 660-21 97 46.

Debagoiena. Mutila gertu makanikari lanak egiteko. Baita igeltsu, margolari eta berritze lanak egiteko ere. Telefonoa: 691-79 53 34.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu eta garbitasun lanetan. Etxean bertan bizi izaten

Debagoiena. Mutil arduratsua, legeko paperekin, lanerako gertu: igeltsari edo nekazaritza laguntzaile, zerbitzari zein nagusiak zaintzen. Gidabaimena eta autoa daukat. 648-75 24 96.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630-2012 03.

Debagoiena. Neska gertu supermerkatuetan lan egiteko edo etxean laguntzeko. Jate-txeetan ere bai, laguntzaile gisa. 630-2012 03.

Debagoiena. Eraikuntzan, garbiketan zein mekanika lanetarako gertu nago. 671-267474.

Debagoiena. Mutil arduratsua prest edozein motatako lan egiteko; eskarmentua daukat eta orduka ere izan daiteke. Tel.: 633-28 81 24.

Debagoiena. Neska gertu lanerako: nagusi edo umeak zaintzen, sukalde laguntzaile edo garbitasun lanetan. 697-146102.

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Sukaldaritza eta geriatriko oinarriko ikasketak ditut. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizitzeko gertu. 615-06 28 04.

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu: nagusi zein umeak zaintzen eta garbiketa lanetan. 679-30 65 28.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko garbitasunak egiteko, orduka. Maite. 650-17 74 87, 943-76 48 26.

Debagoiena. Mutila gertu igeltsari edo peoi lan egiteko. Baita nagusiak zaintzeko ere. 602-04 44 58.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusi eta umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizitzeko. 678-98 54 64.

Debagoiena. Neska arduratsua orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperekin eguneratuta daukat. 636-80 87 68.

Debagoiena. Neska lan egite-

ko gertu, arratsalde, gauze edo astebukaretan. Pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 630-99 11 85.

Debagoiena. 8 urteko eskarmentua duen neska nagusiak zaintzeko gertu. Legezko paperekin ditut. Egun osoz, orduka zein etxean bertan bizitzeko jardun dezaket. 688-38 07 46.

Debagoiena. Gizona gertu lanerako. Nagusiak zaintzen, etxean bertan bizitzeko edo bestela, egun osoz. 602-0712 06.

Debagoiena. Garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Gauetan ere bai. 636-47 64 92.

Debagoiena. Emakumea gertu lanerako: nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. 672-96 08 22.

Debagoiena. Sukaldari esperientziaduna lanerako gertu: menuak, pintxoak edo bestela. Sukaldaritza ikasketekin eta urte askoan lanean aritutakoa. Aurel. 666-83 21 95.

Durangaldea. Neska gaztea Durangaldekoko denda eta tabernatan lan egiteko prest. Tel.: 600-66 64 17.

Durangaldea. Ume zein nagusiak zaintzeko, garbiketan edo sukaldari laguntzaile lez aritzeko lan bila Durangaldean. Tel.: 631-03 48 12.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lan egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Egunez edo orduka. Bizileku-baimenarekin. Tel.: 686-19 00 24.

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko, garbiketan zein sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest. 680-54 48 62.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko 24 orduz edo egunez, zerbitzari lanetan, sukaldeko laguntzaile edo etxeko lanetan aritzeko lan bila. Tel.: 602-65 39 64.

Durangaldea. Bikote bat lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen zein etxeko lanetan. Gidatzeko baime-

narekin. Tel.: 697-6648 18 (Roni) //659-169377 (Hilda)

Durangaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziaduna lan bila. Pertsona nagusien zaintzan 24 orduz edo egunez, sukaldeko laguntzaile edo garbiketan orduka. Tel.: 608-6590 55 // 602-80 83 85 (Nieves)

Durangaldea. Abadinoko 33 urteko neska euskalduna etxeak garbitzeko, plantxa egiteko edo pertsonak zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat. Tel.: 658-73 80 48 (Saioa).

Durangaldea. Nagusiak zein umeak edo etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 608-2718 73.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaindu edo garbiketan aritzeko prest. 30 urteko neska, erreferentziak onak. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 697-93 85 65 (Rosemary Alvarez).

Durangaldea. Etxeko lanak egiteko lan bila. 24 orduz, egunez edo orduka. Esperientziarekin eta erreferentziak in. Tel.: 651-34 12 38.

Durangaldea. Pertsona nagusien zein umeen zaintzan edo garbiketan lan bila. 24 orduz edo egunez. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Neska arduratsua umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Tel.: 632-40 16 40.

Durangaldea. Lanaldi erdiko edo osoko lan bila nabil, bai nagusiak zaintzen bai garbiketan. Erreferentziak in. Martxoaren 10etik aurrera lan egiteko prest. Tel.: 650-61 01 94.

Durangaldea. Garbiketan zein zaintzan lan egiteko prest. Edozein lanalditan. Tel.: 632-72 43 23.

Durangaldea. Emakume arduratsua eta erreferentziak in etxeko lanak egiteko prest. 24 orduz edo egunez. Tel.: 659-16 93 77.

Durangaldea. Neska arduratsua eta esperientziaduna, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketan aritzeko prest. Erreferentziak in eta paperekin egunean. Tel.: 638-72 64 34.

Durangaldea. Garbiketan zein pertsona nagusien zaintzan lan bila. Orduka. Tel.: 616-32 73 32.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila. 620-16 14 96.

Durangaldea. Asteburuetan zein astean zehar pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketarako prest. Tel.: 631-26 28 68.

Durangaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz edo egunez. Tel.: 632-32 07 27.

Durangaldea. Emakumea umeak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez. Paperak araututa. Tel.: 629-18 02 71.

Durangaldea. Asteburuetan, gauze zein orduka nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 634-00 82 22.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko, garbitzaile lanak egiteko, sukaldari laguntzaile edo beste edozein lan egiteko prest. Bizileku- baimenarekin. 636-44 59 01.

Durangaldea. Garbiketan aritzeko (tabernak, etxeak, portaleak) zein pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 653-29 86 17.

Durangaldea. Itzulpenak, zuzenketak, azpititulak eta edonolako hizkuntza zerbitzuak eskaintzen ditut. Euskara, ingelesa, frantsesa, gaztelania... Arlo guztietako testuak: ostalaritza, ikasleak, enpresak, komertzioak... Bideoentzako azpititulak sortzen ditut: korporatiboak, iragarkiak, filmak, bideo klipak, dokumentalak, albisteak, internetekoak... info@eleanitz.eu

Durangaldea. Kontsulta psikologikoak. Helduak - bikote arazoak, banaketak, antsietatea. 656-72 30 21.

Durangaldea. Tabernetan garbiketa lanak egiteko prest. Eta bestelako lanak egiteko ere bai. Tel.: 647-24 23 01 (Markel).

Durangaldea. Ilea-paintzaile laguntzaile Durangaldekoko ilea-paindegiatan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 672-69 91 52.

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketan edo baserrien mantentzean lan bila nabil. Tel.: 638-37 36 79.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak (taberna, portaleak, etxeak...) egiteko prest. 24 orduz edo egunez. Tel.: 648-20 03 70.

Durangaldea. Biltegiatan ganadua zaintzen, igeltsero, lorezain zein mendian lan egiteko prest. 638-32 03 45.

Durangaldea. Pertsona nagusiak zaintzen, etxe zaintzan, lorezain... Edozertan lan egiteko prest. 24 orduz zein egunez, baita asteburuetan ere. Erreferentziak pertsonak zaintzen. Tel.: 632-37 28 87 (Julian).

Durangaldea. Gazte arduratsua lan bila. Abeltzaintzan, baserrietan, mendian edo igeltsero lanetan. Tel.: 631-20 42 37.

Durangaldea. Gaztea lan bila. Nagusien zaintzan, paleta laguntzaile aurreratu legez, edo antzeko lanetan baterako. 697-66 48 18.

Durangaldea. Edozein motatako lana egiteko prest nago. Pertsona nagusiak zaintzeko, baserrian, mendian (sasiak garbitzeko lanetan...) edo garraio lanetan. 632-63 55 40.

Durangaldea. Lan bila nabil, pertsona nagusiak zein umeak zaintzen, garbiketan edo sukaldeko laguntzaile. Erreferentziak onekin. Tel.: 638-43 79 01.

Durangaldea. Astean behin, garbiketa (portaleak, tabernak...) egiteko edo lanaldi erdian umeak zaintzeko lan bila nabil. Tel.: 619-67 60 44.

Durangaldea. Esperientziadun eta tituladun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila. Tel.: 695-48 89 95.

Durangaldea. Gizon arduratsua edozertan lan egiteko prest. 653-29 86 17.

Durangaldea. Gaueko txandan edo goizez pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 673-68 97 69.

Durangaldea. Neska euskalduna, esperientzia eta titulazioarekin, umeak zaintzeko prest. 662-36 41 67.

Durangaldea. Esperientziadun neska pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Erreferentziak in. Tel.: 697-12 64 38.

Durangaldea. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil. 24 orduz, egunez edo orduka. Tel.: 602-14 79 35.

Durangaldea. Pertsona nagusien zaintzan lan bila nabil. Arratsaldetan, gauetan eta asteburuetan. Erreferentziaduna. Tel.: 618-46 00 07.

Durangaldea. Gazte arduratsua pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. 24 orduz edo egunez, baita orduka ere. Lehenbailehen hasteko prest. 638-32 03 45.

Durango. Kontsulta psikologiko-ikaske eta teknikoak, ulermen-irakurketa-idazketa arazoak, hiperaktibitatea, antsietatea. 679-38 23 69.

Durango. Euskal jantziak, arropa konponketak, gortinak... egiten ditut. Tel.: 675-70 72 75.

Lemoa. Pertsona bereziak, gaixoak, pertsona helduak eta ospitaleetan zaintzeko prest. Sociosanitaria titulua, esperientzia, euskaraz, deitu konpromisugabe. Tel.: 656-71 92 81 (Pili)

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Frantsesa. Neskatila batentzako frantses irakasle bat behar dugu, zertatik hasteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 634 43 80 66

502. EMAN

Durango. Klase partikularrak, ikas teknikak: erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloak; LH, DBH eta batxilergoa. 656-79 15 99.

Durango. Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest. Astean zehar eta baita asteburuetan ere. Esperientzia handikoa. Tel.: 653-71 24 60.

Durango. Irakaskuntzan esperientzia duen gazte euskaldun diplomatua, lehenengo eta bigarren hezkuntzan partikularrak emateko prest. 675-00 79 19 egorrono@gmail.com

Durango. Esperientziadun eta hizkuntza eskolako tituladun ingeles irakaslea naiz. Klase partikularrak ematen ditut, bakarka edo taldeka (talde txikiak). Maila guztiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, 637-29 24 65 telefonora deitu.

Durangaldea. Neska euskalduna batxilergoduna eta administrazioan titulatu eskola partikularrak emateko prest. Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoa. 662-36 41 67.

Durangaldea. Esperientziadun irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, bakarka edo taldeka. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 615-73 53 85 telefono zenbakira edota idatzi birixi@gmail.com helbidera.

Erefortzu klaseak. Magisteritza ikasketak dituen neska euskalduna prest logke bakar-kako erefortzu klaseak emateko, ormaiztegin. Esperientziaduna. Telefono zenbaki honetara deitu: 696-59 78 78.

Elorrio. Haur hezkuntza eta hezkuntza berezia eginak dituen eta udalekutan lanean esperientzia duen neska gazte euskalduna, arratsalde haurak zaindu eta eskolako lanekin laguntzeko prest. Urteak daramatzat honetan eta haurrekin oso ongi moldatzen naiz! Interesa baduzu, deitu: 688-64 06 04.

Kimikari euskalduna eskola partikularrak emateko prest. Kimikan lizentziatutako neska gazte arduratsua eta ikasle bikaina izandakoa Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, batxilergo nahiz unibertsitate mailako eskola partikularrak

eta osagarriak ematen ditu. Arreta pertsonalizatua eta ordutegi zabala. Informazio gehiagorako jarri harremanetan edutxo@hotmail.com helbide elektronikoa edo 635-20 85 33 telefonora.

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana salgai. Ohe handi bi eta salaio. 8 urte. Gara-je handia. 2.300 euro. Tel.: 653-71 23 21.

BMW e30 salgai. BMW E30 318i bat saltzen dut. Kotxeak 18.000 km ditu eta beltza da. Zerbait aldatzea egin dizkiot: kirol ihes-hodia, errodamendu berriak, pneumatiko berriak. Gainerako guztia seriez etorri bezala dago. Prezioa 1500 euro da eta «piña momo» bat ematen dut opari. Saltzeko arrazoia erabiltzen ez dudalako da. Telefono zenbakia: 688-61 45 88.

Daf 55.250 kamioia salgai. Daf 55.250 garabi kamioia salgai. 2002. Urtekoa. 600.000 km eta egoera onean. Oraindik erabilgarri. P. M. A.: 15.000 kg. Kargatu daitezkeen gehieneko pisua: 7400 kg. Tel.: 699-99 85 10. Telefonoa: 659-42 58 90. aotxotorena@yahoo.es.

Furgoneta salgai. Mercedes Viano fun furgoneta luzea salgai. Kristal tindatuak. Bizikletak eramateko. Mahai eta ohearekin. 6 lagunentzako lekua. Oso egoera onean. Zatoz ikustera! 615-00 72 16

Furgoneta salgai. VW California furgoneta salgai. 2500 cc. Tdi 102 cv. Tel.: 656-76 46 73.

Honda Hornet cb 600 motorra salgai. Honda Hornet cb 600 motor horia salgai. 2008. urtekoa. 10.200 km. Bi jaka (Alpinestar L tamaina eta Levior M tamaina), hiru kasko (Hebo L tamaina, Lem S eta M tamainak) eta eskularru pare bat oparitzen ditut. Prezioa: 5.600 euro. Informazio gehiagorako, deitu konpromiso barik. Tel.: 629-45 52 41.

Karabana. 6 plaza-koa. Egoera onean. Extra askorekin. Ez du matrikula gorri beharrik. Jon. 670-49 83 62, 685-75 29 17.

Karabana salgai. 4-5 plaza-dun Roller karabana salgai. Egoera eta prezio onean. Tel.: 679-31 00 83.

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntz eta aumak salgai. Ahuntz eta aumak salgai. 695-71 00 68.

703. EMAN

Katuak opari. 2012ko utzileko katu txikiak opari. 660-92 70 71.

Pointer txakur umea oparitzen da. Pointer txakur umea, 3 urtekoa, zuri-beltza, oso oso polita, kumeak egiteko aproposa oparitzen da. 616-91 90 61.

Txakurkumeak opari. Arratoi-txakurkume bat eta artzain-txakurkume bat ematen dira opari. Interesatuak deitu telefono honetara: 685-75 86 49.

Txakurkumeak opari. Txakurkumeak oparitzen ditut. Hilabete bat dute. Arra edo umea. Telefono zenbakia honetara deitu: 648-63 58 06.

Txakurra opari. "Bodegero Andaluz" arrazako txakurra emango nuke opari. Emea. 600 05 50 74

704. BESTELAKOAK

Ninfa txoria galdu. Ninfa txoria galdu dut Oñatiko Errekalde auzoan. Gorputza gris eta zuria dauka eta aurpegia zuria. Aurkitzen baduzu deitu telefono zenbaki hauetara, mesedez. 943 78 26 07 edo 610 81 99 31

8. DENETARIK

801. SALDU

Aulkiak eta mahaia salgai. Tabernetako terrazetako mahaia eta aulkiak saltzen ditut. Prezio ekonomikoa. 691-78 86 31.

Bernedo. Lursail eraikigarria Urturin salgai dago, bernedon. Gasteizetik 40 km-tara dago, eta Izkiko golfetik 3 minututara baino ez. 308m2 eraikitzea posible da, 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditut; baita golfeko hotela ere. Telefonoa: 665-75 78 07 (Ana) emaila: ana.vitoria.gasteiz@gmail.com

Bolibar. 400m2-ko lur sail bat salgai Bolibar-en. Herri ondoan. Tel.: 660-35 80 67.

Dekorazio aldizkariak salgai. Dekorazio aldizkariak salgai. Ia debalde. Tel.: 695-70 62 27.

Furgonetako ohea salgai. Furgonetako ohea salgai. Volkswagen t5-eko ohea salgai, koltxoi eta izarekin. Egoera onean. Prezioa: 300 euro. Tel.: 669-10 43 22 (Igor). igor.anitxu@gmail.com.

Izotza egiteko gailua salgai. Izotza egiteko gailua salgai. Oso prezio ekonomikoa. 691-78 86 31.

Kanpadenda salgai. Marechal markako kanpadenda salgai. Behin bakarrik erabilia. 4 pertsonarentzat. Aukera ezin hobea! 100 euro. Tel.: 615-00 72 16.

Maxi cosiarene zaku saltzen da. Maxi cosiarene zaku saltzen da. Zaku erabili gabe dago. Marca: kid zone, urdin iluna da. Posta: yolandahospitala@gmail.com.

Ostalaritzako materiala salgai. Negozioa ixten delako, ostalaritzako materiala salgai. Edalontziak, mota guztiakoko platerak, mahai-tresnak, makina erregistratzailea, lanparak, aulkiak... Dena egoera onean, oso gutxitan erabiliak. 674-96 03 64.

Quinny freestyle XL (silla+kapazoa). Quinny freestyle xl. Kapazoa (gris iluna) berria da eta silla (beltza) oso egoera onean dago. Sillak lau posizio ditu eta posizio batean erabat etzaten da. Silla bi norantzan jarri daiteke, haurra zuri begira dogalea edo aurrera begira. Gehigarriak: euritik babesteko plastikoa. 350 euro. Harremanetarako: 660-25 25 13 (Ana)

Sofa salgai. 3 plaza-koa sofa salgai. Chaise longuearekin. Oso ondo zaindua. Interesatuak deitu: 615-00 72 16.

Taxi lizentzia. Taxi lizentzia salgai Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 617 42 97 45

Umeentzeko buzo bat saltzen da. Umeentzeko buzo bat saltzen da, neguko da. Kolorea urdin argia da. Erabili gabe dago. Marca: mayoral new born. 3m, 62 cm yolandahospitala@gmail.com.

Vaporeto unitekno c101 saltzen da. Vaporeto unitekno c101 saltzen da, estreinatzeko dago. Opari bat izan zen, ez dut inoiz erabili. yolandahospitala@gmail.com.

802. EROSI

Aramaio. Lursaila erosiko nuke Aramaio. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara 615 79 17 07 eta Naiararengatik galdetu

Bizikleta bat nahi dut. Errepidean ibiltzeko bizikleta gura dut. Zaharra eta merkea bada berria eta karua baino hobea. Tel.: 94-648 14 15.

Elurretarako erraketak. Elurretako erraketak erosiko nituzke. Salgai badituzu deitu telefono zenbaki honetara 655 71 41 24

803. EMAN

Bidali zure ordenagailua Peru eta Boliviara. Hondatuta, zaharra edo zaborretara bota behar baduzu, nik jaso, konpondu eta kabinararen bitartez bialduko dugu Bolivia eta Peruko eskoletara. Tel.: 655-71 76 66.

804. HARTU

Sukaldeak janzteko materiala behar dugu. Onatiko gaztetxean sukalde herrikoia egiteko asmoa daukagu. Horretarako, edalontzi eta plateretatik hasi, eta sukalea lortzeraino, esker onez jasoko ditugu era guztietako tresna, gailu eta aparatuek. Materialen bat emateko baduzu deitu zenbaki honetara: 688 68

Ez da iPhoneerako Firefox bertsiorik egongo, "inoiz ez"

- Mozilla Applek garatzaileekin duen jarrera itxiaren aurka dago
- Aurten merkaturatuko dira Firefox OS darabilten lehen mugikorrak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Mozillak -Firefox garatzen duen erakundea- betidanik agertu ditu Appleren politikekin desadostasunak, ez baitaie gustatzen haiek garatzaileekin duten jarrera. Erabat baztertu dute Appleren sistema eragilearentzat Firefoxen bertsiorik ateratzea; ez orain, ezta etorkizunean ere.

Aspaldiko borroka

Munduan, dispositibo mota guztiak kontuan hartuta, Appleren Safari nabigatzailea da erabiliena eta posizio horrek baldintzaile izateko indarra ematen dio sagartxoaren konpainiari. Applek ez du uzten javascriptik erabiltzen, ezta renderizazio motor ezberdinik baimentzen. Appleren baldintzak oso zorrotzak dira eta kanpoko garatzaileei ez diete teknologikoki gailentzen uzten, haien garapen aurrean. Hala, Jay Sullivan Mozillako presidenteordeak argi eta garbi adierazi ditu asmoak,



iPhone zahar bat, Firefoxen logoarekin. | ELMUNDO

garatzaileen aurrean egindako berbaldi baten.

Joko eremu berriak

Mozilla erakundetik, baina, euren joko eremua ere garbi zehazten hasi dira eta jakina da 18 tele-

komunikazio operadoreekin hitzarmena sinatuta daukatela, Telefonicarekin barne, sistema eragile propioa sustatzeko helburuarekin. Aurten aterako dituzte Firefox sistemadun lehen mugikorrak.

Blackberry merkatutik kanpo eta 12 orduko bateria, iragarrita

JON BEREZIBAR | ARRASATE

TechAhead webgune espezializatua 2013ko iragarpenekin ausartu da. Telefoniaren alorra hartu eta aurten gertatuko direnak azaldu dituzte. Lehenik eta behin, 10 megapixel dauzkan kameradun iPhonea merkaturatuko dutela diote. Bateriaen iraupenari dagokionez, 12 orduko aterako da aurten. Sei hazbeteko mugikor ugari etorriko ei dira aurten, aditu horien arabera, eta, era berean, munduan 1.500 milioi terminalatik gora egongo direla aurreikusi dute.

Arriskuak

Arriskuez ere hitz egin dute, eta, antza, 2013 *malware*-aren

urtea izango da, eta baita mugikor bitartez egindako ordainketena ere. Mugikorrari erabilpen berriak aurreikusi dizkiote eta diote telefonoak telebistako kontrol moduan erabiltzen hasiko garela aurten. Albiste txarrean RIM konpainiarentzat daukate, *TechAhead*-ekoen arabera merkatutik kanpo gertatuko baita Blackberry. Honen harira, diote 2013an telefono adimendun salmenta kopurua tradizionalena baino handiago izango dela. Iragarpen guztietatik, bateriaren iraupenean izango diren aurrerapenak ia errealitate dira modelo berrienetan.



Blackberrarekin egindako irudikapena. | GOOGLE



GOOGLE

Googleren zapatila berritsuak

Objektuei bizia ematen tematuta dago Google. Errealitate areagotudun betaurrekoen proiektuari buruz xehetasun gehiago ezagutuaz bat, orain zapatila "areagotuak" aurkeztu dituzte. *Google Talking Shoes* prototipoa da eta erabiltzailearen jardura fisikoa erregistratu eta zenbatu egiten du, animo mezuak emateko.

WhatsApp berretsi egin ditu erabilera baldintzak, aste nahasia izan ostean

J.B. | ARRASATE

Azken bi asteetan zurrumurruak eta informazio nahasgarria zabaldu eta gero, webgunean baldintza ofizialak argitaratu dituzte azkenean. Android erabiltzaileek, deskarga egindakoan, urtebeteko probatarako lizentzia izango dute, iragarri zen moduan. Epe horren ostean, ordaindu egin beharko da apli-

kazioa. Lizentzia hori urtero ordaindu beharrekoa dela ere zehazten da, eta horrek areagotu egin du erabiltzaileen haserrea, iPhoneko erabiltzaileek aplikazioarengatik behin ordainduta bizitza osorako lizentzia eskuratzen baitute, gainontzeko sistema eragileetan ez bezala. Aldaketarik ez da egon, hortaz.

Samsung S4, begiekin kontrola daitekeena, apirilean salgai

J.B. | ARRASATE

iPhoneari aurre hartzeko moduko aukera eskuragarriak eskaintzen jarraitzen du Samsungek Galaxy gamarekin. Hain zuzen, Applek Samsungekin batera alorreko irabazien %99 hartzen du; lehiakide zuzenak dira, beraz.

Aukera berriak

Galaxy S4 modeloa da berriki aurkeztu dutena, apiril amaieran salgai ipiniko dutena. Goi gamako telefonoa da eta prezio aldetik ere goi maila horretan ibiliko da, 500 eta 700 euroren artean. Galaxy S IIIren diseinu oso antzerakoa dauka modelo berriak eta, nagusiki, aldaketak software-an

datoz. Pantaila, hala ere, handixeago da, ia 5 hazbeteko zabalarekin eta *Full HD* erresoluzioarekin. Handiagoa izanik ere, arinagoa da, 8 milimetroko sendoera baitauka telefono berriak, eta 130 gramoko pisua.

Alderik handiena, ordea, barnean dakar terminal berriak. 1,7 Ghz-ko prozesatzailearekin, *on line* zerbitzuetan eta softwarearen kudeaketarako gaitasunean azkartasuna bermatzen da. Pantaila ukitu barik, gainera, kontrola daiteke mugikorra, begien mugimendua jarrai baitezake telefono honek, baita ere, esate baterako, pantaila itzali, erabiltzaileak begirada gainetik kentzen dionean.



Samsung S4 telefonoa. | ARGAZKILARIAXXX

Google Reader uztailaren lehen itxiko dute behin betiko

J.B. | ARRASATE

RSSak irakurtzeko zerbitzu erabilienetako bat amaituko du Googlek hilabete gutxi barru. Zerbitzua etenda ere, jakiteke dago APIaren etorkizuna zein izango den. Zerbitzu eskaintza zabalegia zuen Googlek, bakar sendo eta zabal batzuk eskaini beharrean; hortik, azken urteetako zenbait porroten arrazoietakoa bat, eta zerbitzu horietako asko itxen joan da bilaketen handikia. Ezustean, Google Reader RSS irakurgailua (albiste eta webguneetara harpidetu eta jarraipena egiteko zerbitzua) uztailaren lehenean etengo dutela iragarri dute. RSSak irakurtzeko tresna erabilienetako bat da Google Reader, agian erabiliena, eta, horregatik, harri-garria izan da zerbitzua amaituko duten iragarpena.

Edozelan ere, APIarekin zer egingo duten ez dute argitu, oraingoz, eta, etenda ere, zerbitzuaren bitartez eta hiru-garren aplikazio batekin irakurtzeko bidea egongo dela ematen du.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Tximinia 2.0

Twitter, Facebook, *Goiena.net*, *cnn.com*... Azken orduko berriak jasotzeko mila aukera ezberdin ditugun aro berri honetan zer eta ordubetez tximinia eta balkoi bati begira! Hori bai panorama!

2.0 munduan gutxien erratu dena Twitter izan da, batean txori urdin baten txorrotzioak ageri direlako eta konklobean espiritu santuaren txorrotzio-tik irten delako aita santu berria. Ezagutzen nauenak ez du ongi ulertuko baina niri aita santu baten hautaketa jarraitzea gustatzen zait, gainera, asteazkenekoak inoiz baino jarraipen handiago izan du. Aurten gainera, konklobearen ia lehen unera arte ikusi ditugu kardinalak telebista bitartez. Hurrengo konklobean bide beretik jarraituz gero, ziur Mercedes Milak aurkeztuko duela! Eta Nina izango da kardinal eskolako zuzendaria.

Azken gomendio bat aita santu berriari, famatu egiteko jendea agurtu beharrean, balkoitik igerileku batera salto egin eta listo!

P.D: Bergoglio ez zen nire favoritoa eta egin beharko duen lan guztiagatik hemen nire *Mordor et orbi* (Arrasateetik mundura) bedeinkapena.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 18



Ahotsak

Egubakoitzean Elgetako Espaloian egin zen Ahotsak proiektuaren jaialdia berba-gai. | 20:15

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:17 Onein
- 13:37 Laino arteko plana
- 14:02 Ekogune
- 14:27 Ikusmira
- 14:43 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Zorion Agurrak
- 15:18 AsteON
- 15:58 Korrika 18
- 16:28 Zorion Agurrak
- 16:33 Berriak
- 16:58 Eguraldia
- 17:01 Ur eta lur
- 17:37 Ekogune
- 18:07 Bizitegia
- 18:37 Hitzlandia
- 18:59 Korrika 18
- 19:29 Beranduegi.tv
- 19:49 Zorion Agurrak
- 19:53 Berriak
- 20:13 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 20:58 Gurean gaur
- 21:27 AsteON
- 21:57 Harmailatik
- 22:42 Korrika 18
- 23:12 Berriak
- 23:32 Eguraldia
- 23:35 Magazinea
- 00:20 Berriak
- 00:40 Eguraldia

MARTITZENA, 19



Albistegia

Eguneko bailarako albistekak jasotzeko aukera izango duzue Monika Belastegiren eskutik. | 14:45

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:22 Harmailatik
- 14:07 Ekogune
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:07 Eguraldia
- 15:10 Harmailatik
- 15:55 Korrika 18
- 16:25 Gabiriako Rallysprinta
- 17:00 Ur eta lur
- 17:36 Ikusmira
- 17:52 Berriak
- 18:12 Eguraldia
- 18:15 Harmailatik
- 19:00 Beranduegi.tv
- 19:25 Korrika 18
- 19:55 Zorion Agurrak
- 19:58 Berriak
- 20:18 Eguraldia
- 20:20 Magazinea
- 21:05 Gurean gaur
- 21:35 Klaketa
- 22:12 Korrika 18
- 22:42 Berriak
- 23:02 Eguraldia
- 23:07 Magazinea
- 23:52 Bizitegia
- 00:01 Harmailatik
- 00:46 Berriak
- 00:51 Eguraldia
- 00:54 Magazinea

EGUAZTENA, 20



Osasun tartea

Buruko gaitzak dituztenei eta euren familiei laguntza ematen dien *Why Not* fundazioa berba-gai. | 20:16

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:10 Onein
- 13:30 Gabiriako Rallysprinta
- 14:05 Korrika 18
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Klaketa
- 15:45 Onein
- 16:17 Korrika 18
- 16:47 Harmailatik
- 17:32 Gabiriako Rallysprinta
- 18:07 Zorion Agurrak
- 18:12 Berriak
- 18:32 Eguraldia
- 18:34 Hitzlandia
- 18:56 Korrika 18
- 19:26 Beranduegi.tv
- 19:46 Zorion Agurrak
- 19:49 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:16 Magazinea
- 21:01 Gurean gaur
- 21:32 Hitzlandia
- 21:54 Korrika 18
- 22:24 Ekogune
- 22:54 Berriak
- 23:14 Eguraldia
- 23:16 Magazinea
- 00:05 Berriak
- 00:25 Eguraldia

EGUENA, 21



'Planik bai?'

Asteburuan izango diren kultura hitzorduen berri emango digu Arantzazu Ezkibelek. | 17:48

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Ur eta lur
- 13:55 Ikusmira
- 14:17 Onein
- 14:37 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Gabiriako Rallysprinta
- 15:43 Korrika 18
- 16:13 AsteON
- 16:53 Berriak
- 17:13 Eguraldia
- 17:16 Onein
- 17:48 Planik bai?
- 18:08 AsteON
- 18:38 Korrika 18
- 19:08 Beranduegi.tv
- 19:33 Planik bai?
- 19:53 Berriak
- 20:13 Eguraldia
- 20:15 Magazinea
- 21:00 Gurean gaur
- 21:30 Planik bai?
- 21:50 Korrika 18
- 22:20 Berriak
- 22:40 Eguraldia
- 22:43 Magazinea
- 23:28 Klaketa
- 00:00 Planik bai?
- 00:20 Berriak
- 00:40 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 22



Bertso saioa

Arabako bertso txapelketa osorik ikusgai. Manex Agirre aramaioarra txapeldunorde geratu zen. | 22:15

- 12:00 Planik bai?
- 12:20 Magazinea
- 13:05 Gurean gaur
- 13:30 Onein
- 13:54 Bizitegia
- 14:22 Ikusmira
- 14:43 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Planik bai?
- 15:28 Laino arteko plana
- 15:58 Korrika 18
- 16:28 Beranduegi.tv
- 16:48 Zorion Agurrak
- 16:53 Berriak
- 17:13 Eguraldia
- 17:16 Planik bai?
- 17:36 28.Klip
- 18:08 Beranduegi.tv
- 18:32 Gabiriako Rallysprinta
- 19:07 Korrika 18
- 19:37 Planik bai?
- 19:59 Berriak
- 20:19 Eguraldia
- 20:22 Gurean gaur
- 20:52 Korrika 18
- 21:52 Berriak
- 22:12 Eguraldia
- 22:15 Bertso saioa
- 23:00 Korrika 18

ARRASATE IRRATIA

Arabako bertsolari txapelketa berba-gai, gaur, astelehena

Zapatuan jokatu zen Arabako bertsolari txapelketa eta txapeldunorde geratu zen Manex Agirre aramaioarra. Oihane Pereak irabazi zuen txapelketa eta saio horri buruz hitz egingo dugu Beñat Zamalloarekin gaurko *Igo autobusera!* irratsaioko 107.7ko uhinetan.

Gaszte informazioa jasoko dugu bihar, martitzena

Hamabostean behin egiten dugun bezala, bihar, martitzena, Arrasateko gazte bulegoan egingo dugu geldialdia. Dorleta Kortazar gazte bulegoko teknikariak gazte informazioaren berri emango digu, besteak beste, Arrasate Irratiko uhinetan, *Igo autobusera!* irratsaioan.

Korrikako kirol-jertsea zozketatuko dugu egubakoitzean

Aste honetako zozketan, besteak beste, Korrikako kirol-jertse bat zozketatuko dugu. Sari hori lortu nahi baldin baduzue, hartu parte zozketan. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera eta zozketan parte hartuko duzu. Egubakoitzean emango dugu irabazlearen izena. Zorte on!

TELE-ALBISTEAK

Korrikak ematen duena, egunero Goiena telebistan ikusgai

Debagoiengan jasotako irudiak eguneko 'Magazinea' saioan eskainiko dizkizuegu

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Hilaren 14an, joan zen asteko egunean, eman zitzaion Korrikako 18. edizioari hasiera Andoainen eta 24an Baionara iritsiko da euskararen aldeko lekukoa.

Bada, Korrikak egunero-egunero ematen duena ikusi ahal izango duzue Goiena telebistan, ETB3-k ekoiztutako saioaren bitartez.

Horretarako aukera izango duzue Korrikak irauten duen bitartean egunero, gutxi gorabehera 16:00etan, 19:00etan eta 22:00etan, Goiena telebistan.

Korrika Debagoiengan

Debagoienera eguaztenetik egunera bitarteko gauetan iritsiko da Korrika eta Goiena telebistako kamerak bertatik bertara ibiliko dira gure ibarretako kilometroetan barrena gertatzen dena jasotzen.

Modu horretara, egunean egingo dugun *Magazinea* Korrikari eskainiko diogu. Txomin Madinak aurkeztutako saioan, Oihana Elortza eta Amaia Txintxurreta kazetariak ere egongo dira, izan ere, beraiek ibiliko dira Korrikak gure ibarrean uzten



Duela bi urteko Korrikako une bat. | GOIENA

Egubakoitzean gure bailaran jasotako Korrikaren saio berezia ikusgai

duen giroa jasotzen. Eta euren hitzez gain, goizaldean Debagoiengan jasotakoak erakutsiko dizkizuegu.

Debagoiengo saio berezia
Korrikak Debagoiengan ematen

duena, beraz, eguneko *Magazinea*-n erakutsiko dizuegu, baina saio berezi bat ere eskainiko dizuegu. Korrikak gure bailaran ematen duenaren saio berezi hori egubakoitzean ikusi ahal izango duzue.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Kenar Da Silva Moreno
Martxoaren 23an, 2 urte.
Zorionak, maitxia! Espero dou egun politxa pasatzia! Maitxe zaitxugu! Bi patxo handi amatxo, aitaxo, amama, aitxitxa, osaba Erik, izeba yayi eta Uxueren partetik.



ARRASATE
Ortzi Uribesalgo Altube
Martxoaren 23an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat! Itxasne, Andoni, Ekhi, amama, tia eta tio.



ARRASATE
Jose Ramon Ercilla
Martxoaren 22an, 49 urte. Zorionak, aitaxo! Muxu handia amatxo, Hodei, Aimar eta Danelen partetik. Maite zaitugu!



ARETXABALETA
Ainhize Sanchez
Martxoaren 22an, 6 urte. Zorionak familiaren partetik eta ondo ospatu zure urtebetetze eguna.



OÑATI
Enara Guridi Murua
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak, marisorgintxo! Txokolatezko lau patxo goxo etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Iker Gorosabel Velez
Martxoaren 22an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Aurten be txokolatada handi batekin ospatuko zure eguna. Patxo handi bat aitaxo, amatxo eta Aimarren partetik.




BERGARA
Uxue Iriondo Igarza
Martxoaren 22an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat etxeko denon partetik.



BERGARA
Unax Larrea Gantxegi
Martxoaren 21ean, 2 urte. Zorionak, pottoko! Bi urtetxo betetzen ditu gure etxeko piratak! Orain bezain alaia izaten jarrai dezazula! Muxu handi bat Nora, Aner, aitaxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Maddi Amozarrain Olabarria
Martxoaren 21ean, urtebete. Zorionak, Maddi! Patxo handi-handi bat etxeko danon partetik!



ELGETA
Jon Markiegi Arenaza
Martxoaren 21ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko danen partetik. Ondo-ondo pasatu zure egunean.



BERGARA
Ibon Aristimuño
Martxoaren 20an, 23 urte. Zorionak, Ibon, eta urte askotarako! Ondo pasatu eguna, kuadrillakuen partetik!



BERGARA
Uxue Urriza Aranzabal
Martxoaren 20an, 4 urte. Zorionak!



BERGARA
Elene Perez Zabaleta
Martxoaren 20an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, prexiosa! Belarritik bi tirakada eta patxo handi bat familia guztiaren eta, bereziki, Ane, Jurgi, Erik eta Noraren partetik.



ARETXABALETA
Oxel Urteaga Larrea
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak, Oxel! Ze mutiko handixa ein zaren! Marrubizko patxo bat familixa danaren partetik!



ARRASATE
Hodei Idigoras Amado
Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu zure irrifar polit horreaz! Patxo bat familia guztiaren partetik, bereziki Julenek! Edurnezuri zure laguntxuak ere, egun on bat opa dizu!



ARRASATE
Eider, Iker eta Alaitz Arkauz Aperribai
Martxoaren 19an, 7 urte. Zorionak, hirukote eta patxo handi bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Ion Lazkano Palacios
Martxoaren 19an, 8 urte. Zorionak! Gure etxeko printze txikia errege bihurtzen dabil. Ondo pasatu familia eta lagunekin. 8 muxu goxo-goxo familia guztiaren eta, bereziki, OSI taldekoe partetik.




BERGARA
Maitane Agiriano Larrion
Martxoaren 18an, 4 urte. Zorionak, printsesa, familiaren aldetik eta muxu handi bat lonen partetik.



BERGARA
Unai Irizar Frago
Martxoaren 18an, 11 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat etxeko partetik. Baita ere zorionak errealeko futbolari Gorka Elustondori. Aupa erreala!



ARETXABALETA
Manex eta Beñat Ibarondo
Zorionak, bikote! Manexek martxoaren 17an, 8 urte eta Beñatek martxoaren 28an, 6 urte. Aupa, txapeldunak! Ondo pasatu zuen egunak eta muxu handi bat etxeko partetik!



ARRASATE
Aitor Vitoria Herranz
Martxoaren 16an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Lau urte jada, ze handi! Urtebetetze zoragarria pasa dezazula eta danok ikusi deigun! *Super mega* besarkada!




ANTZUOLA
June Soto Axpe
Martxoaren 15ean, 6 urte. Zorionak, poxpolina, etxeko partetik eta muxu handi bat.




ARETXABALETA
Markel Arana Priego
Martxoaren 15ean, 9 urte. Zorionak, Markel! Belarritik 9 tirakada eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.




ARRASATE
Sara Vitoria Zabaleta
Martxoaren 15ean, 39 urte. Zorionak! Guztiok partetik ederto pasa dezazula eta danok ikusi deigun! Besarkada handi pilo bat!



ARETXABALETA
Eider Aranegi Leturiaga
Martxoaren 14an, 9 urte. Zorionak, Eider! Egun zoragarri bat pasa ezazu zure familia eta lagunekin. Besarkada handi bat denon partetik, bereziki Oier, Irati eta Haritzek.



ARETXABALETA
Noa Olivenza Iturricastillo
Martxoaren 12an, urtebete. Zorionak, txiki! Jada urtebete gure artean. Zorionak etxeko guztiok partetik, eta bereziki, Esti, Laura, Eider, Janire, Irati eta Julen.



BERGARA
Uxue Azkarate Unamuno
Martxoaren 12an, 9 urte. Ondo pasatu eguna eta urte askotarako etxeko eta, bereziki, Aneren partetik.




ARETXABALETA
Markel Beitia Barandiaran
Martxoaren 11n, 5 urte. Zorionak, Marke! Zure lagun Urkoren eta bere familiaren partetik. Muxu potolo bat eta ondo-ondo pasatu.



BERGARA
Maitane Urkiola Martinez
Martxoaren 11n, 12 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure hamabigarren urtebete eguna eta muxu handi bat etxeko partetik!



ARETXABALETA
Sandra Giletto
Martxoaren 11n, 22 urte. Zorionak! Zu ere handitzen zoaz, e? Je, je, je... Afari eder batekin ospatuko dugu! Eskerrik asko zaren modukua izateagatik eta zure irifarrarekin dena alaitzeagatik!



ESKORIATZA
Ekaitz Arrese Otamendi
Martxoaren 9an, 2 urte. Zorionak, pottolo! Aupa txapeldun! Patxo potolo bat Unax, Haritz, Oihane, Ametz eta Udaneren partetik. Gora erreala!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitarkeok.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera.

JAIOTAKOAK



Alaia Zubia Albisua

Urretxu. 4,015 kilo. Martxoaren 8a. Gurasoak: Ane eta Iñigo. Argazkian, Alaia jaioberria gurasoekin.



Ellie Caceres Dadkhah

Arrasate. 3,600 kilo. Martxoaren 14a. Gurasoak: Leila eta Alberto. Argazkian, Ellie amarekin.



Beñat Irizar Aramburu

Oñati. 3,190 kilo. Martxoaren 14a. Gurasoak: Aitziber eta Jaime. Argazkian, Beñat jaioberria sehaskan.



Iraia Gil Hoyas

Oñati. 3,100 kilo. Martxoaren 13a. Gurasoak: Nuria eta Pello. Argazkian, Iraia sehaskan.



Gartxot Elortondo Moraza

Arrasate. 3,670 kilo. Martxoaren 10a. Gurasoak: Aitor eta Zorione. Argazkian, Gartxot Izadi arrebarekin.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batzera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK




	* Kirol olimpiarra	Daude	Putzua
Gizon izena	Aurreko hizki	Urteen kopurua	
...stan, kurduen aberria (Mus) mugimendu motela			
Dokumentu mota	Uretako biztanle		
Marokoko hiria	Intsektu mota	Sodioa	
		Modu atzizkia	
Eztabaida			Junta-gailua
Iragazkitik igarorazi		Bokala	
		Jupiterren satelitea	
3	Kontsonantea	Idi, hitz elkarteetan	
Kanonen arberakoa	Nitrogenoa	Potasioa	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK



Ezetz igarri: Ane.

SUDOKUA

	6		8					5
8						2		
		5		9	3	4	8	
6								7
	2					5		
	8	9	7		4	6	3	
	3					7		8
9			5			3		
	5			4	6	9		2

HIZKI SALDA

Topa itzazu Asiako bost hiriburu

R	E	A	O	S	F	J	N	A
E	U	F	E	A	D	K	E	U
H	K	A	B	U	L	B	W	T
A	Q	O	Y	A	T	A	D	E
T	E	H	E	R	A	N	E	P
A	P	U	A	A	R	K	L	A
A	A	T	O	K	I	O	H	E
B	A	N	G	K	O	K	I	A
A	T	E	F	R	O	A	E	U

EZETZ IGARRI!

Aneren amak bost alaba ditu. Lau dira: Nana, Nene, Nini, Nono. Zein izen du bosgarrenak?

AI, ENE!

Eroso eta bizkor, batez ere maldan behera

Ibilgailu hori guraso askoren ametsa da: karrotxoa eta patinetea batera. Ikusi behar... maldan gora nola moldatzen diren!
www.sarda.es



AHOBERO

"Istripuaren aurretik, cava apur batekin bakarrik busti nituen ezpainak"

JOSE ORTEGA CANO | TOREAZAILEA

Hasi da Jose Ortega Cano torea-tzailearen kontrako epaiketa, hildako bat eragin zuen auto istripuagatik. Hark dio apenas edan zuela. Toxikologiako perituek, bestalde, diote berez kontrolean eman zuen gehiegizko 1,26a baino gehiago edan zuela. Nori sinetsi?
www.elmundo.es

EGURALDIA



Max. 7°
Min. 1°

Eguraldia neguko itxura hartuko du; elur-kota 800-900 metro inguruan egongo da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-03-18

HAMARREKOA

Juan Martinez de Irujo Hamar urtean gutxiren eskura dagoen marka lortu du 1981ean Iberon jaiotako pilotariak: hiru lehia nagusietan bederatzitxapel lortzea. | TXOMIN MADINA

"Jenioa eduki behar da, inori errespetua galdu barik"

1. Ekainean hamar urte beteko dituzu profesionaletan. Nolabait ospatzeko asmorik?

Ez. Data horietan eskuz banakako txapelketaren finala ere izan ohi da; ea han egon eta txapela irabazterik dudana. Ez badut irabazten, ez da ospatzeko ezer egongo.

2. Hamar urtean zertan aldatu da pilota?

Aldatu da, bai. Gaur egun gero eta gazte gehiago joaten dira frontoietara eta lehen baino abiadura handiagoarekin jokatzen da. Egon da eboluzioa, eta datozen hamar urteetan ere egongo da.

3. Ia 800 partiduren ostean bada bereziki gogoratzen duzunik?


Batez ere, debutaren eguneko eta Gasteizen Aimar Olaizolaren kontra jokatu nuen lehen buruzburuko, 22-1 irabazi nionekoa.

4. Partiduko pikeak 22. tantoan amaitzen dira?

22. tantoan eta beste bost minutuan; batez ere, ez zarenean gustura geratu. Baina aldagelan sartu, bost minutu pasa eta betikora buelta! Ondo konpontzen gara: frontoian gertatutakoa frontoian geratzen da. Gero, kontrarioarekin afaltzera joan beharra badago, joan egiten zara.

5. 2006an hiru nagusiak irabazi zenituen. 2013an ere bai?

Oso zail dago. Zaharragoa naiz eta arerioak asko jokatzen dabilta. Baina saiatu, saiaturako gara... ari naiz,



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Irribarre iraunkorra guztiontzat"

"Irribarre iraunkorra jarriko nioke mundu guztiari; eta agintean, berriz, ondo agintzen dakien bat jarriko nuke. Horren falta ikusten dut: goian daudenek ez dituzte gauzak batere ondo egiten eta jendea ere ez dut oso gustura ikusten. Mundu guztia zoriontsua izan dadila".

6. 2006an eskuz binakakoa irabazi zenuen Eulaterekin. Egun, txapel gehiago dituzu, baina euskarana hura da irabazle. Gaituzko duzu?

Zaila. Lotsatiagoa naiz ni; euskaraz hitz egiteko oso seguru egon behar dut. Bizitza luzea da; ea inoiz kameron aurrean euskaraz hitz egiten dudana. Emazte eta alabarekin saiatzen naiz egiten, baina etxetik kanpo lotsa handia ematen dit.

7. Txikitatik nahi zenuen pilotari izan. Eta lortu izan ez bazenu?

Ez dakit. Ikasketak utzi nituen... tontoa izan nintzen. Baliteke lan-tegi baten egotea; edo suhiltzaile izatea, baina horretarako asko ikasi behar da. Pribilegiatua naiz: gutxi bizi dira gustuko dutenetik.

8. Frontoian jeniodun pertsona ikusten zaitugu; frontoitik kanpo?

Ateraldi hori beti dut. Frontoian badut jenioa, baina gaseosa bezala naiz: tapoia irekitzen duzu, gasa irteten da eta gero ezerezean geratzen da. Jenioa izan behar da, inori errespetua galdu barik.

9. Bromazalea ei zara. Azkena?

Egunero ari naiz adar joka; broma asko egiten ditut, baina niri ere egiten dizkirate. Bromazaleak jasotzen ere jakin behar du.

10. Arhane alabak badu pilotarako talenturik?

Esateko goiz da, baina gustatzen zaio partidua ikustea, baita pala txiki batekin jolastea ere. Pilotari izan nahi balu lagunduko nioke; futbolari edo atleta izateko ere bai.

AZKEN BERBA

IXIDOR SOLUPE



Tontuena erlojerue

Saioi batean, gure eskualdeko herritar batzuei entzundako esaera da. "Kontzertu ekonomikoak suposatzen du txikira jokatu [mus jokoan] eta partida galtzea". Hauxe zioen Laura Mintegik irratian iazko iraileko aurre-kampainan sartuta geundela. Orain astebete *Nueva Economía Forum*-ean, ordea, diskurtsoa erabat aldatu zuen, baloreen jarriz Euskal Kontzertua. Inigo Urkullu lehendakariak Raxoiren murrizketa politikak jarraitu izana ere salatu zuen. Bilduk 5,2 milioitan murriztu du 2013rako Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako aurrekontua. Gipuzkoako sektore ahulnari zerbitzuak bermatzera zuzendutako dirutzari bost milioi baino gehiago kendu dizkio! Zerbakiak argitzailak dira: 323,2 milioi 2012an eta 318 milioi 2013an. Hezkuntza esparruan Bergarako Uned unibertsitateko zuzendaritzak irakasleen %50 kaleratu beharra izan ditu. Uneden Patronatua Bergarako Udalak, Kutxak eta gehiengo batez Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute. Besteie leporatu norberaren kontra eta gaitasun ezak? Non dago erlojerue!... Venezuelara joan da!

Orain Arrasaten

Benetan pisua galdu nahi duzu?

PSE: 37/04



Esan baitez betiko

Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa
Zientzia eta zorrotztasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko